

BERTSOLARIA EZ DA BERTSOLARI
JAIOTZEN, IZATERA IRISTEN DA;

Emakumearen ibilbidea bertsolaritzan
zehar (1980-2009)

*Txirrita ez baina orain neretzat
kolpeak eta igurtziak
hainbat jasok ez dituztenei
muxuak ta goraintziak
muxuak bertso eskolakoei
Juanjo Urian bitxiak
honen zati bat ere badute
lagun minek ta etxiak
baina behin behar ta omendu behar
gaur emakume guziak
ta bereziki zernahi bidetan
abitu ziren gutxiak
gizarte honek euren ametsen
erdibidean utziak.*

Maialen LUJANBIO,
Irun, 2003-12-14.
Gipuzkoako txapelketako finala.

Egilea: Zaira Latasa Oteiza
Tutorea: Edurne Jabat Torres
Irakasgaia: Master bukaerako lana
Ikasturtea: 2009-2010
Data: 2010/06/15

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2 or.
2. HIPOTESIAK.....	3 or.
3. HELBURUAK.....	4 or.
4. MARKO TEORIKOA.....	5 or.
5. METODOLOGIA.....	19 or.
6. ANALISIA.....	20 or.
7. ONDORIOAK.....	45 or.
8. BIBLIOGRAFIA.....	47 or.
9. GEHIGARRIAK.....	51 or.
10. ESKERRAK.....	98 or.

1. SARRERA:

Simon Beauvoirek argi eta esanguratsuki aipatu eta azaldu zuen bere liburuan (*El segundo sexo* (1949) deiturikoa); “*emakumea ez da emakume jaiotzen, izatera iristen da*”. Honen harira, eta erreferente gisa harturik, hau dut nik aipa: bertsolaria ez da bertsolari jaiotzen, izatera iristen da. Aldiz, bertsolariaren irudia bera, gizonezkoaren irudia dugu erreferente gisa (berezko irudi bezala), nahiz eta honek ez dakarren irudi isolatu hori bera.

Master bukaerarako landutako eta aukeraturiko gai honek, alde batetik, emakumeak euskal kulturaren parte den bertsolaritzan, jorraturiko zein bidean izaniko oztopo eta emaniko urratsak ditu erakusgai hurrenez hurren. Honetaz gain, bertsolaritzaren esparru ezberdinetan (epaimahai, gai-jartzaile), azken hiru hamarkadetan (1980-2009) izandako errepresentazio zein bere partaidetza (bertsolari moduan) du erakusgai gizonezkoekin egindako alderaketan. Nolabait ere, eboluzioa eta partaidetza handiagoa ematen ari den eta biak ere (emakume/gizon), bertsolaritzaren esparru (sentsazio, pertzepzio eta abar) ezberdinetan, partaidetza edota maila berean dauden edo ez hipotesiaren edota galderapean bideratuta dago lana. Hala, bertsolaritzak iraganean izaniko errepresentazio irudi bakarretik (gizonen parte hartze soiletik, espazio publikoan) distantzia hartzea eta emakumeak eginiko eta zabalduriko bidea ere, argitasunez azpimarratzea zein islatzea dut helburu, bertsolaritzan zein beregain (emakumeengan) egon diren aldaketengan pixka bat ere bai erreparatuaz (irudi, jarrera, rol aldaketa eta abar).

Dudarik gabe, eskasak edota urriak izan dira eta dira egun bertsolaritzaren inguruan eginiko ikerketak edota lanak, eta are gutxiagoak zein urriagoak emakumeak esparru honetan eginiko ibilbidearen datu kuantitatibo zein ikerketak. Ondorioz, urritasun honen aurrean eta emakumeak duela gutxi arte izandako irudi publiko

eskasaren aurrean (aurrera aipatuko da irudi/eremu publiko eta pribatuaren nondik norakoa), urteetan egindako aurrerapausu eta lanak, ezerezean erortzeko balio izan ez dutela erakusteko interesak eraman dit gai hau aztertzeraz eta bide batez, gizarte patriarkal honetan non gizonak diren agintari zein boteredun nagusienak eta beraiek ezarritako gaiak diren erreferenteenak, emakumeak ere arlo ezberdinetan gauza ugari egoki eta zuzen ere aritu daitekeela erakusteko nahiak bultzatu dit nolabait ere gai hau aztertzeraz.

Azken finean, ezin hobe isla dezakeen Maialen Lujanbioren bertsoak (Gipuzkoako txapelketa, 2006), lehenengo orrian jarria, argi utzi dezake goian azaldurikoa, bertsoan bertan.

2. HIPOTESIAK

Emakumea bertsoan ari dela ikusgai dugu 80. hamarkadatik aurrera (zehar). Eta jada bertsoan ikustea edonon dabilela inork ez du uka egun, nahiz eta hasieran, emakumeak sartzeko eta bertsoan aritzeko oztopo edota zailtasun ezberdinak ikusi eta izan bazituen ere. Baina azken batean, bilakaerarik edota aldaketarik ekarri al du emakumeak bere sarpenarekin? Eta norainokoa izan da bere partehartze zein bilakaera gizonezkoekiko konparaketan?

Honen harira eta galdera handienaren baitan, emakume zein gizonen elkar partaidetzarekin batera (honek ez du erran nahi kopuru berean), egun, bertsoaritzako txapelketetako esparru ezberdinetan (partaidetza, epaimahaia, gai-jartzaile) zein bere impresiotik abiatuta, parekidetasun beraz hitz egin al dezakegu? Alegia, emakume zein gizonezkoak, maila berean eta partaidetza berean jokatzen dute bertsoaritzaren esparru ezberdinetan? Ze sentazio dute beraiek?

Erran moduz, lehenik eta behin argia da emakumeak publikoagoak direla, alegia, kanpoko jardun ezberdinetan gero eta gehiago parte hartzen dutela, ondorioz, gero eta gehiagokoa da beren protagonismoa eta ikuspena komunikabide ezberdinetan, sarritan, protagonista edota erreferente ikur bilakatuaz. Ildo horretatik, Bertsolaritza, horren adibidea izanik, eta kontutan harturik urte hauetako esperientzia mordoa; nahikoa izan al da emakume zein gizon, biak ere maila berean bertsoan ari edota postu ezberdinak okupatzeko orduan? Edo, oraindik ere gizartearen esparru askotan isla bera den arazo eta diferentziaz hitz egin dezakegu?

3. HELBURUAK

1. Bertsolaritzan, emakumearen lehen parte hartzetik gaur arte (1980-2009) izandako eboluzio, bilakaera, zailtasunak, partaidetza, irudi eta sentsazioak aztertzea.
 - 80. hamarkadatik, egun arte (2009), Euskal Herriko txapelketa nagusietan, emakumearen partaidetzaren (bertsolari, epaimahi eta gai-jartzaile) bilakaera grafikoki aztertzea.
 - Azken hiru hamarkadetan, emakumearen irudia bera (fisikoa, janzkera bera), ikus-entzuneko medio ezberdinen bitartez (bideo, irudi), aztertu eta konparatzea.
2. Bertsolaritzaren esparru ezberdinetan, emakume eta gizonen arteko konparazioa burutu, parekidetasun (kopuru, tratamendu, pertzepzio) edota maila berean dauden antzeman eta aztertzea.

- Hiru harmakadetan, Euskal Herriko txapelketa nagusian, gizon eta emakumeen partaidetzak aztertu eta alderatu (bertsolari, epaimahi edota gai-jartzaile gisa).
- Egun, zein lehen, emakumearen oztopo, sentsazio, esperientzi eta inpresioak jaso zein aztertu.

4. MARKO TEORIKOA

BERTSOLARITZA

Bertsolaritza, Euskal Herriko leku ezberdinetan, aspaldidanik aurrera eramandako euskal literaturaren (Egaña Andoni, Garcia Joserra eta Marichalar Jonek (2002) oinarri nagusietako bat da. Bertsoak, eta poesiak, ugariak eta anitzak izan dira munduko leku ezberdinetan, erromantzeak, koplak eta abar, alde aunitzetan entzunak izanik. Baina euskal bertsoak zein bertsolaritza bera, modu desberdinez eta eraldaketa ezberdinez horniturik egon dela ezin du inork uka, are gehiago XX. mendean zehar.

Aurrera jarraitu baina lehen eta historia zein hurbilpen orokorrean sartu baina lehen, bertsolaritza bera definitu beharrean aurkitzen gara. Definizioan hoberenetarikoa hain zuzen, bertsolari batena dugu, Xabier Amurizarena¹ hain zuzen, bertsolaritza bera, abestuz, errimatuz eta neurtuz burutzen den berbaldi bat bezala definiturik; hona hemen definizioa bera, bertsoan ezarririk:

*Neurriz eta errimaz
kantatzea hitza
horra hor zer kirol mota
den bertsolaritza*

¹ Bertsozaleen web orritik ateratako Xabier Amurizaren, bertsoaren definizioa:
<http://www.bertsozale.com/castellano/bertsolaritza/bertsolaritza1.htm>

Definizio arina zein genero aldetik erabat neutroa dela ikus badaiteke ere (ez baitago genero markarik inon), bertsolaritzaren ibilbidea edota irudia ikusi ezean, arazotsua edo zaila suertatu daiteke urrunetik (ezagutzen ez duen jendearen aldetik) zertaz ari garen hitz egiteko orduan. Dударik gabe, definizioak, bertsolaritzaren aspektu batzuk definitzen badizkigu ere, (neurri eta errima, kantatzea hitza), ez dakigu ez “non” ezta “nolakoa den egoera, saioa” hain zuzen definiziotik abiatuta. Puntu honetan, irudiaren beharra dela eta, askotan bertsolaritza bera, tradiziozko, aspaldidaniko irudiekin/sujetoaren lotua eta erakutsia izan da (Hernandez, Jone Miren (2006-2007); irudi maskulinoaren erreferentziatik alegia (non gizona den bertsolaritzan aritzen dena), hau bera, emakumeenganako oztopo bihurtu izan delarik: (Azurmendi J. (1980)):

“hablamos sobre bertsolarismo, pero no está nada claro qué ha de entenderse por tal concepto... Mezclamos la imagen de un determinado bertsolari-tipo con el concepto bertsolarismo. Y ello porque no analizamos qué es un verso, qué lo limita, define y distingue (que pudiera ir cambiando a través de la historia). Y como no sabemos definir al bertsolari por su obra, por su producto (primero habría que saber definir qué es la obra misma) lo definimos del lado del sujeto”.

Irudia zein faktore anitzak izan dira emakumeen oztopo zein beldurraren seinale. Baina emakumeen historiako irudi eskasean zentratu baina lehen, jarraian, bertsolaritzak azkeneko mendeetan zein nagusiki azkeneko mendean (XX. mendean) izaniko ibilbide orokor bat aztertuko dut bilakaera orokor bat eta testuingurua bera antzeman dadin.

1. BERTSOLARITZA IRAGANEAN: ALDAKETAK, ARAZOAK ETA BILAKAERA.

Jatorriaren galdera, arlo aunitzetan arazotsua izan da eta bertsolaritza arloan ere, konplexutasun maila berarekin aurkitzen gara, aunitzetan, mito aunitzen osapenekin. Honen harira, honako hau diotsute Andoni Egaña, Joserra Garciak zein Jon Marichalarrek (2002) liburuan:

“Se da una curiosa contradicción. Por una parte, se ha creado gratuitamente un mito acerca de los orígenes del bertsolarismo, pretendiendo que data de tiempos inmemoriales; por otra parte, en estos vertiginosos tiempos en los que con tanto ardor se combaten todos los mitos, ha surgido un antimito tan gratuito como el mito que pretende combatir: que el bertsolarismo es en el País Vasco un fenómeno más bien moderno, que tendría su origen hacia el siglo XIX.”

Kontuak kontu, batzuk neolito garaia edota prehistoria jartzen dute sorburu. Bertze batzuek ordea euskararen sorpenetik dagoela, eta bertsolaritzaren ikerketa zein azterketa ugari buruturiko Lekuonak berriz, “pastoreo” garaia (XV. mendea) du ardatz (Egaña Andoni, García Joserra eta Marichalar Jon (2002): *“Según Lekuona, los orígenes del bertsolarismo hay que buscarlos en la época del pastoreo.”* Mitxelenak ere, ildo beretik baina distantzia txiki batetik honakoa azaltzen du liburuan aipatzen duten moduan: *“La tradición (de los bertsolaris) es antigua, y se remonta por lo menos a las damas improvisadoras en verso del siglo XV de que nos hable Garibay”*.

Liburu berarekin aurrerago jarraituz, badago bertze mentzio bat ere, non emakume sortzaile (inprobisatzaile) hauei ere erreferentzia egiten zaien:

“ (...) hay en el Fuero de Vizcaya una segunda mención, aún más significativa, de la improvisación cantada de la época Es la que aparece en el título 8, Ley I.

(...)

El Fuero llama “profazadas” a estas mujeres que, con toda probabilidad, pueden considerarse como antecesoras directas de los bertsolaris actuales”.

Azken batean, emakume sortzaileak (inprobisatzaileak) egon zirela ezin du inork uka (ez dut funtsean bertsolariak zirenik erraten, baina bai abestu eta inprobisatzen zutela idazkiak dioten moduz), baina hala eta guztiz ere, azkar itxi zitzaizen atea Jone Mirenek artikuluan (2006-2007) azaldu moduz:

“Profazadorak, ere, hitzari loturiko pertsonaiak dira, pertsonai arriskutsuak nonbait, izan ere, Bizkaiko Foruak bere presentzia publikoa debekatu baitzuen 1452an. Ez dakigu zehazki zerk eragin zuen debeku hori, baina ondo ezagutzen dugu horren hartzaileak zeintzuk

ziren: herriz herriz, azokaz azokaz zebiltzan emakumeak. Fama txarreko emakumeak, emakume xumeak, saltzaileak, zirikatzaileak, umoretsuak, alaiak. Bat-bateko bertsoak erabiliz, burla egiten omen zuten publikoki. Eta kasu honi dagokionean, ziur aski, lanbidea baino lantokia bilakatu zen susmagarri. Gizonezkoen diskurtsoek agintzen zuten tokietan, plazetan, kalean nahiz garaiko botere ofizialaren tokietan (elizan...) ez zegoen lekurik emakumeen hitzentzat. Hori dela eta, legeak eta arauak bere lana egin zuten emakumeen hitza ezabatu eta baztertzeko.”

Dokumentaturiko datuak bilatzeko eta ikusteko orduan berriz, XVIII. mende bukaerara edota hobe, XIX. mendera arte salto egin beharra dago. Hala, XIX. mendea, datu biografiko, izen, zein pieza ugariz dokumentatua agertzen da, baina bertako datuak, aipa, bertso idatzien/bertso jarrien baitakoak direla. Nahiz eta erreferentzia ezberdinen arabera jakin bertso sortzaileak ere bazirela (inprobisatzaileak), ez dago oinarri sostengatzailearik, hain zuzen ere, garai horretan ez baitzeuden grabagailurik:

“El siglo XIX está mejor documentado, tanto en cuanto nombres y datos biográficos como en cuanto a las piezas conservadas. Sin embargo, se trata mayoritariamente de bertsos no improvisados (bertsos escritos/bertso jarriak). Se sabe, por referencias, que los bertsolaris que escribían estos bertsos acostumbraban también a improvisar, pero el número de bertsos improvisados de que disponemos es ciertamente escaso, y difícilmente puede decirse gran cosas sobre las características del bertso improvisado”. (Egaña Andoni, García Joserra, Marichalar Jon (2002)).

Erran moduz, grabagailuaren bitartez eman da aukera gorde zein transkribatzeko orduan, hau dela eta, XX. mendeko 60. hamarkada arte dauden datu guztiak, anekdota zein idazki ezberdinen bitartez jasoriko informazioak edota datuak dira. Halatan, bertsolari “klasikoen” baitan arras ezagunak bihurtu izan diren Etxahun, Xenpelar, Bilintx (XIX. mendekoak hiru hauek), zein Kepa Enbeita, Txirrita, Pello Errota, edota Udarregi bera (XX. mendekoak), inprobisatzaile onak izan direnaren pentsaera baldin badugu edota badago ere, bertso idatzi edo diktaturiko bertsoen bitartez lortu dute egun daukaten estatusa bera:

“Los bertsolaris considerados “clásicos” del bertsolarismo improvisado (...) fueron, según todos los indicios, grandes improvisadores, pero el estatus de que gozan dentro de la historia del bertsolarismo se debe, casi exclusivamente, a los bertsos escritos –o dictados, pero, en todo caso, no improvisados- que han llegado hasta nosotros”. (Egaña Andoni, García Joserra, Marichalar Jon (2002)).

Jada, XX. mendeko hirugarren hamarkadan, 1930. urtean, Manuel Lekuonak Bergaran eginiko defentsaren aldaketaren bitartez, bertsolaritzaren baitan, lehenengo aldaketa nabaria gertatu zen. Hain zuzen ere, 1935. urtean, “competición mundial de versolaris”² deituriko lehenengo txapelketa antolatu baitzen “Euskaltzaleak” elkartearen kargura, 1936. urtean ere, berriro errepikatuaz.

Aldi berean, txapelketa mota honek, bertsolaritzarengan aldaketa nabaria suertatu zuen, jada, bere hasierako oinarritik atera egin, alegia, plazatik edota garaiko testuingurutik atera eta azken batean, publiko baten aurrera txapelketa saio batera eramán zelako. Deskontestualizazio honetaz gain, bertsolaritzaren antolapenean ere, figura berri batzuk eman ziren, hala nola epaile edota gai-jartzaileen papera bera.

Bide polit zein aurrerakoia hartuta jada, azkar ikusi zuen bertsolaritzak ordea, etena edota iluntasuna bera, azkar etorri baitzen zentsura edota ate horien itxiera; frankismoaz eta diktaduraz ari naiz. Aipatzekoa da bide honetan ere, bertsolaritza ez zela zentsura edota geldialdi horren erreferente bakarra izan, musikak ere, Paco Aristik (1985) edota Josu Amezagak (1995) aipatu moduan, bide bera eramán baitzuen.

Eten luze honen bukaera, 1960. urteko hirugarren txapelketarekin bukatu zen, aldi honetan, Euskaltzaindiak antolatu zuelarik. Hurrengo hiru txapelketak, Egañak, Joserra Garciak zein Ion Marichalarrek aipatu moduz, 1962, 1965 eta 1967. urtean izan ziren.

Hurrengo txapelketa berriz (tarte handi baten ostean), 1980. urtean izan zen, jada frankismoa bera atzean gelditu izanik. Urte honetan, bi urteka antolatzea erabaki baldin

² Hain zuzen ere, erreferentzia hau, bertsozale elkartearen gunetik ateratako erreferentzia da: www.bertsozale.com helbidetik hain zuzen ere.

bazen ere (1982. urtean aurrera eramanda), 1984. urtean, ez zen txapelketarik egon. Azkenik, 1985. urtean, txapelketaren atarian, bertsolarien baitan, itzelezko eztabaida suertatu eta nolabait ere, Euskal Herriko bertsolari elkartearen sorrerarekin amaitu zen eztabaida bera. Hala diotsute Andoni Egañak, Joserra Garciak zein Jon Marichalarrek goian aipaturiko liburuan (2002): “*El campeonato correspondiente a 1985 produjo una acalorada discusión entre los organizadores y el colectivo de bertsolaris (al menos los más activos entre ellos), que desembocaron en la creación de la Asociación de Bertsolaris de Euskal Herria.*”.

Jada Euskal herriko bertsolari elkarteak, beregain hartu zuen txapelketaren antolakuntza bera eta azkenik, 1985. urtean txapelketa bera aurrera eramanez bazen ere, 1986. urtean zein, 1989, 1993 eta 1997. urtean txapelketak izan ziren hurrenez hurren. Honekin batera, aipatu jada probintzi bakoitzaren baitan ere, txapelketak egiten hasi zirela, baita eskolen zein gazteen baitan ere (txapelketak ere, bertso idatzien baitan ematen hasi ziren).

Bertsolaritzaren baitan aipatzekoa den bertze erreferente nagusi bat, dudarik gabe, Xenpelar dokumentazio zentroa da (1991. urtean sortua), zeinetan urteetan antolaturiko txapelketako datu, irudi, dokumentu, bideo zein hainbat eta hainbat txosten gorde eta mantendu egiten diren (duten) edozein ikerlari edota interesatuentzat eskuragarri izanik egun. (Horra hor, Herder-ek definituriko kulturaren erranahia (*preservar*) berarekin loturiko ideia zein adibidea, kasu honetan kultura popularraren mantenuarekin hain zuzen.)

Liburu ugariak izan dira bertsolaritzaren inguruan publikatu direnak azkeneko urteetan eta komunikabideek ere, bertsolaritzaren zabalpenean, bere garrantzi handia izan dute. Honen adibide, 1988. urtetik aurrera bertsolaritza arloan, *Hitzetik Hortzera* deituriko programaren dibulgazioa dugu, zeinetan bertsolarien saio ezberdinak aurkezten eta ezartzen dituzten.

90. hamarkadatik aurrera jada, jendearen interesa bera aunitz handitu eta txapelketak ere biderkatu egiten dira (bai bertsolari aldetik bai eta publiko aldetik). Jada, bertsolariak bera, derrigorrezkoa du egunerokotasun batean egotea, txapelketako zein saio ezberdineko gaiak, egunerokotasunean oinarriturik baitaude nagusiki.

Bertzalde, azkeneko hamarkada hauetan, bertsolarien adina bera jaitsi eta orokorrean, nabarmen gaztetu dela erran daiteke.

Azkenik, orain arte agerian gelditu ez den bertze aldaketa edota irudi berri bat suertatzen da bertsolaritzan 1980. urte aldera; emakumea. Hala diotsute hiru hauek publikaturiko liburuan (2002): “(...) *A fines del siglo, la incorporación de la mujer bertsolari en pie de igualdad es un hecho incontestable.*”

2. EMAKUMEA BERTSOLARITZAN (IRAGANA ETA ORAINA)

Hala diotsu Xabier Amurizak (1981) liburuan: “*Zergatik ez da izan emakume bertsolaririk? (...) Emakumeek elkarrekin biltzen zirenean, zergatik ez zuten hori bera egiten?*” Aurrerago, emakumeei ere erreferentzia eginez: *Zergatik ez zen bertsolari tradizioarik sortu?*

Xabier Amurizak, kausa bat ezarriaz, toki sozialaren aipamena egiten du. Izan ere, aurretik aipatu moduan, bertsolaritzaren esparru handi bat (txapelketez gain), taberna edota plazetan ematen zen eta da egun ere, nagusiki, gauetan, parranda giroan izanik. Puntu honetan, nahiz eta zehaztasun handirik gabe azaltzen ez baldin badun ere, bide zuzenean dabilela arras argia da. Espazio publikoan dauka jomuga bertsolaritzak, ordurarteko gizonezkoen espazioan³, espazio maskulino batean (aurrerago aipatuko dut espazio publiko/pribatuaren arteko bereizketa zein maskulinitasuna bera).

Dudarik gabe, gizartea zein bere hainbat esparru, aldakuntza prozesuan daude eta egon dira azken hamarkadetan, hala azaltzen digu Teresa Del Vallek (2001, 2002) bi

³ Kontutan hartzekoa da puntu honetan, liburuaren publikazioa bera noizkoa den. Alegia, 1981. urtekoa.

liburu ezberdinetan ere. Baina aldakuntzak barne, argi dago iragan zein egun ere, errepresentazio, jarrera zein lana berau ere, estruktura ezberdinetan ongi sakondurik dagoen genero sistemaren (Del Valle et al. (2002), Larrañaga Carmen (1993)) arabera eraikiak jarraitzen dutela eta beraz egoera berean aurrera dirautela, nahiz eta emakumearen publikotasuna, egun, gero eta nabariagoa den.

Carmen Larrañagak (1993) azaldu moduz, antolamendua, zein kategoriak, banaketa (sexuala kasu honetan), gizonaren baitatik eraikiak izan dira “normaltasun/natural” irudiaren baitatik. Aldi berean, Simon de Beauvoir-ek (1949), “*no se nace mujer sino que se llega a serlo*” esaldia eta beraz, eraiketa sozial hori argi azpimarratu baldin bazuen ere, argia da eraiketa hau bera ere gizon kontzeptuaren kasuan aldaketarik edo eraiketaren planteamendurik sortu ez duela egun (oraindik ere gizarte patriarkal zein gizonezkoen botere eta erreferente nagusitik osatuta baitugu Euskal Herriko gizartea). Honela diotsu Larrañagak (1994;29-30 or.) honen arira:

“Que en la tradición filosófica occidental la noción de alteridad le es ajena al varón es un hecho que no ha requerido demostración ya que hombre ha sido y es la categoría normativa sobre la que se sostiene y fija todo el armazón que identifica lo humano: el entendimiento, la palabra, la razón, el pensamiento; en última instancia la ley y el orden. (...) Así, pues, en el pensamiento occidental jamás se ha entendido que esta dualidad antropológica, que emana de la diferencia sexual dando lugar a los géneros masculino y femenino, sitúa a hombres y mujeres a idéntica distancia unos de otros dentro del sistema del género⁴.”

⁴ Genero sistemaz hitz egiten ari naizenean hain zuzen, Carmen Larrañagaren (1993) definizioa hartzen dut abiapuntutzat: “*Por sistema de género se entiende la práctica cultural y social de promover identidades y roles que dan lugar a los géneros masculino y femenino. Pocas veces se ha entendido, sin embargo, que este dimorfismo que deriva de tales prácticas es consecuencia del aprendizaje, y más bien se ha presumido biológica, es decir, consecuencia natural e inmediata de la diferencia entre los sexos.*”

Puntu honetan ere, erabat osagarri eta baterakorra den Teresa del Vallek (2002) honakoa azaltzen du generoaren inguruan (Ong 1992an oinarrituta): “*Se considera, asimismo, que el género es un proceso arbitrado por las relaciones de poder y, por consiguiente, supone dar cuenta de la transformación de la diferencia en desigualdad.*”

Gayle Rubin antropologoak ere, 1975. urtean publikaturiko artikuluan, genero/sexu sistemaren baitan (Del Valle et al (2002), Larrañagaren ildo beretik, nolabait ere ageriko uzten du ez dela garaiko determinismo biologiko batean erori behar, ez eta pentsatu behar. Alegia, genero zein sexu⁵ kontzeptu biak, eraikitako kontzeptuak direla azaltzen du, nahiz eta historikoki eta egun jende askok ere “natural/biologiko” bezala jo eta beraz, emakume izatea, jaiotzetik, rol, eta jarrera batzuei hertsiki lotua egotea dakar jende askoren pentsamenduan; honela diotsu Del Vallek (2002), Simone de Bouaveir-en hitzetatik eta artikulutik abiatuta:

“Desde esta perspectiva, propone el término sistema sexo/género para referirse al conjunto de disposiciones por las cuales la materia biológica del sexo y la procreación humana son conformadas por la intervención social y satisfechas en una forma convencional por extrañas que sean algunas de esas convenciones. Este sistema constituiría, a juicio de la autora, normas, representaciones, prácticas sociales, incluida la división social del trabajo e identidades subjetivas. (...) No obstante es importante señalar que la autora critica la denominación de sexo/género por ella acuñada, por considerar que se puede desprender la idea de que el sexo es una realidad natural no moldeada por factores socio-culturales. Lo hizo en un trabajo publicado diez años después (1989)”.

Nolabait ere, feminismoarentzat oinarri izan diren aportazio hauek (Simon de Beauvoir, Gayle Rubin etc.), bikainak baldin badira ere, egun, 2010ean, oraindik ere lan banaketa zein pertzepzio zein errepresentazio zein joera bera, sexu/genero arteko eraiketa batetik bideratuta daudela eta nagusiki egon direla inork gutxi uka dezake, nahiz eta gorago erran moduan, gizartea bera, aldaketa batean dagoen eta egunetik egun, emakume gehiago arlo publiko eta esparru goi aunitzen (boteredunen) erreferente ikur bihurtzen ari badiren ere (oraindik ere eskasak izanik). Ondorioz, lehenagoko emakumeen irudi publiko eskas hori bera, ezarritako eta “natural/biologiko” bezala jasoriko hezkuntza/sozializazio batek markatua izana da.

⁵ Sexuaren kontzeptuaren eraiketa, ondorengo artikuluko batean publikatzen du, 1989. urtean hain zuzen ere.

Halatan, nahiz eta Ortiz-Oses-ek edota F. K. Mayr-ek, (Larrañaga (1994), Euskal Herrian, genero/sexu arteko berdintasuna dagoela azpimarratzen duten ere (Larrañagak kritika zorrotzak egiten dielarik), nahikoa da begi hutsez, boteredun lekuetan (politikan, arlo juridikoan, enpresa bateko goi postuan eta abar), edota kirol arloko komunikabideen okupazioa ikustea baita bertako protagonistena ere, edota Irungo zein Hondarribiko alardearen polemika (Margaret Bullen (1997)) edota sozietate gastronomikoen sarbide arazoek polemika bera ikustea, konturatzeko gizarte honetan, emakume zein gizon biak ere berdintasun maila berean ez daudela. Alegia, polemika hauek, diferentzia handiaren seinale dira eta kirolen kasuan berriz, Euskal Herrian nagusi eta protagonista ezagun gehienak, gizonezkoak direla argi ikus dezakegu egun, baina diferentziak oraindik ere ageriagoak eta sakonagoak ziren, 70-80. hamarkadan, non emakumearen irudi zein prestigioa bera, eremu pribatuarekin (domestikoarekin) erabat lotuta baitzegoen (Del Valle Teresa (1989)).

Modu honetan, ikusita, orduko eta egungo bertsolaritza bera, publikotasunarekin lotuta dagoela, plazetan, tabernetan, sozietate gastronomikoetan edota eszenatoki gainean, jende aurrean kantatuaz, argi eta garbi ulertu daiteke 80. hamarkada bitarte arteko emakumeen presentzi publiko eskasa. Publiko diot, izan ere Larrañagak aipatu moduz (1997), emakumeen baitako bertso jarriak/idatziak, nahikoak izan baitira azken bi mende hauetan (baina askotan ere itzaliak edota isilduak); hain zuzen ere: Joxepa Antoni Aranberri Petriarena “Xenpelar”, Sor Justina Aldalur, Sebastiana Gesalaga “Zaldubi”: eta Sor niño dios dira adibidez hauetako adibide batzuk.

Publikotasunaren edota irudi publikoaren eskasaren arazoa bera ere, emakumea eta eremu domestikoaren/pribatuaren arteko loturak markatu izan du (goian aipatu moduz). Honen harira, Teresa Del Vallek (1985; 114 or) eginiko ikerketan azalduko da: *“A través del análisis de la información obtenida en las distintas fases de la observación participante y de las biografías, se constata que la vida de la mujer está fuertemente condicionada por la actividad*

familiar y doméstica. Si la consideramos a través del ciclo de la vida, vemos que la mujer se define a partir de la posición que ocupa en la jerarquía familiar: como hija, esposa, madre”.

Aurrerago hala jarraiki Del Vallek (1985; 115. or): “Según la información recogida, principalmente de las encuestas, ser madre y casarse son dos de las opciones más importantes en la vida de la mujer vasca”.

Argia da beraz Del Valle-k azaldu moduz, emakumea eta arlo pribatuaren arteko lotura garai horretan⁶, baita beraien pertzepzio edo eginbeharren markaketa sozializazio modu ezberdinetik. Ez hori bakarrik, prestigioa bera ere eremu horretatik datorkio emakumeari; honela diotsu (1985; 289. or): “De los atributos que definen a la mujer vasca (buena madre, limpia y trabajadora) y de la alta valoración que le da a las actividades y relaciones de la esfera doméstica, se desprende que el matrimonio y la maternidad son los núcleos que aglutinan la mayor parte de los elementos que le confieren prestigio”. Pixka bat aurrerago diotsu: “Los atributos de limpia y trabajadora, relacionados con la buena organización de la casa, son imprescindibles en toda mujer, por lo que una incapacidad de organización doméstica las desprestigiaría automáticamente”.

Garaiak garai, trantsizio zein kontzepzio zein Del Vallek eginiko ikerketan, belaunaldi gazteenean, aldaketa nabarmen zein positiboak jasotzen ditu (1985; 258. or): “La mujer vasca tiene una actitud positiva del cambio que se ha dado en los últimos años, en relación principalmente a la incorporación al trabajo asalariado, a la educación superior, al ejercicio de una mayor libertad sexual, el acceso al divorcio, el aborto, a los anticonceptivos, y una mayor aceptación de la madre soltera.”

Honen harira, aurrerago diotsu (1985; 273 or): “En los bares de poteo, considerados espacios habituales masculinos, las mujeres, sobre todo las más jóvenes, empiezan a ocupar un lugar. Por otro lado, la mujer comienza a tomar conciencia del tiempo de ocio propio y de la posibilidad que tiene a dedicarlo a actividades que aunque específicamente femeninas, le aprovechen a ella misma, entre las que como ejemplo podemos citar los numerosos gimnasios que se han abierto en los últimos años y los centros culturales para la mujer.”

⁶ Kontutan hartzekoa da, ikerketa hau hain zuzen, 1980. hamarkadaren hasieran burutua dagiela, liburuaren publikazioa bera, 1985. urtean gauzaturik.

Tabernaz gain edota zentro kultural ezberdinez gain, emakumea, esfera pribatutik atera, eta esfera publikoan leku ezberdina okupatzen hasten da 1980. hamarkadan zehar, hala nola kirol ezberdinetako emakumeen taldeak sortzen hasten dira, bai eta arte munduko sorpen ezberdinak (antzerkigintzan edota literatura sormenean eta abar) edota azkenik, elkarte-mugimendu⁷ ezberdinen sorrera kasu (Del Valle (2001)).

Garai honetan justu (1980. urte aldera) aurki eta koka dezakegu emakumearen hastapena bertsolaritzan. Hezkuntza formal zein ez formalarekin batera (bertso eskolak kasu), emakumea, sozializazio garaian, haur/nerabezaro garaian kultur aktibitate ezberdinetan parte hartzen hasten da. Garai horretara arte mantenduriko rol, jarrera eta domestikoaren (pribatuaren) arteko lotura hori hautsi (ez denen kasuan) eta arlo publikoko lan edo aktibitate ezberdinetan parte hartzen hasten da etxetik kanpo, baino arazo handi batekin aurkitzen da emakumea: kirol edota aktibitate horien irudi maskulinoarekin hain zuzen.

Lehiakortasuna kontzeptua bera oraingoz, alde batera utziaz, (nahiz eta Zulaikak (1985) emakume/gizon zein (jolas-play/joko-game) arteko lotura txiki bat azpimarratzen duen), maskulinitasunaren kontzeptua aktibitate ezberdinetan erabat nabarmentzekoa da, maskulinoak, alegia, gizonak, 80. hamarkada bitarte arte izan baitira erreferente publikoak alor gehienetan.

Puntu honetan, garrantzitsua da ba, maskulinitasunak Euskal Herrian berarekin dakarren joera edo erreferente kontzeptu nagusi bat; indarrarena hain zuzen ere. Jone Miren Hernandez-ek bere artikuluan zuzen azaldu moduz (2006-2007) zein Larrañagak ere aipatu moduz (1993), Euskal Herriko aktibitate publiko asko, nagusiki kirolaren aspektuan adibidez, gizonak, maskulinitasuna bera, indar arteko lehia batean erakusten

⁷ Teresa Del Vallek (2001), kapitulu oso bat eskaintzen dio, “asoziazionismo” edo elkarte-mugimendu hauen inguruan, alegia, elkarte batzuen nondik norakoak, emandako laguntzak, eginiko kritikak eta abar.

du. Lehiaketa hauek, Zulaikak (1985) aipatu moduz, (ingeleseko “play”) izan ordez, joko batzuk dira (ingeleseko “game”), zeinetan beti ere, garaile bat egon behar duen galtzaile bat edo batzuen aurrean. Ugariak dira Euskal Herriko jokoak, joko honen arabera osatuak: harri-jasotzaileak, aizkolariak, pilotariak, estropadak eta abar. Puntu honetan ez dut azaldu nahi beti ere subjektu baten lehiakortasunaren araberakoa denik, baizik eta taldekoa ere izan daiteke, baina beti ere, indar gehiena edo botere gehiena zein duen erakutsi nahi horren arabera eraikia (hona hemen Zulaikak (1985) aipatzen duen lehiakortasuna).

Kirolez gain, baina asko urrundu gabe, Xabier Amurizak (1981) publikaturiko liburu bati erreferentzia egin nahiko nioke orain, hemen jada aurkeztu dudalarik ere; honela dio izenburuak: *“Bertsolaritza; hitzaren kirol nazionala”*.

Bertsolaritzak beraz, eta Amurizaren definiziotik abiatuta ere (non kirola aipatzen duen), hitza du oinarri. Hitzaren arteko kirol jokoak (lehiakortasunarekin lotuta) da bertsolaritza. Kasu honetan beraz, hitzaren edota horrekin lotuta dagoen ahotsaren indarrak ari gara kasu honetan: honen harira, Jone Mirenek aipatu moduz (2006-2007; 65 or): *“ Halere, aipatutakoaz gain, indar fisikoa adierazteko badago beste modu bat: ahotsa. Ottek ahotsaren indarrak hitz egiten du eta gehienetan gizonezkoen esparruetan kokatzen du: tabernetan, elkarte gastronomikoetan eta, orokorrean gizonak biltzeko (jateko esate baterako) erabiltzen dituzten tokietan. (...) Horietako askotan, dio antropologoak, gizonak eta emakumeak biltzen dira, baina, onartua dago gizonezkoen ahotsa emakumezkoena baino indartsuago dela.”*

Berrito ere, botere zein indarrarekin (maskulinitasunarekin) batera, gizonezkoa da nagusi emakumeen ondoan. Halatan, hona Arantzazu Loidiren esaldi bat (Larrañagak (1993) jaso) arras esanguratsua dena: *“Yo estoy convencida de que en las competiciones pierdo un montón de puntos por mi voz y mi modo de cantar. Sebastián Lizaso canta mis versos y obtiene tres puntos más. A pesar de que el jurado diga que soy bonita, en ese ser bonita hay algo inconsciente que me resta puntos”*

Hau guztiarekin, oso markatuta datorkigu emakumearen sarrera hain maskulinoa den arlo batera. Nolabait ere, beldur zein errekonozimendu hori edukitzeko asmoz, emakumeak, ahalik eta diferentzia gutxien sortzea du helburu hasierako une horietan; hau dela eta Jone Miren Hernandez-ek (2006-2007) du aipa:

“(...) denok irudikatzen dugu bertsolari-tipo bat, eta Carmen Larrañagak azaltzen duen bezala, imagin hori, gehienetan, ez dago bertsolariaren jardunbidean bertan oinarrituta. Aldiz, subjektua, plazagizona, dugu erreferente. Hori dela eta emakumeak trabesti bilakatu behar izan dira bertsolari izateko. Gizonen planta hartzea eskatu zaie, inkontzienteki, noski. Estitxu Eizagirrek berak sinatutako blog batean aipatzen duenaren arabera, oholtzara igotzerako, bertso eskolako lehen lezioa hau izan ohi da: “kantatu fuerte, harro, hankak zabaldua eta besoak atzean””.

Pixka bat aurrerago diotsu Hernandez, Jone Mirenek (2006-2007), Arantzazu Loidiren hitzetan oinarriturik: *“Minigona jantzi bertso saio batean aritzeko? Horixe falta zen ba...”*

Beraz, hain markatutako erreferentzi maskulinoaren aurrean, emakume ugari, Jone Miren Hernandez-ek (2006-2007) edota Mari Luz Estebanek (2004), artikulu edota liburu ezberdinetan publikatu moduan, trabestismoa izan zen emakume ugariaren irtenbidea (maskulinizazioa) mundu honetan sartu ahal izateko, nahiz eta denborak eta mugimendu ezberdinen kritiken bitartez (feminismoak, elkarte-mugimenduak eta abar), emakumeen eskubideen inguruan lan aunitz burutu eta egun, emakumearen publikotasuna bera, lehenago baino errazagoa edota ageriagoa den, nahiz eta oraindik ere, lan-banaketan edota kontzepzio natura-biologiko horretako banaketan edota usteetan oraindik ere lan ugari egin beharra dagoen.

Bukatzeko beraz, erran feminismoko hainbat mugimendu edota elkarte-mugimenduko kritikak direla medio, emakumeen ahotsak zein beraien oihartzunak gero eta ageriagoak direla. Horren adibide ere dugu bertsolaritzaren arloan sorturiko talde ezberdinak (GABIRI adibidez), jada bertako partaideak (bertsolariak gehienak) genero

arteko tratamendua bera lantzen hasi direlarik, elkarrizketak eta saio ezberdinak publikoaren aurrean emanik.

5. METODOLOGIA

Bertsolaritzan, azken hiru hamarkadetan, emakumeak izaniko ibilbide zein bilakaera aztertu, ikertu eta gizonezkoekin alderatzeko orduan, bi metodologi eta teknika nagusi izango dira jarraian praktikara eramango ditudanak. Alde batetik, metodologia kuantitatiboaren baitan dagoen datu bilketa (Euskal Herriko bertso txapelketako parte hartzea, irudiak zein bideoa izanen dira materialak⁸) zein datuen konparazioa burutuko dut (gizon eta emakumeen artean) eta bertze aldetik, datu soiletan jasotzen ez diren sentsazio zein esperientziak, elkarrizketa teknikaren bitartez jasoak izango dira.

Izan ere, bertsolaritzaren esparru ezberdinetan bilakaerarik eta partehartze gehiagorik egon den edo egon ez den antzemateko orduan, ezinbertzekoa deritzot datu bilketa eta datuen interpretazio zein bilakaera aztertzea, bilakaera positibo edo negatiboa (parte hartze gehiago edo gutxiagoa) dagoen edo ez antzemateko orduan.

Honetaz gain, hipotesietan planteaturiko galdera edo arazoaren harira, alegia, egun parekidetasunik dagoen edo ez aztertzeko orduan, datu bilketaz eta horren analisisiaz gain, beharrezkoa ere deritzot bertsolaritzaren hastapenetik edo urte asko bertan daramatzaten edota jardun duten emakumeen elkarrizketa edota hitzaldietatik, informazioa jasotzea beren inpresio zein aldaketarik edota edonolako arazorik egon den antzemateko orduan. Honetarako, elkarrizketa bat burutuko dut (Estitxu Arocena

⁸ Irudiak, Xepelar Dokumentazio Zentroak, bere web orrian publikaturiko argazki batzuk dira. Bideoa berriz, bertsozale elkartean nik egindako bideo muntai txiki bat da, atal ezberdinetan zatiturik.

bertsolariari) eta bertze aldetik, Oreretan Maialen Lujanbiok emandako hitzaldia zein mahai ingurua hartuko dut oinarri⁹.

Ondorioz, datu bilketaz eta beraren analisisiaz gain, bertze alde batetik, metodologia kualitatiboaren beharra ikusten dut emakumeen sententzioak, aldaketak, eboluzioak arazoak eta oro har bilakaera aztertzeko orduan. Dударik gabe, inkesta bezalako teknika batek jaso ez dezakeen informazioa jasotzea bilatzen dut nik, horretarako derrigorrez, metodologia kualitatiboa behar izanik.

Bien arteko uztarketa honek, nire ustez, emaitza bera, modu global eta irudi oso bat eskaintzen dio aztertu nahi dudako ikerketa objektu honi, batek datuak eskainiaz eta bertzeak datuetatik at dagoen esperientzia eskainiaz.

Gainera, emakumeak bertsolaritzan izandako ibilbide edota partehartze inguruko informazioa, zein datu horien interpretazio eta bilakaeraren erreferentzi arruntak eta eskasak direla kontutan hartuta, derrigorrezkoa deritzot analisi praktikoa hau, derrigorrez ere aurrera eramateari.

Ondorioz, laburbilduz, bi metodologiak (kuantitatiboa zein kualitatiboa), izango dira aurrera edota praktikara emango ditudanak; horretarako, datu/irudi bilketa, zein elkarrizketa edota hitzaldi (mahai inguru baten) transkripzio zein lortutako informazioa erabiliaz.

6. ANALISIA

Jarraian, bertsozale elkartetik jasoriko datu, informazio, irudi zein egindako edo erabiliriko elkarrizketen bitartez, helburuekin bat datozen emakumearen bilakaera (1980-2009) ezberdina aztertuko eta interpretatuko ditut, ondoren, ondoriotan hain

⁹ Elkarrizketaren gidioa zein transkripzioak gehigarritan txertaturik daude hurrenez-hurren; gidioa 58. orrialdean dago. Estitxu Arocenari egindako elkarrizketaren transkripzioa berriz, 61. orrialdean eta Maialen Lujanbioren hitzaldia zein mahai inguruko transkripzioa, 75. orrialdean).

zuzen ere, hemendik ateratako ondorio nagusiak azaldurik. Lehenengo zatian bada, bere partaidetzari dagokionean (bertsolari moduan) bai eta bertsolari txapelketaren bertze esparru batzuetan izaniko errepresentazioa dut jomuga, beti ere, aldaketarik edota eboluzio positibo (partehartze gehiago) edo kontrakoa izan den aztertzeko intentzioarekin. Ondorioz, nik azterturiko datuekin, 5 grafiko ezberdin sortu eta erabili ditut, aztertu zein bisualki ere azterketa bera errazago suertatu dezan. Aipatu, grafiko hauek, gehigarritan txertaturik egongo direla.

Bigarren zati batean berriz, irudi batzuetaz horniturik, 1980-2009 urte bitartekoak izanik, beraien gainetiko analisi eta interpretazio bat burutuko dut.

Azkeneko eta hirugarren zatian berriz, erabili eta egindako elkarrizketetan suertaturiko ideia garrantzitsuenetatik abiatuta, paragrafoko ideiak analizatu eta interpretatuko ditut hurrenez-hurren.

1. EMAKUMEAK BERTSOLARITZAN ZEHAR IZANDAKO BILAKAERA GRAFIKOEN BITARTEZ:


Grafiko zehatzetan sartu baina lehen, aipatu lehendabiziko, txapelketa nagusi hauek, ez direla urterokoak izan. Ohi denez, 1986. urtekoa salbuespena izaki, berez 1985. urtean izan behar baitzen, lau urteka egin ohi dira txapelketa hauek. Beraz, grafiko guztiak, (5. grafikoa kendurik geroago ikusiko den moduan), 9 urte izango dituzte erakusgai; 1980, 1982, 1986, 1989, 1993, 1997, 2001, 2005 eta 2009¹⁰.

¹⁰ Garrantzitsua, aipatzea, 1982 eta 1986. urteko txapelketaren parte hartze masiboa. Aipatzekoa da bertsozale elkartekoekin hitz egin ondoren, 1982. urtean, Euskaltzaindiak antolatzen zuela eta berak erabakitzen zuela nor parte hartu edo nork ez zezakeen parte hartu Euskal Herriko bertso txapelketan. Honen arabera, kopurua bera, Euskaltzaindiak erabakirikoa izan zen.

1985-1986. urtean berriz, bertsozale eta euskaltzaindiaren arteko eztabaida itzelaren ondotik, bertsozale elkarteak sortu eta bertsozaleak bertan hasi ziren Euskal Herriko bertso txapelketa antolatzen. Lehenengo urtea, alegia, 1986, parte hartzeari dagokionean, arras handia izan zen, oraindik ere eskualdeko txapelketa ezberdinak ez baitzituzten inondik inora definituak, hau dela eta, Euskal Herriko bertso txapelketara sailkatua izateko, hasieratik fase aunitz egin behar izan ziren, denak ere Euskal Herriko bertso txapelketaren barruan izanik.

1.1. 1980-2009; emakume bertsolarien partehartzea.

Jada aurrerago aipatu dut emakumea 1980. hamarkada aldera, aldaketa batzuen kausa (lan-merkaturatzea, goi ikasketak, aktibitate ezberdinetan parte hartzen hasi izana eta abar), jende aurrean, publikoki agertzen hasten dela.



(1. grafikoa: 1980-2009; emakume bertsolarien partehartzea.)

Lehenengo grafikoan ikus dezakegun moduan, bistan dago argitasun osoz, norabidea bera goranzkoa dela handipen maila handi batekin. Urtetik urtera, gero eta emakume gehiago dira ausardiaz beterik, gogoz parte hartzen dutenak txapelketa hauetan (Euskal Herriko txapelketaren erreferentziak dira hauek, izan ere emakume askotxo bertze saio batzuetara apuntatzen badira ere, azterketa zehatz honetan ez dira agerikoak). Goranzko joera honek aldi berean, ez du adierazi nahi finaleraino guztiak iristen direnik baina behintzat, parte hartze gehiago islatu eta erakusten dutela. Nolabait ere, Teresa Del Valle (1985) adieraziriko aldaketa zein esparru/espazio publikoko

Hau dela eta, ikusi daiteke bi urte hauetako gizonen parte hartzea edota epaile eta gai-jartzaileen parte hartzea bera, arras handia dela, baina kausa guztiaren zergatia, oraindik ere, erabat definitu gabeko irizpideetan egongo lirateke.

parte hartze handiagoa, agerikoa da urtetik urtera grafikoak erakutsi moduz. Jada eremu domestikoatik (pribatutik) zertxobait aldendu eta ordurarte nagusi zen gizonaren espazioan agertzen hasten dira, nahiz eta hasieran arras eskasa izan partehartzea bera (kontutan hartzekoa da, publikotasunaren saltoarekiko beldurra, kezka, oztopo eta presioa bera, elkarrizketan gero ikusgai dena).

Hala, 1986. urteko Euskal Herriko txapelketan ikus dezakegu lehendabizikoz emakume bat (horrelako txapelketa batean diot, aurretik aipatu baitut jada Larrañagaren aiputik (1993), eremu pribatuan edota bertso idatzi/jarrietan aritzen zirela). Kristina Mardaraz bera izan zen lehenengo emakumea oholtza gainera igotzen, geroago, emakume askorentzat, erreferente ikur nagusia bilakatuaz. Aldiz, hurrengo txapelketa urtean, alegia, 1989. urtean, ez zen emakumearen parte hartzerik egon, ondorioz, berriz ere hutsean gelditu zen emakumearen errepresentazio publikoa. 1993. urtetik aurrera berriz, nagusitasun handitzez, partehartzea bera dezente igotzen da; 1993. urtean, 2 izan ziren (Estitxu Arozena eta Amaia Telletxea), 1997. urtean berriz, bortz, (Oihane Enbeitia, Iratxe Ibarra, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez eta Maialen Lujanbio bera).


2001. urtean ordea, seik parte hartu zuten, (Maialen bera final aurretara zuzenean sailkaturik), Amaia Agirre, Nerea Elustondo, Oihane Enbeitia, Ainhoa Agirreazaldegia eta Estitxu Arozena bera.

2005ean berriz, 8 izan ziren partaideak: Amaia Agirre, Estitxu Eizagirre, Iratxe Ibarra, Oihane Perea, Miren Artetxe, Estitxu Arozena, Nahikari Gabilondo eta Maialen Lujanbio bera (zuzenean finalista izanik, 2001. urtean hain zuzen ere txapeldun orde izan baitzen). Iaz ordea, (2009. urtean), 13 izan ziren aurkeztuak: Ainhoa Agirreazaldegia, Amaia Agirre, Erika Lagoma, Iratxe Ibarra, Jone Uria, Maialen Lujanbio, Miren Amuriza, Miren artetxe, Maddalen Arzallus, Oihana Bartra, Enbeitia Onintza. Oihane Perea eta Uxue Alberdi bera.

Puntu honetan, aipatu, nahiz eta irudian ikusgai ez den, 1997. urtean ikusi zela lehendabizikoz emakume bat Euskal Herriko txapelketako finalean; Maialen Lujanbioz ari naiz. 1997. urtearekin batera, 2001, 2005 eta 2009 urteko txapelketetan ere Maialen izan zen emakumeen aldetik errepresentazio bakarra eta azkenean, bertsolaritzaren txapelketaren historia guztian pasa ez zen gertakizuna bera suertatu zen iaz; Maialen Lujanbio, finalera lehen iritsiriko emakumea, garaile izan zen 7 gizonen aurrean (finalean diotsut, ze aurretik, gehiago utzi baitzituen atzean).

1.2 1980-2009: urteko partaidetzen (gizon/emakumeen) konparazioa:

Erran moduz, emakumeen artetik goranzko bilakaera egon dela argia da, baina gizonezkoen konparaketan berriz, (2. grafikoa) oraindik ere tartea bera nahiko handia izaten jarraitzen duela ikus dezakegu, nahiz eta apurka eta apurka gero eta txikiagoa den.




(2. grafikoa: 1980-2009: urteko partaidetzen (gizon/emakumeen) konparazioa.)

Jarraian, gizonaren gutxi gora-beherako mantenua antzeman daiteke azken 4 txapelketetan, izan ere aurrekoetan (1982, 1986) kasua, desberdina da, hain zuzen ere beraien baitan, Gipuzkoako eta Araba-Bizkaiko txapelketak gertatu baitziren (8. azpi notatxoan azaldua parte hartze handi horren zergatia).

Orokorrean, txapelketa nagusi honetara (2009) iritsi ziren finalisten artean, % 70 (% 70,45 zehazki), gizonak izan ziren, % 30 bera (gutxi gora-behera), emakumeak izanik, alegia, 10 pertsonetatik 3 emakume, 7 gizonzkoen aurrean. Portzentajea bera, urteetan atzera eginez, oraindik tartea bera aunitzez handiagoa dela ikus daiteke. Adibidez, 1997. urtean, partaideko % 88-a gizonzkoak ziren. Alegia, ia-ia, hamarretik bederatzia, erran daitezke gizonzkoak zirela. Ikus daitezkeen moduz beraz, urteetan atzera joanda, eta emakumeen parte hartze gutxiagorekin, ikus daiteke tartea bera handiagoa zela, hasieran hain zuzen denak gizonzkoak izanik. Azken batean, Teresa del Vallek (1985) liburuan azaldu moduz, aldaketa deituriko kapitulu batean, aldaketa nabariena, lehenengo generazioan jartzen du, zeinak kanpoko aktibitateetan parte hartzen hasten diren, edo literaturan edota lan merkatuan jardunean hasten diren. Hau dela medio, aldaketa bera, 80. hamarkada beran ezarri badaiteke ere, ikerketa bera orduan burutzen baitu Del Vallek, aldaketen ondorio aunitz, beranduago etortzen direla ikus daitezke, alegia, 80. hamarkadaren bukaeran edota 90. hamarkadaren hasieran. Hau dela eta, ez da hain arraroa 1980, edota 1982. urtean hain zuzen ere, oraindik, horrelako txapelketa batean, emakume bakar bat bera ez ikustea.

1.3 1980-2009: Partaidetza orokorra; emakumeak, gizonak eta bien arteko batuketa (guztia).

Jarraian, modu azkar batean, orain arte ikusitakoa zein parte hartze orokorra dago bistan (3. grafikoa).



(3. grafikoa: 1980-2009: Partaidetza orokorra; emakumeak, gizonak eta bien arteko batuketeta (guztia)).

Aurreko grafikoeekin alderatuz gero, bertan antzeman daitekeen diferentzia nagusia, hain zuzen ere partehartze orokorrari dagokio (alegia, gizon eta emakumeen arteko batuketari). Honek erakusten digu aldi berean, azkeneko urtean, alegia, 2005etik, 2009ra arte, partehartzea bera zertxobait igo dela hain zuzen ere, emakumeen igoyerarekin bat egiten duelarik. Gizonezkoen parte hartzea, 1989tik abiatuta (35 parte hartzaile), oro har hasieran mantendu, 1997 bitarte arte, eta gero, beheranzko joera txiki bat izan duela ikus daiteke, beheranzko puntu nagusia 2005ean izanik (37 parte hartzaile). Kontrako aldean, emakumeak, goranzko bidea mantendu izan du, hau dela eta, ikus daiteke, bien arteko batuketan zehar, ez dagoela jaitsiera nabarmenik, gehienez, 2005 arte, 2-3 pertsonen partaidetza gutxiagoa izanik. Aldiz, 2005tik 2009ra, gizonezkoen diferentzia bi pertsonakoa bakarrik izanda (bi pertsona gehiago parte hartu baitzuten, 29tik 31-ra), partehartze orokorra (alegia, guztira), 7 pertsonetan igo dela antzeman daiteke, horietako 5, emakumeen partaidetzari zor zaiolarik. Alegia, azkeneko


partaidetza orokorraren igoera hau, hein handi batean, emakumearen parte hartzeari zor zaio¹¹, alegia gero eta emakume gehiago dira Euskal Herriko bertso txapelketara iristen direnak..

1980. urtetik abiatuta, batuketa guztia eta gizonen partehartzea bera, hasieran berdina dela ikus daiteke (1986. urtekoa salbuespen).

Bukatzeko, erran, 1989. urtetik egun arte, txapelketa honen partaidetza guztiaren media, 38.83koa dela, gutxi gora-behera, 39 pertsonak parte hartzen dute batazbesteko txapelketa mota honetan.

1.4 1980-2009; Epaimahaia; gizon/emakumeak eta bien arteko batuketa (guztia):

4. grafikoan ikus daitekeen moduz, epaimahaia bera, azkeneko urteetan, mantendu eta zehazki azkeneko urtean nagusiki goranzko joera izan du, 2009. urteko txapelketan, guztira 10 pertsona izanik epaimahaian.



(4. grafikoa: 1980-2009; Epaimahaia; gizon/emakumeak eta bien arteko batuketa (guztia)).


¹¹ Kontutan hartzekoa da puntu honetan, Euskal Herriko txapelketara iristeko, eskualdeko txapelketetara aurkeztu eta sailkatua izan behar zarela. Ondorioz, oraindik ere Euskal Herriko txapelketako kopuru osoa, erabakita ez baldin badago ere, aurretik bertsolari asko gelditzen dira itzalean, grafiko hauetan bisualizatuta ez daudenak.

Hala eta guztiz ere, lehenengoz, emakumea epaimahaian ikusteko, 1997. urte arte itxaron beharra dago. Orokorrean, emakumearen bilakaera bera, marra berean jarraitzen duela ikus daiteke. Hala, 2001. urtean, epaimahaikide gisa, emakume bakarra egon zen, 2005 zein 2009 urtean berriz, bi izan zirelarik. Ondorioz, nahiz eta 2005. urtean, 5 epaile izan guztira eta horietako 2 izan emakumeak (erdiak ez, baina pareko ikusi daiteke), 2009. urtean berriz, 10 epailetatik, 2 soilik izan ziren emakumeak. Ondorioz, epaimahaiaren aspektutik, argi ikusi daiteke hitz nagusitasuna, erabakitze ahotsa bera (Jone Miren Hernandez-ek aipatua (2006-2007) , indarra eta arduradun kargu hori, oraindik ere, gizartean gertatu ohi den esparru politiko edota juridikoko kargu nagusien moduan, gizonen alderdian erortzen dela erantzukizuna. Salbuespenak-salbuespen, 2005. urtea izan daiteke, guztira, lehenago erran moduz, 3 gizonen eta 2 emakumeen izan zirelarik, baina orokorrean, epaimahai alderdiari dagokionean, emakumeen partaidetza gehiagokoa baldin bada ere (80. eta 90. hamarkadan konparatu ezean), nahiko estatiko mantentzen dela ikus daiteke, berdintasun joera handirik gabe.

Aldiz, irudi honetan islatzen ez baldin bada ere, aipatu epaimahai idazkariren kasuan ordea, txapelketa aunitzetan ere, emakumea beti izan dela partaide. Bertako interpretazioa hain zuzen ere, loturik egon daiteke hain zuzen ere, gizarteko sexu-lan banaketa ideiarekin (genero-sistema), zeinak emakumeak, kualifikatutagoa eta egokiagoak diren (eta uste den) lan batzuetarako (alegia, administratzaile edota haur-zaintzaile bezala adibidez). Kasu honetan, ez genuke erraterik, bilakaera edo gizartearen balore hauek aldatu direnik, administrazio lan honetan ere, emakumeak baitira nagusi, aldiz epaitzeko orduan gizonak.

1.5 1980-2009: gai-jartzaileak: emakumeen eta gizonezkoen konparazioa.

Gai-jartzaileari dagokionez (5. grafikoa), aipatu lehenik eta behin, 1989. urte bitarte arte, ez dagoela datu biltzarik egina aspektu honen inguruan, alegia, ez dagoela jasota zein eta zenbat izan ziren gai-jartzaileak, beraz, bilakaera bera, 1993. urtetik aurrera abiatuko da. Urte batean gai-jartzaile laguntzaileak deituriko taldea ere ibili zen laguntzen, hain zuzen ere 1997. urtean, eta aipa talde bera hori, gai-jartzaileen barruan sartu dudala.



(5. grafikoa: 1980-2009: gai-jartzaileak: emakumeen eta gizonezkoen konparazioa).

Grafikoan ikusi daitekeen moduz, goiti-behera nagusiak daude. 1993. urtean, 20 izatetik, 2001ean 9 eta 2009ean 8 izatera pasatzen da gai-jartzaile kopurua, azkeneko txapelketan, guztira 12 izanik¹².

¹² Bertsozale elkartearen erran moduz, Euskal Herriko txapelketako hainbat aspektu, oraindik ere definitzeko daude, beraz goiti-behera hauek horren errelejo dira.

Gizon eta emakume tratamenduari dagokionean jada, ikus daitekeen moduz, epaimahaikideen ez moduan, kasu honetan, emakumeen parte hartze gehiago egon dela antzeman daiteke, nahiz eta txapelketatik txapelketara konstantzia finko bat ez mantendu¹³.

Modu honetan, 2001. urtean emakume gai-jartzailerik egon ez baziren ere, hurrengo bi urtetan nahiko parekatu eta aldi berean 2009. urtean, bertsolaritzaren edozein bertze aspektuekin ez gertatu moduz, emakumea izan da nagusi gizonezkoen aldean. Hala, 2005. urtean, 3 emakume eta 5 gizon ibili ziren lan honetan, 2009. urtean berriz, 6 emakume eta 4 gizon izan ziren.

2. IRUDIEN BILAKAERAREN ANALISIA:

Jarraian, bertan, gehigarrietan, bigarren puntuan (55. orrialdean) ezarririko irudien zein bertsozale elkartean eginiko bideo muntai txikiaren analisia zein interpretazioa burutuko dut modu orokor batean, nolabait ere, emakumearen zein oro har bertsolariaren oholza gaineko irudiaren eboluzioa pixka bat aztertuaz. Horretarako beraz, irudiak zein bideo zati txikietan oinarrituko naiz, kontutan harturik ere, hauek biak ere, dauden dokumentazio guztiaren esparru txiki bat bertzerik ez direla.

Nolabait ere, 1981. urte arte dauden irudi denak, gizonezkoen irudiak ditugu, biak ere txuri beltzen izanik. Bertako irudiak nagusiki, gizonezkoen janzkera zein presentazio arras formala erakusten digute bertsogintzan. Denak ere, alkandora zein traje iluna, horietako askok ere, bat ezezik boneta erabiliaz (ikus 2.1 eta 2.2 irudiak).

Azken batean, ordurarteko arropak zein oro har, janzkerak, formalismo handia erakusten du oholza gainean dauden bertsolariengan. Halatan, 2.3. irudian ere, Xabier

¹³ Aipatzekoa da puntu honetan,, bertso elkartean kritikoki eta gogotsu lanean aritzen diren talde bat (GABIRI) deiturikoa, zeinak gaien neutraltasunaren eta orokorrean generoaren tratamendua kritikoki aztertzen eta eztabaidatzen egoten diren.

Amuriza, Angel Mari Peñagarikano, Lazkao Txikik zein Sebastian Lizasok ere, 80. hamarkadaren hasieran, formalismo bera mantentzen dute kasu honetean, amerikana ezezan, jertsea izanik ordezeko. Aldi berean, boneta bera desagertzen da figura hauengan, alegia, boneta ez du inork erabiltzen eta bertzalde, kantatzeko era ikusirik, edo pose beran zentratuak, denak ere, eskuak poltxikoan (erretzen ez badaude) edota eskuak atzean izaten dituztela ikus dezakegu.

Pixka bat aurrerago, berdina pasatzen da, 2.4 irudian, zeina kasu honetan, talde gaztea den, bertso eskolako talde bat, zeinak guztiak ere, bakero, alkandora eta jertsearekin jantzirik dauden, itxaroten. Nolabait ere, orduko prototipoa bera ere, bertsolariarena, elegantziaz zein formalismoaz josirik dago, orduko gizartea beraren eragina ere izango duelarik.

2.5 eta 2.6 irudiak aldi berean, azkeneko prototipo bera mantentzen dute, jertsea, alkandora eta bakero edota traje beraren galtzak dira ikusgai. Baina bada tartean ordurarteko figura ezberdin bat, emakume bat, Kristina Mardaraz bera, gona eta alkandora marroi batekin ikusgai dena, nolabait ere, formalismo berarekin eta garaiko gizartearekin bat egiten duena dudarik gabe.

Hurrengo irudian, 2.7 irudian hain zuzen ere, gazte talde batekin topatzen gara, tartean Jon Maya izanik, zeinak denak ere, bakeroak edota alkandora duten jantzi. Dudarik gabe, formalismoarekin bat egiten duen pertsona, hurrengo irudian dugu ikusgai, 2.8 irudian, Igor Elorza bera, 1990. urtean.

Aldiz, gizarteko aldaketekin bat, zein bertso eskoletatik ateratzen eta bertsogintzan aritzen diren gazteak, beregain, aldaketa nabari zein nagusia ekartzen dute oholta gainera hurrengo irudian. Jada, atorrak eta jertseak alde batera utzita, kamiseta berarekin agerian ditugu Igor Elorza zein Estitxu Arocena bera (ikus 2.9 irudia). Jada, hiru urte ostean, aldaketa beregain hartu eta Igor Elorza bera, ez dugu

aurreko ator edota orduko janzkera formal horren baitan ikusten. Estitxuk berak, bideoan ikusi daitekeen moduan (lehenengo bideo zatia), negu gorriko jertse zabal batekin dugu ageriko urte bereko txapelketan, jada, kamiseta edota jertseen bitartez ere, bakoitzak bere nortasuna zein bere identitatearen parte diren gustuak edota erreibindikazioak edota mezuak agerian utzirik. Alegia, kamisetan edota jertsetan jada, aldarrikapen puntuez gain, nortasunaren seinale izatera pasatzen dira, bakoitzaren gustuen zein gizarteak markaturiko moden arabera osatuak.

Aldi berean, hurrengo irudian, 2.10-ean, zein bigarren bideo zatian ere, kontrapuntuan, ordurarteko bertsolariak ditugu ikusgai, bertsolari “klasikoak” edota urte aunitzetan bertsozintzan aritu direnak aurreko formalismo maila berean. Kasu honetan, 2.10ean, Andoni Egaña dugu ageriko ator batekin 1993ko Euskal Herriko txapelketako garaile moduan. 2. 3. (Sebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano) eta 4. bideoan bertze klasiko dexente daude ikusgai, denak ere jertse eta atorrez jantziak.

Hala eta guztiz ere, aldaketa hau ez da hain drastikoa eta bapatekoa izaten. Hau dela medio, lehenengo bideo zatian, Estitxu Arocena edo Igor Elorzarekin batera, bertze bertsolari ezberdinak antzeman daitezke, jertse eta alkandorekin batzuk.

Hurrengo irudi zein bideoak, hala nola 2.11 edota 2.12 bera, gazteen estilo berriari doakio, ordurarteko formalismo edota jertse zein alkandoratik aldenduaz. 2.12 irudia adibidez, 1998ko Nafarroako txapelketari dagokio, bertan, Xabier Silveiraren estilo zein pertsonalitatea agerikoa da. Xabier Silveira bera belarritako batzuekin, buruko zapi batekin, kamisetarekin eta makilatuta dagoela ikusi daiteke. Alegia, kaleko, eguneroko arrokekin zein bere pertsonalitatearekin, zein bere gustuarekin igo dela ikus daiteke.

Hurrengo irudi zein bideo guztiak ere, 2000 urtetik, egungo urterakoak dira, denetan ere, bakoitza, bere gustuz jantzi eta agerian jartzen delarik, beti ere, kantatzeko

orduan, ohiko bertsolari pose edo estiloa mantenduaz (alegia, besoak atzean, poltxikoan eta gorputza aurrera aterata).

Hau dela eta, hasiera batean, gizonezko guztiak, alkandora, jertse zein bonetekin (batzuk) ikus bagenezake (80 zein 90 hamarkada hasieran), gazteen sarrerarekin bat, zein gizartearen modaren eta aldaketekin bat, bertsolaritzaren janzkera topiko edo ohikoa bera, aldatu dela ikus daiteke, jada, bakoitzak ere, bere gustuen arabera, zein bere nortasunaren arabera jantzi eta oholtza gainera igotzen direlarik, kaleko arropekin alegia. Holatan, adibidez, 2.16 irudian, Maddalen bera, minigona batekin ikusi dezakegu, edota adibidez, 2.18 irudian bertan, zeinetan Maialen Lujanbio txapeldun moduan azaltzen den, atzean, Andoni Egaña bera, kamiseta eta sudadera batekin atzeman daiteke, duela 20 urte, amerikana edota ator batekin ibiltzen zelarik.

Ondorioz, posea bera mantendu dela erran daiteke, alegia, kantatzeko eraz ari naiz. Eskuak poltxikoan edota atzean mantentzen dira, eta kantatzeko era bera, nahiko estatikoa da (Estitxu Arocenak berak aipatzen du egindako elkarrizketan), geldirik eta gorputza aurrera begira izanik. Aldiz, arropa, janzkera edota itxura bera (makilatuta, ile estiloa), gazteen sarrerarekin zein gizarteko moden aldaketekin, eraldatu edota eboluzionatu daitekeela erran daiteke. Egun, bertsolariak, eguneroko arroparekin edota modu informalean jantzen direla erran daiteke, bakoitzak, bere nortasun, ispilu zein gustuak, nabarmenduaraziz. Janzkera edota itxura bera, erabaki indibidualaz izateaz gain, gizartearen modaren ispilu dela erran daiteke, zure sozializazio, heziketa, inguru soziala edota “habitus-a” barne.

3. ELKARRIZKETEN ANALISIA:

Marko teorikoan azaldu moduz, emakumearen papera ez da soilik 80. hamarkadatik egun bitartekoa izan bertsolaritzan. Dударik gabe ere, emakumeak

historian zein egun zehar (XV. mendetik hasita), Maialen Lujanbiok hitzaldian ere jasotzen duen moduan, aspalditik egon direnaren eta beti egon direnaren ideia jasotzea eta baloratzea garrantzitsua da. Estitxu Arocenak, prozesu honi, “sukaldeko” lana deitzen dio: *“Bai bai, nik uste dut... ez dakit gero hor galderetan ateriko den. Biño nik azkeneko boladan beti erraten dut, ez? Ee, zenbat garrantzi ematen zaion txapela irabaztea... edo plaza, ez?... Ez plaza gizonez, plaza andrea... bale, egia da, ados, agitz ongi dago hori... baina baita ere dago emakumeak egin dun hori ba, loratzia, ez? Dela belaunaldi belaunaldi iristaraztea horrara, ez?... Ta hori plaza bidez egiten da, baina baita ere sukalde bidez... ez dakit nola erran...”*

Aurrerago eta elkarrizketa bukaeran diotsu: *“Bai, bai, eta... bai eta... azpimarratuko nun gai honekin hasieran erraten nuna, ez? Emakumek in ditula gauza pila bat ez dela plaza, ez dela txapela, baloratu beharko lirakeela.... Gehigo uste dut, ez? Ze gaur egun ailegatu baldin bagara, zerbaitegatikan da...ta hasten bazara pentsatzen ez da Basarrik irabazi zulako txapela, da baserri pila batetan, pues kantatu zelako, transmitituko zelako...ta memoria ere landu zelako... eta hortan iruditzen zait dudarik gabe, emakumeak izango zula aunitzez ere paper garrantzitsuagoa.”*

Balorazio hau hain zuzen ere, erabat lotuta dago emakumeak izkututasunean (domestikoa/eremu pribatua) egindako lanari. Emakumeak, Maialen Lujanbiok aipatu moduz, ezkutuko harremana edota eremu/espazio pribatua izan dute lekua, (Teresa del Valle-ren ideia (1985)). Hala dio Maialenek: *“Buena kontua izan da, emakumea eta bertsolaritzaren arteko harremana beti dela ageria eta ezkutuaeren arteko harreman bat edo, nolabait esan, analisi hori beti egin behar dala publiko edo eremu publiko, eremu pribatua, dikotomia hortatik ez? Alegia emakume bertsolariak beti izan dira, baina ez ditugu sekulan ezagutu, eremu pribatuetan kantatzen zutelako eta ez eremu publikoan, ez?”*

Pribatutik, domestikotik, etxetik, alor publikora, alegia, plazara egindako saltoa hain zuzen ere, 80. hamarkadan koka dezakegu, lehenengoa horretan, Kristina Mardaraz izanik (1986. urtean, grafikoen analisisan aipatua). Momentu honetan salto egin izana ez zen kasualitatea izan, dudarik gabe, lotuta zegoen garaiko gizartearen aldaketarekin (Teresa del Valle (1985; 2001), eta aldi berean, bertso eskolen eta gazteen afizio handiarekin. Hala diotsu Estitxu Arocenak: *“(...) eta bueno, pixko bat bertze bertso eskolen*

mugimendu, Euskal Herri mailako bertso eskolen mugimendu orokorrak ere lotua egonen da, ta nik uste dut azkenin direla aldagai pila bat juntatzen direla pertsona batin ta, ez? Pues ta azkenin, hor zaude... biño ez dela hor egun batetik bertzera izandako erabaki bat, ez?... Adibidez pues, hola definituko nuke (...) Uste dut, Euskal Herrin bertan, ez? Eman zen bilakaera bat, gero familia bertso zalea izatea, ikastolan lantzia hola, pixko bat holako sarrera batzuketan, pues ia sortu zela gure zaletasuna, gure ibilbidea hortik abittu zen...”

Puntu honetan bertan, aipatzekoa da Estitxu Arocenak zein Maialen Lujanbiok berak, taldearen kontzeptuari ematen dioten garrantzia, beraien hastapen garaietan hain zuzen, ibilbidearen giltzarri suertatu zena: “*Ta ordun, nik uste dut bi gauza hoiak juntatu zirela, pues gu ateri ginen taldetxo bat... beti ere taldearen garrantzia, ikusten duzu, e..., sujeto bakar bezala etzarela holko mundu baten sartzen, biño gu suertatu giñen taldetxo bat, erdi kuadrilla in giñen... (Estitxu Arocena)*”; “*Hori ez da pasatzen gazteen artean, gazteak gure adinkideekin ba, harreman ona izan degu eta beraiak nesken presentzia oso natural bizitu izan dute bertso eskolatik, eta netzako, eta ustez ondorengoentzat ere, bueno... ezinbesteko baldintza da, taldea, talde kontzeptu hori ezta? Ta... Ni orain bertotan baldin banabil, neurri handi batean da atera ginenean taldean atera ginalako, ta ordun badauzkazu jende bat konpartitzen duna zure mundua, konpartitzen duna zure... zure giroa, zure... eta natural bizitzen duna zure presentzia, ezta? (Maialen Lujanbio)*”

Hona bada, talde kontzeptuaren garrantzia beraiantzat, bertsolari “klasiko” edota zaharren ikuspuntua ezberdina izanik. Izan ere, Maialen Lujanbiok aurrerago aipatzen duenez, zaharragokoek, joera paternalista izan zuten beraiekin, oraindik ere, diferentzia markatuaz, aldiz, gazteek, beraien generaziokoek, natural gisa definitu izan zuten beraien presentzia, dudarik gabe, orduko emakumeei, laguntza eta babes handia emanik.

Honekin batera erran daiteke, urteetan zehar, talde babes hau, edota taldean izaniko presentzia natural hori, ez direla nahikoak izan, emakume eta gizonezkoen arteko pertzepzio, diferentzia edota parekidetasuna (maila bera) lortu ahal izateko egun ere. Honen adibide dira hain zuzen ere Maialenek aipaturiko, “aurretiko, aprioriko” errekonozimendu falta edota bi aldiz ongi egin behararen espresioa bera: “*Eta... ba bi neskek herri baten aurrean adibidez kantatzen dutenean gauza bera... horren kakua edo nik uste dala...*”

eta... denaren kakoa... gizonetzkoak badula aprioriko errekonozimentu bat. Ta gero egiten du, egiten duena... ta emakumezkoak baduela aprioriko kuestionamendu kusionatzen bat, zalantza bat, ta gero egiten du egiten duna... ta horregatik bi aldiz on izan behar du zalantza batetik abiatzen delako, minus batetik... gizonetzkoak ez... gizonetzkoak Otik abitzen da, neutrotik, aprioriko rekonozimentu batetik...".

Bi aldiz on izatearen aspektutik, gehitzen du Maialenek: *"Esan nahi det,.. eh... neska batek bertsotan ondo iten dula errekonozitu dezan jendeak... ba... hiru aldiz ona izan behar dula, ez? Behin ondo eginda ez da nahikoa... Ba lehenengo urte... dexentetan ba... neska izateko ona, ez? Gero handik beste urte... mordoxka baten... ba nesken artean onentsuna... eta gero igual... gero... iritsi gaitzke egunen baten ona izatea edo bertsolari izatera...Baino ordun, hiru aldiz ona izan behar duzu, noizbait esango baldin badute... bertsotan iten du.. ia ez ona edo txarra... bertsotan egiten du sateko."*

Honekin batera, bi aldiz edota hiru aldiz ongi egin beharraren ideiak zein emakume eta gizonaren arteko ekibalentzia ezak, hein handi batean, Estitxuk zein Maialenen aipuz, behar baino saio gehiago egitera eraman izan die urteetan; emakumea izateaz gain ere, bertze faktore batzuk ere, kontutan hartu behar direlarik, hala nola inguru bera: hala diotsu Estitxuk: *"(...) ta izan zen garai bat, emakumea eta Nafarra izanik, igual... nere mailari zegozkion baino saio dexente gehigo egin nitunak, ez? (...)"*

Nolabait ere, Estitxuk aipatu moduz, aldagai desberdinak, edota nortasun/identitate ezberdina izateak, alegia, emakumea, Nafarra eta testuinguru bateko parte izateak (bere kasuan), izan da pertsona bakoitzarengan bere ibilbidea markatu izan duena. Horregatik, nahiz eta bere adostasuna aipatu, Maialenek dionean emakumeak bi aldiz ongi egin, edota gehiago egin behar duela gizonetzkoaren aurrean, pixka bat orokortzea dela ikusten du batzuetan hala emanik eta bertze batzuetan ez, alegia, horren baitan ere, faktore gehiago sartu daitezkeelarik, alegia epaileen pertzepzioa, jendearen pertzepzioa eta gustua, inguruak eskeintzen dituen aukerak eta abar: *"Bai bai, izaten ahal da ez? Erran nahi dut eh... beti, beti kuestionatuko da gehio, ez? Edo, ez?... Beti jarriko da.. biño... beti jarriko da... gehigo begirada hortan, ez?... Biño bueno nik uste dut... hori dago, hori ere pertzepzion arabera dagola, ez? Batzuk egingo du, batzuentzat hola izango da eta*

bertzintzat guttigo, ez? Bertzintzat ia emakume izatea hutsakin, erdia ia inta, igual baloratuko zattu berdin... badakilako zailagoa dela atetzia badakilako gehio landu behar izan duzula ta badakilako gauza pila bat, ez?... Iruditzen zait pixka bat orokortzea dela, ez? Eta... bai... alde batetik batzuntzat bai izaten ahal dela hola, biño bertzintzat ez dula hola izan beharrik.”

Puntu honetan, biak ere aipatzen duten diskriminazio positiboa aipatzekoa da. Hau dela eta, bertso saio emanaldi handia edota gehiagokoa eman behar izan badute ere (biak erranda), diskriminazio positiboa dute honen abiapuntutzat: hala dio Estitxuk: “(...) baina nik uste dut gure kasun eta beharra hala zen eta holako inguru soziala tokatu zitzaigula, diskriminazio positibo izan zela ez? Neska izateagatikan kantatzen genuen, ez? Ez, a ez dakit zer, aa, polita gelditzeko do “ia que” badauden gaur egun pues neska bat, gure bertso ibilbidea neska izatea izan da diskriminazio positiboko arrazoi bat, ez? (...)” Maialenek ildo beraren inguruan, honakoa dio: “Hor askotan aipatzen da, diskriminazio positiboa, ezta? Emakumeengan egin da diskriminazio positiboa plazarako salto hortan, ez? Eta egia da, ba guri... bueno ba... Estitxu Arozena, ta Iratxe Ibarra, ta ni, ta ibili ginanian, ba... gu bertsoan egiteko moduan egon baino lehen, saio pila bat in genuen ez?... Ta diskriminazio positiboa igual horri deituko zaio... Gu ginan pixka bat ere bai kuriosidadea. Gu eramaten gintuzten area pixkat... ba... begira zer daukagun, ez? Begira ze... ze elementu, ez? Ze... ze bitxo raro daukagun, ez? Ta ginan neska gaztiak ta hola... ta hola plaza piloa in degu, ez? Ordun diskriminazio positibo hori relatiboa da..., ze Andonik saten zun bezala, Andoni egañak, ba deitzeko garaian bada diskriminazio positiboa, baina baloratzeko garaian ez... baizik eta kontrakoa.”

Beraz, baliagarri izan bazaie ere aspektu batzuetan, alegia, ezagutzera emateko orduan, eta kasu batzuetan Estitxuk erran moduan, bertze edozein baina aukera edota saio gehiago izateko orduan, nolabait ere, bi aspektu ezberdinetik ikusi daitekeen fenomeno dugu. Izan ere, Andoni Egañak erran moduz, deitzeko garaian eta parte hartzeko garaian baliagarri suertatu bada ere (diskriminazio positiboaz ari naiz), baloratzeko edo emakumearen hitzari¹⁴ garrantzia emateko orduan, ez da berdin suertatu. Hau hain zuzen ere, zein aurretiko urteetako emakumeen erreferentzia publiko

¹⁴ Ione Mirenek (2006-2007) emakumea eta bere hitzan, ahozketasunean azpimarraturiko indar eta errekonozimendu eskasa gizonezkoen aurrean.

ezak, sortu izan du eta sortzen du egun ere, gizon eta emakumeen arteko diferentzia, zein emakumearen “jende aurrekotasunaren”¹⁵ beldurra, lotsa bera, “ez kontrolatzearen ideia”, edota presioa bera emakumeengan.

Azken batean, Teresa del vallek et. al (2002), erakutsi zein agerian jarriko eta azpimarraturiko genero-sistemak, zein honek sozializazioan markatzen duen diferentzia, izan rol, portaera, jarrera eta abar, izango genuke Maialen Lujanbiok erran moduz, ondorengo emakumearen beldur, “ez kontrolatzearen ideia”, zein goian aipaturiko faktoreen kausante zuzenak bertsolaritzan bertan.

Jada, jaiotzetik izaniko sozializazio modu ezberdinetatik (izan eskolatik, izan familiaren bitartekotik, izan komunikabide mota ezberdinetatik jasorikoa eta abar), agerikoa da diferentziaren markajea, emakume zein gizonek okupaturiko espazioari begira, edota bien arteko protagonismo, nabarmentze diferentzia bera. Honela diotsu Maialenek honen harira: “(...) *hasi gintezke txiki txikitatik, ez? Haurra haurretatik... Ba nola neskak eta mutikoak desberdin tratatzen dian, balore desberdinak ematen zaizkien nahiz ta... eskolan eta ikastolan ere, nola... eh... adibidez, jolas eremu desberdinak okupatzen dituzten.. mutilek espazio askoz gehio okupatzen duten.. Mutilak ohituagoak daude jende aurreko aktibidadeak egiten, kirolak eta abar... neskek igual, jolasteko modua intimoagoa dute, bilduagoa (...) Ikasgelan ere berdin (...) Eh... bueno ni ere ikasle izan naiz azken baten, ikasle lana, protagonismo dutenak, gehien okupatzen dutenak, mutilak izaten dia normalki, neskak apalagoak, ixilagoak... eta bueno... hola... labur esanda, txiki txikitako panorama hoi dala bertso eskolara ere, eta bertsolako irakaslek segituan aipatzen dute hori.. eh... oso ezaugarri desberdinekin iristen dira gaztetxoak, ezta? Oso abilidade ezberdinak dituzte landuta mutikoek eta neskatoek (...). Ordun, eh... bueno, mutilak normalki axolagabeagoak dira, ausartagoak etzaie hainbeste inporta gauzak gaizki itia, ez daude, ezdaude pentsatzen bestek ze pentsatuko duten beretaz,*

¹⁵ Maialen Lujanbiok erabilitako terminoa edota kontzeptua; “jende aurrekotasuna”, edozein pertsona, jendearen aurrean protagonista izatearen egoera bezala ulertu daiteke, horrek dakarren sententzio ezberdinekin.

neskak aldiz beti kontuz, lotsatiago, eh, nabarmentzeko erreparoz.. hoi bueno... bertso eskolakoek ere, esperientzi hoi ikusten dutela...¹⁶»

Modu berean, Estitxu ere bertso eskolako irakasle izanik, jada 14 urteko adinean, honela diotsu generoak markaturiko rol-en inguruan: “(...) *biño lehen aipatzen nun bezala, plazaratze hori ez? beti izandu da hagitzez maskulinoagoa ez? Ta ordun, nik uste dut hori orokorrin, bertso mundun, nahiz eta eredu bat izan, nahiz eta Maialen Lujanbio izan txapeldun, ee, oraindikan kostatzen dela, bai?... Biño iruditzen zait ee, begitzen duzula edozein ee... bestara atetzen direlikan gaztetxuk eta, ta baita ere ikusten direla rol hoiek, ez? edo mutilak espazio pila bat okupatzen dute eta neskak ee, xoko batin solasin do... pixko bat hor ikusten dire, ez? Ere, aldaketa bai badago, dudik gabe hobera... biño nik uste dut ez dela gaitasunan araberakoa oraindikan, ez? Nik uste dut emakume pila bat izango zirela gai, biño lotsa horrek, plazara ez igotze horrek, pixko bat gibelera botatzen ttula... eta kopuruz nik uste dut, ee, nabarmen izango direla neska gehigo mutilak bino bertso eskolan... nahizta gero ailetzen direnak...hor porzentajea...”*

Azken batean, sozializazioak berak markatu izan du diferentzia neska/emakume zein mutil/gizonen arteko pertzepzio, jarrera edota rol-etan, gero honek, aspektu ezberdinetan bere eragin nabarmenak markaturik, hala nola espazio publikoan edota jarduera ezberdinetan gizonak duten espazio okupazio nagusian, edota protagonismoa (Maialenek erraniko nabarmentzea), komunikabide edota gizarteko esparru gehienetan (politikan, goi kargutan, kirolean eta abar), azken batean, gizon eta emakumeen arteko hitzaren errekonozimendu eta inportantzi maila ezberdina kasu aunitzetan. Halatan Maialen Lujanbiok diotsu: “*Virginia Imaz-ek esaten zun bezela, batzuk gauza inportanteak egiten dituzte eta besteak inportanteak dira, eta emakumeak lehenengo taldean daude (...)*”

¹⁶ Azken batean, sozializazioaren bitartez emakumeei, erakutsi izan ez zaien rol zein jarrera ezberdinak hartu behar izatea, arazo zein sentsazio ezberdinak sortzen du beregain zein publikoaren (bertzeen) pertzepzioan. Ondorioz, posizio horretan jarduteko orain arteko rol-a, irudia, hartu behar izatean aurkitzen dira emakumeak: Honen ildora, honakoa azaltzen du Pierre Bordieu-k liburuan (2000): “*Para alcanzar plenamente cierta posición, una mujer tendría que poseer no sólo lo que exige explícitamente la descripción del puesto, sino también todo un conjunto de propiedades que sus ocupantes añaden habitualmente al mismo, una estatura física, una voz, o unas disposiciones como la agresividad, la seguridad, la “distancia respecto al papel”, la llamada autoridad natural, etc., para que los hombres han sido preparados en cuanto que hombres*”. (82. orria).

Alegia, emakumearen hitza ere garrantzitsua izan da, baina bakar batzuen gizon aunitzen aurrean. Hau dela kausa, emakumeak bertsoaritzan izaniko ibilbidean zentratuaz, perfekzionismoa bilatu izan du zilegitasun zein errekonozimentu gutxiagoaren aurrean: hala dio Maialen Lujanbiok hitzaldian: *“Eh... eta batez ere nesken bertso eskoletako nesken ezaugarri nabarmen bat da... ez bertso eskoletan bakarrik, oso perfekzionistak diela... estitxuk idazten zun bezela behin, perfekzionistak autodestruktiboak izateraino, ezta?...Eta galdera da, zergatik hain perfekzionistak, ez?”*

Jarraian azaltzen du: *“Ba nere ustez... bertsoen kasuan adibidez... ba neska hoiek ez daude ohituta espazioa okupatzen, hitza eukitzen, nabarmentzen... eta bertsoa justu hori dena eskatzen dunak, espazio bat okupatzea, nabarmentzea, ikusia izatea, jende aurrean hitz egitea... eta... ez ote dan... nolabait ez dagokien eremu batean... egotea justifikatzeko... modu bakarra da oso oso oso ondo egitea. Ez ote dan hori perfekzionismoaren arrazoa ezta?”¹⁷*

Duda gabe, sozializazioak izan du eragin nabarmena bertsoaritzak eskatzen duen publikotasunaren (jende aurrekotasunaren) markajearen, zein ondoren, emakumeei ezarritako oztopo, barrera, zailtasun, beldur, inseguridade, presio eta abarren sententzia zein ideietan. Halatan bada, Estitxuk aipaturikoa: *“Nik uste dut, ez nula hola... nahiko ongi eraman izan dut beti, ez?. Jende aurrekotasuna igual, ez? Nik ikusi ttut eh, inguruan neskak, pues bai Amaia Telletxea, bai Estitxu Fernandez, kristona sufritzen zutela ez kontrolatzekin zer, zer erran bar zuten, ez? Ez? Igual Estitxuk lehengo egunin aipatzen zun... Nik, ni nago prest, nahizuna, baino baldin badut idatzia eta baldin badakit zer den erran beharra dutena, ez?... Biño ez eh, arrisku hori... edo horrerik beldurra izaten diotela bai...Amaia adibidez, saioa hartzen zun ilusiokin eta gero eguna ailetzerakun sufritzen zun pilo bat (...):”*

¹⁷ Aldi berean, perfekzionismoaren ideia bera, sozializazioa esparru ezberdinen markajearen ondorio bat bertzerik ez da, zeinetan emakumea, lotsa eta beldurraren aurrean (ongi egingo ez duenaren ideien aurrean), bi aldiz ongi edota arras ongi egin behar duenaren ideia eraman, perfekzioa edota perfekzionismora. Ideia honi lotuta ageri da, M^a Carmen Rodríguez Menendez-ek (2003) aipaturiko ideia bera: *“Además, otra de las consecuencias de este habitus sumiso es, sin lugar a dudas y como afirma Lee Bartky (1999), que determinados estados de ánimo o sentimientos caracterizan más a las mujeres que a los hombres. Así, afirma que la vergüenza es un signo y una prueba de indefensión en la que se encuentran las mujeres y se manifiesta en una sensación generalizada de insuficiencia personal que es profundamente discapacitante” 64 or.*

Kontuak kontu, emakume gutxi izan badira ere bertsozintzan (publikotasunean ari naiz), “sukaldeko” lan ugari, zein diferentzia edota oztopo aunitzei, ausardiz salto egin behar izan dute, aritu izan diren urriak, baita komentario ezkorrei ere: “*nunca me aconstumbraré a escuchar a mujeres*” dio Estitxu Arocenak elkarriketan.

Modu honetan, emakume eskasak izan direnez gero, izan diren urriak, aunitzetan, emakumeen ordezkari izan/sentitu dira; hala diotsu Estitxuk: “ (...) *eta igual txapelketara joaten zara, ta Estitxu neska delako, nahi dut irauztia Estitxu neska delako, neska bakarra delako, klaro... azkeneko finalean 7 mutil ta ni ginen, erran nahi dut, ta ordun ez dakit... zentzu hortan baduzu, ez? Ee, kolektibo baten bandera, ez?*” Maialenek, ordezkartzaren ideia beretik, arriskua bera aipatzen du: “*Esanguratsua da baita ere, ba hoi ba bi neskentzat badirudi ez dagola lekurik. Batentzat nahikoa dala... bueno ba hoi...Eta... neska bakarrarekin nola nahikoa dan, ba neska bakar hori juten da saiotara ta ordun sentitzen du emakume guztien ordezkaria bera dala, ez? Ta igual hori gure problema bat da... baina hola sentitzen zara ta ordun.. denengana iritsi behar dezu... denen ordeiz hitz egin behar dezu, ezta?... Eta hoi problema kreatibo bat bihurtzen da, ez?... Beste egoera bateko... baino kreatiboa ere bai (...)*” . Egoera honek, Maialenek adibide batekin aipatu moduz (84. orrian), agobio edota presioa “txarra” bera sortu dezake beraiengan, errandako guztiaren analisi bat bera egindaz aldioro, beti ere, ongi erran, zuzenki erran eta emakume guztien abaniko guztia jasotzearen analisi konstante bat eginaz¹⁸.

Honekin batera, aipatzeko da, nahiz eta oztopo, zailatasun, beldur eta beraz, ordurarteko erabat maskulinoa zen mundu horretara sartzea erreza suertatu ez bada ere, bidea aldi berean, irakasgarri sueltatu dela, hainbat iturri ezberdinetatik, nortasuna bera eraikiaz; hala aipatzen du Maialenek galdera bati erantzunda: “(...) *Kalteik batez, ta nik lehen esan det eh, hemen kontatu detena, pixkat bazirudin irakurketa nahiko katastrofista bezela, ez? baino nik*

¹⁸ Maialen Lujanbiok aipaturiko adibidearekin bat, erabat bat egiten duen John Berger-en (2000) testua bera ere, arras ongi isla dezake Maialenek sentitu eta azalduko: “*Todo lo anterior puede resumirse diciendo: los hombres actúan y las mujeres aparecen. Los hombres miran a las mujeres. Las mujeres se contemplan a sí mismas mientras son miradas. Esto determina no sólo la mayoría de las relaciones entre hombre y mujeres sino también la relación de las mujeres consigo mismas. El supervisor que lleva la mujer dentro de sí es masculino: la supervisada es femenina. De este modo se convierte a sí misma en un objeto, y particularmente en un objeto visual, en una visión.*” (55. orrialdea)

momentuan momentuan ez ditut gauza hoiak sufrimentu bat bezala bizi izan, normalian. Igual puntu batzutan bai... euki ditut... kontraesanak eta dudak, baino normalian nik hoi ez det bizi izan prozesio bat bezala edo kalbariyoa bat bezala, ez? nik hoi bizi izan det nahiko natural, ez?... Egia da, ba giro hortan ta ibiltzeak¹⁹ dudarik gabe ba mesede, baino ni jarri naizelako belarri horiekin...lehen esan detena ba, bilatzen nuen interesa handik edo hemendik... edo pertsona interesanteak ziralako edo hizkuntza aldetik ba.. joer, kriston aberastasuna zalako edo jende interesantea zalako berez...”

Jada, eboluzioaren analisisan sarturik, argia da Maialenek zein Estitxuk aipatu moduz, eboluzioa egon dela emakumearengan; eboluzio positiboa du aipa Estitxuk: “Gero pues, gu... guretzat historia izan da, deus ezezetikan, Kristina Mardaraz 86ko txapelketan ateri zen... eta horrekin konparatuta zalantzarik gabe, ez? Izan dela... adibidez 86ko txapelketan emakume bat ateri zen eta 2009ko txapelketan txapelduna emakumea, ez? Erran nahi dut bilakaera zalantzarik gabe, hori txapelketa mailan eta saiotan ere nik uste dut normaltasun handiz, rol desberdineko emakume pila bat... hasieran bat edo bi bakarrik baldin baziren markatzen zuten emakumeen rola, baino gaur egun bagara ia pila bat ta.. ez oraindik erdiak, ez? Oraindikan erran nahi dut ez da ekibalentzerik ezta guttiago ere, guttiagorik erez, ez? Biño bai izandu dala bilakaera eta hagitz positiboa (...).”

Aldi berean, emakumearengan eman den eboluzioaz gain, bertsoaritzako aspektu askotan (gaietan, beraien tratamendutan eta abar), zein gizonengan ere, eboluzioa eman dela azpimarratu daiteke emakumearen parte-hartzetik: “Ba nik uste det baietz... ez dakit era berri bat edo lenokoa pixka bat ee, frenatu duten edo. Ba bertsoaririk, gizonezko bertsoaririk ee, aipatzen dute, ez? Beraien buruan ere aldaketa bat egin behar izan dutela... ze urtetan aritu dira beraiek emakumeen papelak interpretatzen, ez? Zu senarra, zu emaztea baino biak gizonezkoak ziran... eta gero kasu hoietan, emaztea adibidez, neska bat, benetako neska bat danian... beraiek eh... beren buruan aldatu behar izan dituztela arrazoiketak eta pixka bat kuestionatu dutela beren.... hoi esaten dute beraiek... eta nik uste dut baietz, ez dakit zenbateraino sakonean baina bai behintzat kanpora begira esaten dan hortan, ezta? diskurtsoan... pixkat politikoki korrektoagoa edo, edo kontuz, ez?... neska batekin ai zea hitz egiten eta berari buruz ai zea... errespetu gehiagokin edo. Gaietan ere... bueno oraindik ze iña asko dago, baino... bueno, nik uste aldaketa batzuk... jendeak behintzat gai hoi

¹⁹ “Giro hortan ibiltzeaz” aipatzen duenean, hain zuzen, plazaz-plaza, jaialdi edota txapelketetan parte hartzen hasi zenaren hasierako garaiaz ari da. Hain zuzen, garai horretan Andoni Egaña, Sebastián Lizaso eta nolabait ere, bere adinetik urruti (30 urteko diferentziaz) zeuden pertsonaz hitz egiten ari da, gauza aunitzetan mesedegarri suertatu zitzaizolarik, baina aldi berean, diferentziaren iturri ere izan zitzaizolarik.

baudakala hor, noizbait entzun dula hortaz, noizbait entzun dula emakumeak eta emakumeei buruzko gaiak eta emakumearen figura nola tratatu ta... horri buruz (...) ta bueno ba... aldaketatxo batzuk eman dira... baita ere segun ze tokitan.. ze pertsona ze... baino bai ai da pixka bat nik ustet urte batzutatik honera aldatu dala... gehio nahi baina...” (Maialen Lujanbio).

Aldaketa eta eboluzioa beraz nabaria da eta positiboa arras. Gai-jartzaileak, gaiak berak, gero eta “neutralagoak” dituzte (estereotipoak markatzen kanpo), gero eta gai egile espertoagoak baitira beraiek ere, baina beti badaude salbuespenak Estitxuk Goizuetako adibidean kontatu moduz.

Epaimahaia bera ere, oraindik ere nagusiki maskulinoa bada (grafikoan ikusi eta aipatu moduz), eboluzionatzen edota aldatzen zailena izango litzateke, balorazioa bera, epaimahaietan dagoen indibiduo bakoitzaren pertzepzioetik eraikia baitago, bertan, bariabile edota faktore aunitz, txertaturik agertuko zirelarik Estitxuk aipatu moduz: *“Nik uste dut justo emakume izan edota gizon izan dela polemika guttien eragin dun, bai... identitate atala, bai?...ze bua herrialdekoak eta bai... eta orain partido politikok ere bai badago... gu hasi ginenikan apezka ere bazen...ta bira guk erraten genitula astakeriak, bua apezak, epailek, bua gaur egun hori ez zen, ez da ikusten ahal... nik horreri adibidez, ez zait iruditzen eman zaionik garrantzia eta eragiten dunik ere ez (...)”* aurrerago jarraitzen du: *“Hagitz, dena da subjektiboa, ez? Zu emakume izatek ere eragingo du puntuazioan. (...) baino beti ere baloratu behar duzu bertsoan, a ver rimatu dun, a ver... igual, igual da bertsoa super matxista, baina igual gaiari lotu zaio super ongi (...)”*

Publikoaren pertzepzioari dagokionean, orokorrean, emakumea, jada anekdota izatetik, gertaera “arrunta” edota “normala” izatera pasa dela erran daiteke. Baina aldi berean, oraindik ere, pertzepzio markatu zein diferentziatu batzuk ageri daitezke Estitxuk aipatu moduz: *“Bai, nik uste dut hasieran zela anekdota bat, ui neska bat (...) Baina bai adibidez, egiten genula, ee, finala, 14 urte arteko finala Nafarrokoa eta bueltakon autobus batek erran zun: zertaz neskak botatzen dute beti bertso tristeak? Eta segidun ez dakit zer... ta bertze batek erraten zun, neskak beti hasten dire nigarrez txapela irabazteko ordun? Eta erran nun, ez Maialen Lujanbio ez zen hasi ta ni ez nintzen hasi eta ez dakit zein ez zen hasi, ta, ez? Biño... bai pertzepziok ere direla holakuak, ez? Igual, ez? Umorea itteko zailatasun gehigo... gero hunkitzeko errexago, ez?... uste*

dut...ee... ez dakit... bakarrikan ez?... ez duela txarra izan behar hunkitzea, ez?... Gero igual tipo batek sartzen du gol bat eta gero hor denak, eee lurrera pan pan pan (...) ta batek txapela irabazten dulako ezin du in negar? Ez dakit... biño pertzepzioak bai, jendik, oraindikan, ba markatzen, markatzen dula neska izan edo mutila izan... baina nik uste dut gizartea ere hola dagola eh... “

Azken batean, oraindik ere gauza dexente daude aurrera begira egin eta limatu beharrak direnak (Maialenek erran moduz) ekibalentzia edota parekidetasun horretara iritsi ahal izateko, baina azken batean, parekidetasun zein genero diferentzia bera, ez da bertsolaritzarengan eskusiboa dena, baizik eta gizartetik datorrena: “*Nik ikusten dut bertsolaritza, lehen ere aipatu dut, da gizarten pasatzen denaren ispilu, ez? Eta... gizarten aldatu behar diren bezala, pues, pues bertsolaritzan ere aldatuko dire, ez?... zaila da bertsolaritzari eskatzea, ee... gizarteak ez duen gauza bat, ez?... Dela, ez? ekibalentzia edo... parekidetasuna edo... ez dakit nola erran... ez ordun, gizarten ez dagon bitartin zaila izango da bertsolaritzan izatea.*” (Estitxu).

Argi dago, gizartearekin batera aldatu dela bertsolaritza, baina Estitxuk dion moduan, ezin zaio bertsolaritzari eskatu gizartean ez dagoen gizon/emakumeen parekidetasuna bera. Hau dela eta, eboluzioa (positiboa) egon dela eta egon denik argi eta garbi baieztatu badaiteke ere (Maialen eta Estitxuk aipatu moduz, zein grafikoan aztertu moduz), ez da harriztekoa noizean behin, sorpresa edota ezusteko desberdinak jasotzea, hala nola Estitxuk aipatzen duen “potroak, ausardiaren seinale bezala” edota, gai ezeroso edota diskriminatorio baten bat azaltzea egun. Oraindik ere, inkonzientean sarturik dauden aurreiritzi, zein pertzepzio edota aldaketa batzuk eramatea beharrezkoak dira, parekidetasun batetaz hitz egiteko.

Azkenik, bertsolaritzaren eredu bera azpimarratu nahiko nuke, bertze esparru batzuetako eredutzat hartu daitekeelarik. Txapelketaz edota gizon eta emakumeen arteko “elkar konpetitzeaz”, “lehiatzeaz” ari naiz, bertze aspektu aunitzetan, emakumeak eta gizonak erabat bereizten direlarik. Hala diotsu Estitxuk: “*(...) eredu bat eee, pues bertze, bertze gizarte batzutan erauteko, ez duzu arpatuko... adibidez, elkar konpartitzen dugu... hori bertze mila gauzetan, ia bereizten da, ez?... Ta bertsolaritzan elkarrekin konpetitzen dugu,*

eta ia emakume bat ailetu da irabaztea denari... Euskal Herriko hobena izan da, uste dut nik imaginario kolektiboan nahiko pausu handia dela. Iruditzen zait, zaila dela bertsolaritzari eskatzea, baina ere berin, bai dela, eredu izan daitekeen kultur ekintza bat.”

7. ONDORIOAK

Argia da lehenengo ondorio moduan, emakumeak, bertsolaritzaren lehenengo parte publikotik (1986. urtetik) egun arte, eboluzio positiboa izan duela, alegia, gero eta gehiago parte hartzen duela. Eboluzio hau ez da soilik bertsolari moduan zentratzen, baita bertsogintzaren bertze esparru batzuetan ere, hala nola, gai-jartzaile edo gai egile moduan edota epaimahai moduan ere. Beraz, lehenengo hipotesiaren planteamenduari edota galderari, modu positibo edota bakoirrean erantzuten dio buruturiko ikerketak, alegia, emakumeak, eboluzioa jasan du.

Hala eta guztiz ere, bigarren ondorio bezala, aipatzekoa da eboluzio hau bera ere, oraindik ere, elkarrizketen zein grafikoaren bitartez ikusi daitekeen moduz, urruti dagoela gizon eta emakumeen arteko parekidetasunari dagokionean. Alegia, egun, oraindik ere, emakume zein gizon, ez dira pareko, ez daude maila berean. Honen adibide dira alde batetik, kopuru eskaxagoa izatea (bertsolari edota epaimahai moduan), edota, publikoaren pertzepzioaren maila ezberdinean, alegia, emakumeak ez duela umorerik egiten, emakumeekin gehiago sufritzen sententzioa, bertso tristeak botatzen dituztelaren pentsamentua, “bi aldiz ongi” egin beharraren sententzioa eta abar (Estitxu Arocenak zein Maialen Lujanbiok aipatzen duten ildotik).

Emakumeen kopurua Euskal Herriko txapelketetan aunitzez eskasagoa baldin bada ere, bertso eskoletan kontrakoa ematen da, aldiz, plazaz-plaza edota publikotasunera salto egiteko orduan sortzen da koska zein aldaketa bera. Hirugarren ondorio moduan, erran daiteke, dudarik gabe, emakume edota neska, zein gizon edota mutikoek haurtzarotik izandako sozializazioak zein gizarteko diferentzia berak, zerikusi

handia duela gizon zein emakumeen arteko errekonozimendu maila diferentean. Hau dela medio, saltoa bera, aunitzez zailagoa zaie emakumeei: beldurra, lotsa, presioa, hitzaren edo erratekoaren gutxiespena, perfekzionismoaren ideia eta abar dira diferentzia handi horien seinale.

Azken batean, bertze ondorio nagusietako bat, emakumearen sartze publikoak, bertsolaritzarengan ekarririko aldaketa nabarmenarekin lotuta dago, hala nola, gaien dibertsifikazioan edota gaiekiko zein beraiekiko trataeran bertan, alegia, esteriotipoetatik, neutraltasunerainoko bidean.

Aldi berean, bertso-eskolen sorrerarekin, zein afizioaren handipenarekin, bertsolaritzak ere, edota hobe erranda, bertsolariengan ere, aldaketak eman dira, hala nola, beraien janzkeran, aurretiko (lehenagoko) formalismo batetik, egun, eguneroko janzkera zein arropa mota ikusgai izatera. Honekin batera, aipatzeko da, posea, edota bertsolarien kantatzeko estiloa bera, ez duela eboluziorik jaso, egun ere, ikusgai baitugu (gizon edo emakume izan) betiko posea (eskuak poltsikoan edota atzean, eta harro (gora begira) kantatuaz).

Eboluzioak berak, aipatu moduz, ez dakar noizean behin, sorpresa edota harridurazko gertakizunik ez pasatzea, azken batean, bertsolaritza bera gizartean ematen diren diferentzien edota espresioen testigu zuzena da, bertze modu batean erranda; gizartearen ispilua da bertsolaritza. Beraz, genero trataera aldetik, kultur-ekintza erreferente edota eredugarri bezala hartu badaiteke ere, kontutan harturik, gizon eta emakumeak elkarren artean lehiatzen direla, oraindik ere gizartearen desberdintasunaren seinale da bertsolaritza.

Beraz, argia da, gizartean dauden pentsamendu, sozializazio bide, ideia, kontzepzio zein genero sistema bera aldatu ezean, bertsolaritzak berak edota bertsolari publikoak berak, zaila izango duela eboluzionatu, edota pertzepzioa bera aldatzea.

Zabalduriko bideen artean, aipatzekoa da, arras interesgarri izango litzatekeela, bertso eskoletan zehazki pasatzen dena detailez eta sakonki aztertzea, nolabait ere, sozializazio bidea, diferentzia eta emakumeen arazoen zein “barrera” horren zergatia bera ikertu eta analisi bat burutzea, beldur, presio, zein emakumeen sententzioak eta arazoak jasotzeko asmoz. Aldi berean, honen ildotik, ongi egongo litzateke bide honetan, bertso eskolako parte hartzea eta Euskal Herriko bertso txapelketa bera konparatzea, diferentziak eta ñabardurak aztertzeko.

Bertze puntu batetik, aldi berean, interesgarria izango litzateke, gaien tematika zein bere eboluzioa aztertzea, nolabait ere, sakontasunean, antzemateko norainokoa izan den bere bilakaera/eboluzioa zein aldaketa eta egun ere, “neutraltasun” ideiaz hitz egin dezakegun edo ez antzemateko.

Honekin bukatzeko, aipatu ere, interesgarri suertatuko zela, emakumearen ibilbide historikoa (80. hamarkadatik aurrerakoa) aztertzea, benetan buruturiko lana ezkutu hori jaso, gorde eta aztertzeko asmoz.

8. BIBLIOGRAFIA

MONOGRAFIAK:

- Aierdi Urrea, Xabier; Alkorta Elorza, Eider; Retortillo Paniagua, Alfredo (2008): *Bertsolaritza: Tradizio modernoa*. Euskal Herriko unibertsitatea.
- Amezaga Albizu, Josu (1995): *Herri kultura eta kultura popularra*. Upv/Ehu. (cap 3; 127-210)
- Amuriza, Xabier (1981): *Bertsolaritza 1. Hitzaren kirol nazionala*, Aek.
- Amuriza, Xabier (1982): *Zu ere bertsolari*, Donostia, Elkar.
- Amuriza, Xabier (1986). *Bertsolaritza 2: hiztegi errimatua*. Elexpuru hnos. editorial s.a.

- Arana Martija, Jose Antonio (1989): *Música Vasca*. Caja de ahorros vizcaína. Bilbao.
- Aristi, Pako (1985): *Euskal Kantagintza berria: 1961-1985*. Donostia. Erein.
- Beauvoir, Simone (1949): *El segundo sexo*. Buenos Aires, Siglo Veinte, Vol II. P.13
- Benhabid, Seyla (2006): *Las reivindicaciones de la cultura: igualdad y diversidad en la era global*. Buenos Aires; Katz. (cap 1; 21-57)
- Berger, John (2000): *Modos de ver*. Ediciones Gustavo Gili, Barcelona.
- Bourdieu, Pierre (2000): *La dominación masculina*. Anagrama, Barcelona. 82. or.
- Butler, Judith (1990): “*variaciones sobre sexo y género*. Beauvoir, Wittig y Foucault” in Seyla Benhabid y Drucilla Cornell (ed.) *Teoría feminista y teoría crítica*, Valencia, Edicions Alfons el Magnànim.
- Del Valle, Teresa et. al (1985): *Mujer vasca imagen y realidad*. Anthropos, Editorial del hombre. Barcelona
- Del Valle, Teresa (1987). *La mujer y la palabra*. Gobierno Vasco. Baroja.
- Del Valle, Teresa (2001): *Emakumeak Euskal herrian; erresistentzia eta hausturak*. Gaiak Argitaldaria. Donostia
- Del Valle, Teresa et. al (2002): *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*. Ediciones Narcea. Madrid.
- Diez Mintegui, Carmen (1996): *Deporte y socialización*. Ponencia de congreso internacional mujeres e institución universitaria en occidente, Compostela. Pág 317-334.

- Egaña Andoni, Garcia Garmendia, Joserra eta Sarasua Maritxalar, Jon (2002): *El arte del bertsolarismo; Realidad y claves de la improvisación oral vasca*. Kulturgintza.
- Esteban Galarza, Mari Luz (2004). *Antropología del cuerpo genero, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Bellaterra edicions. Barcelona.
- Laqueur, Thomas (1994). *La construcción del sexo: cuerpo y género desde los griegos hasta Freud*. Ediciones cátedra. Madrid.
- Rodríguez Menendez, M^a Carmen (2003): *La configuración del género en los procesos de socialización*. ed. KRK, Oviedo.
- Zulaika, Joseba (1985): *Bertsolariaren jokoa eta jolasa*. La primitiva casa Baroja. Donostia.

ARTIKULUAK:

- Aristi Pako (1995): *Emakumeak plazara*. Bertsolari.
- Azurmendi, J (1980) . “*Bertsolaritzaren estudiorako*”. Jakin. Vol 14/15, Donostia, p.148.
- Bullen, Margaret (1997): *Las mujeres y los Alardes de Hondarrubia e Irún*. Arenal: revista de historia de mujeres. Págs 123-145.
- Eizagirre, Estitxu (2001): *Maialenen zati handiagoa azaltzen saiatuko naiz*. Argia.
- Hernandez Garcia, Jone Miren (2006-2007): *Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea. “Bertsolari” women: a voice without a name*. KOBIE, N° 12.
- Larrañaga, Carmen (1993): *Bertsolarismo: habitat de la masculinidad*. Bitarte 4

- Larrañaga, Carmen (1997): *Del Bertsolarismo silenciado (Silenced bertsolaritza)*. BIBLID. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- Mujika, Amagoia (2003): *Neskak izateko nahiko ondo egiten dute bertsotan*. Gara.
- Urretabizkaia Arantxa (2001): *Jendartea maite duena*. Zabalik.
- Zabala, Juan Luis (2000): *Itomena sortzen digu beti gizonezkoz inguratuta egoteak*. Kultura.

INTERNET:

- Bertsolaritzaren definizioa:
<http://feccoojamenabar.blogspot.com/2006/11/definizioa.html>
- Bertsolaritzaren historia:
<http://www.nodo50.org/rebelde/mule/foro/viewtopic.php?t=596>
<http://www.bertsozale.com/liburua/castellano/sarrera/sarrera2.htm>
- Bertsolaritzaren bilakaera/informazioa:
<http://www.bertsozale.com>

GAINERAKO BIBLIOGRAFIA:

- Euskal Herriko bertso txapelketako datuak (1980-2009): Bertsozale elkartearen Xenpelar Dokumentazio Zentroa.
- Bideo muntaia: Bertsozale elkartearen Xenpelar Dokumentazio zentroko urte ezberdineko material ezberdinen bilduma.

GEHIGARRIAK

GEHIGARRIEN AURKIBIDEA:

1. GRAFIKOEN DATUAK..... 53 or.

2. IRUDIAK..... 54 or.

3. ELKARRIZKETAK
 - 3.1: Estitxuren elkarrizketaren gidoia.....59 or.
 - 3.2: Estitxuren elkarrizketaren transkripzioa..... 62 or.
 - 3.3: Maialen Lujanbioren Oreretako hitzaldiaren eta mahai inguruaren eztabaidaren transkripzioa..... 76 or.

4. BERTZELAKO BALIABIDEAK:
 - 4.1; ELKARRIZKETA/HITZALDIA CD-AN
 - 4.2; BIDEOA DVD-AN

1. GRAFIKOEN DATUAK:

PARTEHARTZE OROKORRA

Urteak	Emakumeak	Gizonak	Guztira
1980	0	16	16
1982	0	65	65
1986	1	90	91
1989	0	35	35
1993	2	36	38
1997	5	36	41
2001	6	32	38
2005	8	29	37
2009	12	31	43

GAI-JARTZAILEAK

Urteak	Emakumeak	Gizonak	Guztira
1980			
1982			
1986			
1989			
1993	2	18	20
1997	4	9	13
2001	0	9	9
2005	3	5	8
2009	6	4	10

EPAIMAHAIA EUSKAL HERRIKO BERTSO TXAPELKETAN

Urteak	Emakumeak	Gizonak	Guztira
1980		1 idazkaria	1
1982	0	9	9
1986	0	15	15
1989	0	9	9
1993	0	7	7
1997	1	6	7
2001	1	7	8
2005	2	5	7
2009	2	8	10

2. IRUDIAK:

2.1; 1967. Bertsolari txapelketa



2.2; 1981. urtea. Bertsolari eguna



2.3; 80. hamarkada hasiera: Xabier Amuriza, Angel Mari Peñagarikano, Lazkao Txiki eta Sebastian Lizaso.



2.4; 1982. urteko txikien talde bat.



2.5; 1986. txapelketa. Andoni Egaña,
Jon Sarasua eta Laxaro.



2.6: 1986: Kristina Mardaraz.



2.7: 1988. urteko bertsolari gazte talde bat: Jon Maya...

2.8: 1990: Igor Elorza.



2.9: 1993; Estitxu Arozena eta Igor Elorza

2.10: 1993. urteko Bertsolari Txapelketa.
Andoni Egaña txapeldun



2.11; 1994 Eskolarteko txapelketa. Maialen Lujanbio eta Ainhoa Zabagildaberri.



2.12; 1998ko Nafarroako txapelketa. Xabier Silveira.



2.13; 1999: Eskolarteko txapelketa.



2.14; 2005; Miren artetxe eta Oihane Enbeitia.



2.15: 2006; Xabier Silveira.



2.16: 2008; Sustrai eta Maddalen.



2.17: 2009. Betelu; Erika Lagoma.



2.18; 2009; Maialen Lujanbio, Euskal Herriko bertso txapelketako, txapelduna.



3. ELKARRIZKETAK/HITZALDIAK: TRANSKRIPZIOAK:

3.1: ELKARRIZKETA GIDOIA (ESTITXU AROCENA):

Sarrera: Bueno jarraian egingo dizudan elkarrizketa bera, zu emakumea izanik, bertsolaritzaren alor ezberdinetan jaso eta izan dituzun esperientzien inguruan bideratuta dago, nolabait ere, zure pertzepziotik izandako bizipen, sentrazio, aldaketa edota eboluzioa bera jasotzea gustatuko litzaidake. Honela bada, jada elkarrizketa bera abiatzeko:

1. Nondik datorkizu bertsolari afizio hori Estitxu? Nolatan sortu zitzaizun?
2. Zenbat urte daramatzazu jada bertsolaritzaren esparruan?
3. Noiz/zenbat urterekin hasi zinen bertsogintzan?
4. Zer moduzkoa izan zen familiaren edota lagunen jarrera bera?
5. Afizio horri bide emateko, zer nolako bideak jorratu dituzu? (alegia, bertso-eskolak, ikastolan eta abar)
6. Beti dedikatu izan al zara bertsolaritzari (edo noizbait deskantsu edo tarte bat hartu al duzu)?
7. Zenbat urterekin egin zenuen salto, plazaz-plaza, edota kalera, alegia publikoaren aurrera?
8. Nolako esperientzia izan zen zure jende aurreko lehenengo emanaldia bera?
9. Gizon eta emakumeen arteko diferentzia (prestakuntza, sozializazioz, pertzepzioa eta abar) bazegoela errango zenuke? Egonik, zertan errango zenuke?
10. Beraz, zaila suertatu zitzaizun edo, edozein oztopo edota arazorik (neska izatearen komentario ezkorrik edo) izan zenuen jendearen (publikoaren) edota bertze norbaiten aldetik?

11. Nolakoa esperientzia izan zen zuretzat lehenengo Euskal Herriko bertso txapelketara aurkeztu zinenean? (Bertsolariak edota publikoak berak nolako harrera egin zizuten?)
12. Eredu nagusi baten bat bazeneukan? Edota zein izan da zure erreferente nagusia baldin eta izan baduzu?
13. Plazaz-plaza aritzea, bertso-afaritan, txapelketak eta abar. Zein duzu/dituzu nahiago? Edota zeinetan aritzen zara erosoago? Zergatik?
14. Uste duzu bertsolaritzan emakumearen presentziatik abiatuta, eboluziorik edota aldaketarik egon dela urte hauetan zehar, alegia, zu hasi zinanetik gaur egun arte? Zertan?
15. Gaietan, alegia gai-jartzaileak jarritako gaietan, aldaketarik egon da zure ustez?
16. Eta publikoaren pertzepzioan?
17. Arantzazuk Loidik zein hainbat idazlek, antropologok erraten dute moduan, emakumeen gorputz espresioa maskulinoa dela errango zenuke?
18. Emakumeen irudi maskulino hori edo trabestismo hori urte hauetan zehar aldatu dela errango zenuke? Zergatik uste duzu emakumeak jo izan duela irudi maskulino horretara?
19. Maialenek badio elkarrizketa batean, emakumeak ongi egiteko gizona konparaketan, bi aldiz ongi egin behar dutela errekonozimendu maila berean egoteko, zer deritzozu?
20. Egun jada, bertsolaritzan entzuten edo ezartzen diren gaiak, neutroak direla errango zenuke? Edota badago diferentziarik oraindik ere perfilatzen diren gaietan gizon eta emakume konparaketan?
21. Orokorrean gaiak, gizarte maskulinoaren arabera osatuta daudela errango zenuke?

22. Batzuetan, epaimahaiari, emakume eta gizonen aurreko txapelketetan objetibotasun eza egotea azpimarratu zaio, zuk zer uste duzu?
23. Pixka bat jada zure afizio/ofizio horretan sarturik (bertso eskoletako irakasle izanik), egun zure garaitik, aldaketa nabaritu duzu modu orokorrean?
24. Zer nolako adinak dituzte gaztetxo horiek?
25. Zer nolako jarrera daukate neskak mutilekiko konparaketan? Lotsatiagoak, perfekzionistagoak eta abar, zer errango zenuke?
26. Zure pertzepziotik, eta egun zure ikasleena alderatuaz (nesken kasuan), aldaketarik dagoela errango zenuke? Zertan?
27. Zer moduzkoa da, talde beraien harrera elkar? Badago diferentzia zu bertso eskolan zinen garaitik?
28. Bertzalde, saio elkarrizketa askotan entzun izan da, leku askotan neskak direla kopuruz nagusi mutilen aurrean. Baina adin batetik aurrera kontrakoa gertatzen da ez? Zergatik uste duzu gertatzen dela hau?
29. Orokorrean erranda, egun, bertso eskoletan gazteen artean, zein txapelketa nagusitan zuen artean, gizonak zein emakumeok, maila berean zaudetela errango zenuke?
30. Alegia, irabazteko edota plazaz-plaza aritzeko edo errekonozimendu mailan, berdin al daude zure ustez emakumea zein gizona?
31. Puntu bat edo batzuk aldatu beharko zirela uste duzu? Aldatu beharko balitz, zer uste duzu aldatu beharko zela?
32. Baldin eta maila berean ez egote horrek, non uste duzu daukala sustraia? Edota non dago horren arazoa, gakoa?
33. Bukatzeko, zerbait gehitu nahiko zenioke elkarrizketari? Zer iruditu zaizu elkarrizketa bera?

3.2: ESTITXU AROCENAREKIN ELKARRIZKETA; 2010/06/08

Zaira: Bai pues hoixen... esplikatu nizun pixka bat gauzak, ee, nere ikerketa zeren inguruan dagon edo ez dakit... erran nizun dela emakumearen bilakaera pos azken hamarkada hauetan, emakumearen pertzepziotik... alegia, berak nola ikusten dun, zer aldatu den ta hoi... ta pixka bat nahi nun ikusi ba zure pertzepziotik.

Estitxu: ta hoi zer dezu tesia? Edo, nola da?

Zaira: tesin-a.

Estitxu: Tesin-a.

Zaira: Bai, tesia, gero ia izango litzateke... hoi ia ez dakit.

Estitxu: Ia.

Zaira: Hoi ia da bertze zerbait, bai. Tesin-ako gaia bezala hau hartu dut. Ta ordun, pos hoi, interesatzen zitzaidan elkarrizketa egitea nolabait ere... Ta hoixe, pos bueno... hola hasteko pixka bat: nundik datorkizu bertsolari afizio hoi edo, nolatan sortu zitzaizun?

Estitxu: Bueno gure itxea batez ere aitan aldetikan nahiko bertsozalea izan da betidanik. Familia osua. Berak erraten du bere amona zenak abesten zizkiela eh... bertso pila bat etxin eta... eee... doinu pila bat, bertso zahar pila bat eta... euren eztakit...ee aisialdia... bertsoakin osatzen zela, ez? Igual artai hortan ez dakit zer eiten eta beti bertsoan aritzen zela. Gero bere anaia igual batek memoriaz aitz onak ditu, ta nere aita bera ere aitzen zen bertsoan...ta gero erran bar da horrekin batera, tantimairu ikastolan lantzen zela bertsolaritza aunitz, ez? Ta ordun... uste dut musikan ordez ere, ba astean ordu bat ematen genula bertsolaritza. Ta Ordun nik uste dut bi gauza hoiek juntatu zirela, pues gu ateri ginen taldetxo bat... beti ere taldearen garrantzia, ikusten duzu,ee, sujeto bakar bezala etzarella holko mundu baten sartzen, biño gu suertatu giñen taldetxo bat, erdi kuadrilla in giñen... baita ere lotua dago pues Bizkaian ere, Unai Iturriaga ta Igor Elorza hasi ziren... eta bueno pixko bat bertze bertso eskolen mugimendu, Euskal Herri mailako bertso eskolen mugimendu orokorrak ere lotua egonen da, ta nik uste dut azkenin direla aldagai pila bat juntatzen direla pertsona batin ta, ez? Pues ta azkenin hor zaude... biño ez dela hor egun batetik bertzera izandako erabaki bat, ez?... adibidez pues, hola definituko nuke...

Zaira: faktore aunitz.

Estitxu: Uste dut, Euskal Herrin bertan, ez? Eman zen bilakaera bat, gero familia bertso zalea izatea, ikastolan lantzia hola, pixko bat holako sarrera batzuketan pues ia sortu zela gure zaletasuna, gure ibilbidea hortik abittu zen...

Zaira: Kurioa amonana ez? E...

Estitxu: Bai.

Zaira: Izatea. Ze normalean ez da aunitz entzunda, nahiz eta aipatzen duten batzuk ere bai...

Estitxu: Bai bai, nik uste dut... ez dakit gero hor galderetan ateriko den. Biño nik azkeneko boladan beti erraten dut, ez? Ee, zenbat garrantzi ematen zaion txapela irabaztea... edo plaza, ez?... Ez plaza gizonetz, plaza andrea... bale egia da, ados, agitz ongi dago hori... baina baita ere dago emakumeak egin dun hori ba, loratzia, ez? Dela belaunaldiz belaunaldi iristaraztea horrara, ez?... ta hori plaza bidez egiten da baina baita ere sukalde bidez... ez dakit nola erran...

Zaira: bai.

Estitxu: Iruditzen zait, bai ongi dagola, ez? Pues gizonak egin dutena imitatzea, biño baita ere emakumeak egin dutena baloratzea, ez?

Zaira: Hori da.

Estitxu: Maila berin edo e, igual guttigan...

Zaira: Ia. Ta zenbat urte hola? Jorratzen duzu bertsolaritzaren ibilbidea?

Estitxu: Pues, zaila da, ez? Nik uste dut, ez dakit, 5 urte nittunikan ia kantatzen nitula Amurizaren bertsuk buruz. Ta grabatzen zidatela ta ez dakit zer ta... hola buruz, e? hola... eta, gero ia, ez dakit igual baita ere etxeko ttikina izanik, ia handinak igual bazuten futbola ta hori, ta ni juaten nintzen beti gurasokin bertsok aditzera haurra nintzelarik ta... ta ordun ezin da erran ere, bueno egun batetik bertzera hori, ez? Biño gero bapatean bai ia, bapaten uste dut 16 urtekin ia hasi ginela... eta bueno ta ni gero... mobida pertsonal batengatik pasa nun 3 urte kantatu gabe.. biñon erran nahi dut gehitsu eten gabe...ta ia 17-kin txapelketara, ta ia... rollo hortara, ta izan zen garai bat, emakumea eta Nafarra izanik, igual... nere mailari zegozkion baino saio dexente gehigo egin nitunak, ez? Biño bueno erran nahi dut mobida urte aunitzitan, astebururo kaña, kaña handia bai...

Zaira: Ordun bortz urtekin edo hasi zinen? (jejej)

Estitxu: Ezetz, hori da 5 urtekin erran nahi dut, ia erraten didatela kantatzen nitula bertzin bertsuk biño gero ikastolan hagitz txikitan ere bai, hombre bueno bai... duela guti, arrautu nun 6. mailako kuaderno bat, eta... hagitz txarrak ziren biño bueno...(jejej)

Zaira: Egiten bazenun behintzat? Jo nahikoa.

Estitxu: Bai bai, egiten genittun taldean, taldean bertsoak bai.

Zaira: Ta zer moduzkoa izan zen familian ta lagunak harrera, erran zenunian ba, joer ba ni bertsotan aitu nahi dut edo...

Estitxu: Nire ustez izan zela al rebes eh?... Hemen ikastolan erran bezala lantzen zen ordun 8. maila arte egiten zen ikastolan ta gero joan ginen Mugairera urte bat ta gero Lekarozera. Ta mugaireko urtian ia, pues radikal dena bukatu zen, ez? Ez genun ia

bertsolaritza ta... niri ematen zidan pena, nik ia ez dakit nahi nun segitu bezala ta, itxin aipatu genun Oiartzungo eskolara joateko aukera, ez? ta...hasi ginen horrei buruz solasin ta hola, ta azkenin nire aitak solastu zun Bitorrekin ta erran zun, egin bar dugu bertso eskola bat hemen, ez? Garaia da...ta badago taldetxo bat ikastolatikan ta... afiziokin ateri zena... ta in zen deialdi bat Lesakan ta Arantzan ta... eta hasi ginen hemen ia bertso eskola lantzen... ez dakit galdera zein zen... galdu naiz.

Zaira: bai ez, eee, a ver familiaren edo lagunen harrera zer moduzkoa izan zen...

Estitxu: A, ba hori da. Ba irakaslea zen aita...osea erran nahi dut, azkenin...batez ere, hori pixko bat ikusten zen eh, Manolok hartzen zun bertze talde bat ta igual niri patzen zidaten Bitorrekin horregatikan, ez?... Igual ez koinziditzeko. Biño pixko bat haiek bultzatuta atera ginen...erran nahi dut irakasleak bultzatuta, kasu hontan, bitikan bat atta zela, erran nahi dut, familiak...

Zaira: Laguntza...

Estitxu: Laguntza ta animoa ta pixko bat, uste dut azkenin igual ez zela ezta gure erabakia ere, ez? Izan zela pixko bat inguruk, ta baita ere beharrak, beharrak, ez?... Nafarroan ez zegoen bertsolari gazterik eta, behar horren...e, beharrak lagunduta... biño familia dudik gabe izan zen lehenbiziko bultzatzailea eta ingurua.

Zaira: Ongi. Eta beti, beti dedikatu izan zara bertsolaritzari? Bueno erran duzu, 3 urte edo deskantsatu zenula, ez? Baina bertzelaz bai urte asko...

Estitxu: Bai urte aunitz ta gainera, eh, karrera bukatu nun urtin, udan, pues deitu zidaten ia nahi nun bertsolaritza irakaskuntza programan lanean hasi... eta... nik pentsatu gabe erran nun baietz. Gero egin nun Madrilen, bueno hau psikologia bukatuta... ta gero Madrilen in non sexologia, eta orduan han jornada erdiz hasi nintzen Donostin kolaboratzen, zera kolektibo batekin, sexu heziketa ematen bai begiraleei, ta bai gaztetxoei ta horrela... eta izan ziren... urte bat uste dut egin nitula bi gauzak, erdiak eta erdiak, ta justu gero Nafarroko...urte bat edo bi izango ziren hola? Ez dakit... ta gero.. a klaro... bi lehenbiziko ikasten Madrilen eta gero hirugarren bat lanin eta...eta eskeini zidaten justu kontratoa bi aldetan batera, osea urte berin, kurtso bereko eta ikusten non nik, pues, bertsonak zirela neria bezala, ez? Nik ez badut hau egiten, zeinek in bar du, ez? Iruditzen zait hori zela gehigo nire proiektua ta ordun... ordutikan... edo puf, betidanik ordurarte ere, bertsoeskolak eman nitun, bai bertsolari bezala ta bai lan bezala ere, bai bertsoarekin beti egon naiz aitz lotua.

Zaira: Eta bueno, zenbat urtekin, bueno nire ustez erran duzu 17 urtekin egin zenun salto ia plazaz-plaza edo publiko baten aurrera ia?

Estitxu: Bai nire ustez, 16 urtekin saio batzuk eta 17kin ia, Nafarroako txapelketan parte hartu eta ia bai, ia saiok ittera... Bai bai bai, hori izango zen, bai... 95ean ia irauzi nun eta ordun ia izan zen, bua, ia astebururo ta... bai...

Zaira: Ta nolako esperientzia izan zen, zure jende aurreko lehenengo...

Estitxu: Nik uste dut, ez nula hola... nahiko ongi eraman izan dut beti, ez? Jende aurrekotasuna igual, ez? Nik ikusi ttut eh, ingurun neskak, pues bai Amaia Telletxea,

bai Estitxu Fernandez, kristona sufritzen zutela ez kontrolatzekin zer, zer erran bar zuten, ez? Ez? Igual Estitxuk lehengo egunin aipatzen zun... Nik, ni nago prest, nahizuna, baino baldin badut idatzia eta baldin badakit zer den erran beharra dutena, ez?... Biño ez e, arrisku hori... edo horrerri beldurra izaten diotela bai...

Amaia adibidez, saioa hartzen zun ilusiokin eta gero eguna ailetzerakun sufritzen zun pilo bat, ta aldiz, nik nahiko ongi eraman dut hori, ez? Ta... inklusio iruditzen zait errexagoa, 1000 aitzinin kantatzea hamarren aitzinin kantatzea biño...

Zaira: Errexa?

Estitxu: Ez? hamar hoiei jartzen diezu aurpegia ta daude han...eta... edo igual ezagutzen duzu bakarren bat...eta hori biño mila ia da... ia da... jendetza, ez? ez dakit zure ideia, zure... bertze era batera da azaltzen dire, inoiz ez dut suntsitu jende aurrekotasunagatik.

Zaira: Jo, ze suertea. Nik behintzat...

Estitxu: Ia bai... ez dakit...

Zaira: Eta bueno garai hortan, gizon eta emakumeen arteko diferentzia edo bazegola errango zenuke...

Estitxu: Bai. Ni... ni hasi nintzenikan, edo gu hasi giñenikan, ez da, ez zen, ez zen emakumerik. Ba ordun... zen dena, zen dena berriya, ez? Erran nahi dut ee... bai... bai fisikoki zu, bai tematika, bai redakzioa, bai dena zen berria, ez? Zen eraikitzen ari zen bide bat, ez? Eta...ez dakit horrerri buruz ere solastu dugu dexente ez?, ta hasieran igual, ee... guretan gehiena baloratzen zena zen, pues ee, gizonei kriston kaña sartzia, ez? Ta ordun, ez?... bai...

A bira neska gazte hori aitton horrerri, ez? kaña sartzen, eta buaaa, hori zen nahi zena, ez?...Eta gero zuk pentsatzen duzu hori ez dela neria, ta pixko bat bertze gauza batzuk landu behar direla ta nik uste dut Maialen Lujanbio zentzu hortan izandu dela kriston adibidea eta kriston bidea egin duna, ez?...

Zaira: Ongi. Bueno beraz, ez, bueno ez zitzaizun zaila suertatu erran duzu... edo noizbait izan duzu edozein azto... oztopo edo neska izatearen komentario ezkor baten bat edo...

Estitxu: Komentariok eta horrela bai. Eta gero da ere bai zure abatan ere zer aditu nahi den...baina nik uste dut gure kasun eta beharra hala zen eta holako inguru soziala tokatu zitzaigula, diskriminazio positibo izan zela, ez? Neska izateagatikan kantatzen genun, ez? Ez, a ez dakit zer, aa, polita gelditzeko do ia que badauden gaur egun pues neska bat, gure bertso ibilbidea neska izatea izan da diskriminazio positiboko arrazoi bat, ez? Gero ere egia da, bueno, “nunca me acostumbraré a oír mujeres”, edo bua, ez dakit pixkot, holako gauzak ere bai aditzen ziren biño guttiengo bat zen, gehiengo bat zen nahi zuna, eta, eta igual txapelketara joaten zara, ta Estitxu neska delako, nahi dut irautzia Estitxu neska delako, neska bakarra delako, klaro... azkeneko finalean 7 mutil ta ni ginen, erran nahi dut, ta ordun ez dakit... zentzu hortan baduzu, ez? Ee, kolektibo baten bandera, ez?

Zaira: Ordezkarri gisa, ez?

Estitxu: Bai bai bai hori da, hori da, pixko bat bai, nik uste dut gure kasun, ee, igual zailagoa izan da tematika edo bertsogintza bera lantzea, biño bertsolari bezala aukerak, izan ttugula gehigo, mutilak, gure adineko mutilak biño... biño igual Nafar batek Gipuzkoarrak biño ere, eh?... erran nahi dut, badaude aldagai pila bat eta ordun e ez dakit zure ezaugarria da Nafarra, emakume ez dakit zer... Nafarra mutila eta badakit zer, ere, hola identitate horrek ematen dio Oiartzungo 20 urteko, ez? Ez dakit ze ba, Gipuzkon hainbertze badire... pues... erran nahi dut, pues bai izan da errextasun bat biño bueno badire bertze aldagai batzuk ere bai... edo garaia.. guk oraindikan...bueno... orain igual ez, biño urte auniztan gazte, gazteen ordezkari-tza eraman dugu, ez? ta gaur egun ere... seguro nago Ion Maya Iturriaga eramaten duzula gaztetxe batera ta direla aunitzez gazte-guk ideiaz, ba ez dakit zein biño... biño badaudela gazte-guk bastante klasikoguk, ia berrogeitara hurbiltzen ari direnak baino, ez? Ideiaz eta gauza pila batetaz, bueno biño hori ia bertze tema bat da...

Zaira: Ordun nolako esperientzia izan zen gero zuretzat, lehenengo aldiz Euskal Herriko txapelketara aurkeztu zinenen edo?

Estitxu: Bueno Euskal Herrikora joan ginen Nafarroako ordezkari bezala, hori ere ez da erabakitzen... Nafarroakora atetzen zara eta Nafarroako lehenbiziko, ordun izaten zen Nafarroa eta iparraldea batera eta 7 joaten ginen eta gero Nafarroako 4 joaten ginen, eta... bueno egia da Euskal Herrikoa dela handi bezala publikoa arras espertoa da, ta hemen ez dakit etxin jokatzeko duzun bezala, Nafarroako txapelketan, etxin jokatzeko duzun bezala, han bai dela pixko bat... oro har, txapelketa dela, ez?... ia hasi ginen eskola artekoa 18 urte biño lehen, edo ia, Nafarroakora handitara ere 18 urte biño lehen...eta ordun...

Zaira: Ia dela dinamika bat...

Estitxu: Bai bai. Euskal Herrikoa da gaur egun ere da, bertze presio bat da, ta jendia, ta komunikabideen hori ta azkenean dago hor ere bai Euskal Herriko bertso sailak antolatzen duzten % 80 dago publikoa artean, edozein saio izanta ere, eh? izan Iparralden izan Gasteizen izan... erran nahi dut, joaten den jendia, txapelketa guztia segitzen dun jende pila bat gaude... osea guk segitzen dugu itxuran osoa ahal dugun guztia, eta... ordun, gu gara Lesakako saiok antolatzen ttugunak eta gu, gazte eta gu bezala bertze herritan eta... uste dut antolatzaileak eta holako mobida handia izatek, pues presionatzen dula bertsolaria eta presio txarra bezala, ez? Badaude hor presio batzuk osea harrotzen zarenak eta handitzen zarenak biño... (Zaira: hoi ia...) uste dut Euskal Herrikoa izaten dela pixkot...

Zaira: Es “que”, 14.000 eh? presioa (jaj)

Estitxu: Bueno hori da, nik ez dut inoiz kantatu finalin... biño ja final laurdenetatik hasita ia... badago jendia txapelketa guztia segitzen duna.

Zaira: Presioa... bueno ni behintzat...(Estitxu: bai bai), ta eredu nagusi bat izan duzu edo izan duzu zuretzatko erreferente nagusina bat edo izan dena, segitzeko, edo...

Estitxu: Nik uste dut, bertsolaritzan zaila dela eredu bat bakarra hartzea, ez? Nik uste dut, ee... zerbait aditzez ikasten duzu zerbait... zaila da erratea...noiz ikasten du

bertsotan?... jo ba ez dakizu...igual Maritxu nora zoaz... ez dakit, uste dut eredu direla bertso zaharrak hola zaku batin hala sartuta, biño bertso zaharretatik hasita igual ez dut, bua pues Txirrita gustatzen zait gehien edo lasarte gustatzen zait gehien ez dakit... bua ta gero pues nik aditu izan ttuztenak, adibidez, Uztapide eta Lasarte eta hoiek hagitz gutti, eta gero ia Amuriza ta Egaña ta hoiek dexente gehigo, gero Sarasua gustatzen zait pila bat, ez?... Ta gero igual hurbilagokuk. Ia igual zurekin kantatzen dutenak gustatzen zaizkizu, ez? Pues Iturriaga bat, edo, biño ez igual eredu bezala hartuta baizik eta gusto bezala... zuk gero zuk ia zure ibilbidea duzula, zure ibiltzea duzula... ta edan duzuna iturri pil batetikan...biño eredu bat... ez nuke erranen eredu bat...

Zaira: Bueno eta ia, bueno plazaz-plaza aritzea, bertso afaritan, txapelketetan edo zein duzu zuk nahiago? Edota, gustoragoko edo...desberdinak...

Estitxu: Hombre bertso afaritan da... da, da mundu bat, ez? Hasten da, iristen zara toki batera, ez duzu ezagutzen inor, edo bat edo bi bistaz, edo batekin koinziditzen ez dakit non edo... eta da ez dakit, ez? 4-5 orduko esperientzi bat, kristona, ez? Ezagutzen duzu herria, ezagutzen duzu tokia, ematen dizute jaten, sukaldarik, tortzen da saldatzera, da mundu bat, hasten zara afari erdin ia.. ostras hemen zerbait kantatu behar dugu ez dakizu zer, normalin ez dago gai-jartzailerik izaten, hasi behar duzu kantatzen zerbaiti buruz eta ez dakizu zeri buruz bukatuko zun kantatzen... ta da esperientzia bat... eh... sortzen duena ee, inseguridade, nere, nere, nere... neretzako behintzat txapelketetan baino inseguridade gehigo...

Zaira: Ez dagolako zehaztuta...

Estitxu: Ez dagolako zehaztua, txapelketa da 3 bertso zortziko handian hau hasita, ez? ta hori badakizu itten/ingo duzula, hobekio, okerrago baino hori badakizula iten ez biño, bertzia da...ta ordun hain hain insegurua izanta eta hain mundu handia izanta eta bukatzen duzu ordu terdiko edo bi orduko saioan eta ongi ateri baldin bada, da... kristona, da kristona, bazuzi etxera... bueno hagitz hagitz konten, ez? biño bueno... ordun polita ateratzen denikan, ondo ateratzen denikan... bertso afaria da kristona, biño da arriskutsua bezala. Txapelketan ez baduzu nerbiotatik sober sufritzen ta hori... ni adibidez hagitz regularra izan naiz beti, igual ez duzu joko gailurra baina erori erez, ordun badakizu zer den egin behar dena, ez? hagitz arautua dago, hagitz arautua dago... biño bueno, bertso afari bat daukana...

Adibidez aurtan pues joan ginen Garesera, ez? Garesen, Garesen zein da euskalduna? Erran nahi dut, badute kristongo meritua. Ordun zu ai zara izautzen hango jendi mugittuna, hango jende hori... ta bai da kriston esperientzia. Ta haiek tratatzen zaituzten zuri, bua, a ze meritoa nola iten duzun... ta ez dakit sortzen da harreman bat kristona...

Eta bertze estremoia Berueten, baserri giroko bazkari batera joan ginen, pasatu genun 5 ordu jarriak mahaian egitan. Bost edo 6, ez dakit ia noiz altxatu ginen ta... Haiengatikan segi ta segi, ta bertsoak bota ta bota ta bota ta... dire kriston esperientziak politikak, biño hori da... ez bakarrik kantatzea da dena da ailetzea herri batera ta da ez dakit, esperientzia hagitz polita. Txapelketana pues arautua dago, ez? Ni, bueno... ez dakit.

Zaira: Diferentzia da...

Estitxua: Diferentzia da, bertzia da arriskutsua... Txapelketan igual nerbio gehigo... bueno ez dakit...

Zaira: Ia, bertzean ia...

Estitxu: Dire bi mundu hagitz desberdinak. Izaten ahal da pertsona bat txapelketako hagitz ona eta herritara joateko ez balio izatea eta, eta al rebes. Da, bertsoa azkenean 10-8 ta rimatzea da biño ez du zerikusirik gai batek 100 pertsonari 100 bertso ta... Ez du zerikusirik, ez du zerikusirik.

Zaira: Ta bueno ia hola pixka bat generoan sartuta, edo emakume aldetik, ia uste duzu bertsolaritzan emakumearen presentziatik, ia nolabait ere sartu zenetik, ee, eboluziorik edota aldaketarik egon dela urte hauetan zehar?

Estitxu: Zaila da erraten, ez? Ze ba, gu igual heldu gara...ee, pues Frankismo garaia uste dugu izan dela historia, ez? Erran nahi dut, osea emakumea ez existitzea izan dela historia. Biño horren antzintikan egondu dire emakume bertsolarik eta aunitz gainera, ez? XVI. mendean badago ee, Bilbo hiriko bando bat, e debekatzen duela emakumea kantatzea. Nire anaiak badu liburu bat ere hola, gure, guren arbasoekin ta hola, ta baita ere badugu emakume bat Altamiratarra iten zula bertsoan... eta... Xenpelarren iloba ere Joxepa Aranbarri baita ere bertsoan aritzen zen, ez? Ordun, guk erraten duguna da, gu deus ezeretikan ze bilakaera egon den, ez? Baino ez du erran nahi bilakaera guzti hori hola izan denik. Nik uste dut, nik pentsatzen dut republika garaian izango zirela emakume bertsolariak edo ariko zirela, ez? Gero pues, gu... guretzat historia izan da, deus ezezetikan, Kristina Mardaraz 86ko txapelketan ateri zen... eta horrekin konparatuta zalantzarik gabe, ez? Izan dela... adibidez 86ko txapelketan emakume bat ateri zen eta 2009ko txapelketan txapelduna emakumea, ez? Erran nahi dut bilakaera zalantzarik gabe, hori txapelketa mailan eta saiotan ere nik uste dut normaltasun handiz, rol desberdineko emakume pila bat... hasieran bat edo bi bakarrik baldin baziren markatzen zuten emakumeen rola, baino gaur egun bagara ia pila bat ta.. ez oraindik erdiak, ez? Oraindikan erran nahi dut ez da ekibalentzerik ezta guttiago ere, guttiagorik ere, ez? Biño bai izandu dala bilakaera eta hagitz positiboa, baino nahi nuke azpimarratu ideia hori guk ikusten dugula deus ezezikan gu sortzera...

Zaira: Bai (...), ez hori hala da bai...

Estitxu: Izandu dire historia guztian... eta... eta... begittu beharko zen lehenagotikan zer heldu den, ez? Ta nik uste dut gainera hagitz guti ikertutako mundu...zera dela eta mereziko lukeela orain... denbora hartu bar hortako gauza guztik bezala...

Zaira: Ez dago asko idazketan behintzat landu dut nik eta...

Estitxu: Ez dago, ez dago aunitz, ez dago aunitz ez, nik adibidez badaukat korreo elektronikoa Joxepa Aranbarri badakitelako, ez? nere urtin, nire egunin jaio zela ta hori biño beno, biño gero hasten zara eta jartzen duzu “google-en” hori eta ez dago inolako, inolako informaziorik, inolakorik, ez dago deus idatzia.

Zaira: Oso gutxi bai. Nik idatzietan ere irakurri dudanez, ez dakit zeinek bertsoan aipatzen zulako ez dakit zein emakume erantzun ziola baino...

Estitxu: Bai hori, Hondarrabiko, Hondarribiko nola da? bai...zauntzen du historia hori, bai ezagutzen dut historia hoi. Hori ez dakit badakizun badagola, ee, Xenpelar izeneko dokumentazio zentroa, orain dago Billabonan.

Zaira: Bai, bai egonana naiz hor. Eta bai pasa zidaten informazioa.

Estitxu: Ez jakiteko. Ze ba gainera hori eraunten dutenak pixko bat gaiarekiko sensiblerik dire ta ordun...

Zaira: Bai.

Estitxu: Nahiko sorginak beraiek ere ta...

Zaira: Bueno gaietan ia zentratuz, gai-jartzailetan, e, aldaketarik egon da zure ustez, nahi dut esan ba, 80. hamarkadatik orain bitarte arte ba ia hasieran gaian jartzen zirela pixkat...

Estitxu: Nik uste dut baietz, bai emakumeen gaiarekin eta bai orokorren bai? ez? Hor badago Egañan agur bat, ez? Ee, emakumea ez dakit 81ean edo 82an patu zuten ee, gaia emakumea, osea ez, ez? Emakumea edo... bertze batin ama, patu zuten, ez?... erran nahi dut, ziren gaia gaiak patzen, ez? Mariano Izeta batek patzen zun 4 lerroko gaia ta bertzetan hala hitz baten gaia, ez?... Ta gero bota zun agur bat Egañak erranez, ee, 80ko txapelketari hasi naiz begira, emakumeak orduan gai ziren eta gaur eurek gai dira, ez? egiteko gai dira, ez?, gai izatetik... egiteko gai izatera ez? Erran nahi dut pixko bat hor kontraste hori, ez? Eta pixko bat bai aldatu da, ez? Orain ia kontutan hartzen da emakumea hor dela bai estereotipo aldetikan, ez? Igual hola, 60-80ko gaietan, pues emakumeak bazun rola orduko gizarteak zuen, nik uste dut gizartekin batera aldatu dela... eta alde batetik emakumea bertsolari delako eta horrek ia igual gai egileari berari ia erraten, ostras hemen dagola hau ezin dut hau erran, ez? Biño baita ere orokorrean gizartea aldatu delako...ez?

Zaira: Osea, bai dena bat azkenean...

Estitxu: Bueno baino, oraindik adibidez gu lehengo ortzilin egon ginen Irunetik desafioa itten eta...ee, potroak ausardiaren sinonimo bezala aditu genun, ez? Eta hagitz gaztia zen bota zuna, ee, 22-23 urte, ingenieritza ikasten eta, eta erran nahi dut oraindik ikusten dira gauzak eta erraten zula ez gaude hain aurreratuk ez? Edo oraindik harri berin erotzen edo, ez?... ausardiaren sinonimo bezala ta hola ta jandinta zu zaudela han, ez?...erran nahi dut... biño bueno gauza batzuk...

Zaira: bai bai, azkenean...

Estitxu: zailak dire, zailak dire.

Zaira: Eta publikoaren pertzepzioa ere, aldatu izango da, ez?

Estitxu: Bai, nik uste dut hasieran zela anekdota bat, ui neska bat, anekdota bai, orain ia ez... Baina bai adibidez, egiten genula, ee, finala, 14 urte arteko finala Nafarrokoa eta bueltakon autobusin batek erran zun: zertaz neskek botatzen dute beti bertso tristeak?

Eta segidun ez dakit zer... ta bertze batek erraten zun, neskak beti hasten dire nigarrez txapela irabazteko ordun? Eta erran nun, ez Maialen Lujanbio ez zen hasi ta ni ez nintzen hasi eta ez dakit zein ez zen hasi, ta, ez? Biño... bai pertzepziok ere direla holakuak, ez? Igual, ez? Umorea itteko zailatasun gehigo... gero hunkitzeko errexago, ez?... uste dut...ee... ez dakit... bakarrikan, ez?... ez duela txarra izan behar hunkitzea, ez?... gero igual tipo batek sartzen du gol bat eta gero hor denak, eee lurrera pan pan pan, ta pertsona bat hor besarkatzen in baduzu ez dakit ta batek txapela irabazten dulako ezin du in negar? Ez dakit... biño pertzepzioak bai, jendik, oraindikan, ba markatzen, markatzen dula neska izan edo mutila izan... baina nik uste dut gizartea ere hola dagola eh...

Zaira: bai bai, ez dela bertsolaritzan bakarrik...

Estitxu: Ez dela bertsolaritzan bakarrik, esteriotipo hoiek dira, gizartearen ispilu ta pertzepziuk ere...

Zaira: Eta bueno gero, Arantzazu Loidik zein hainbat bueno idazle, antropologo eta abar, erraten dute adibidez, hasieran, emakumeen gorputz espresioa maskulinoa zela, zuk ze esango zenuke, baietz edo zer uste duzu?

Estitxu: Bueno nik uste dut gorputz espresioa orokorren bertsolaritzan (jeje) ez dela gauza bat aunitz landu dena, ez? Pixko bat, ez? nahiko estatiko... ez da antzerki bat, ez? gorputz espresioa... pos... ez dakit nola erran, ez?... bapatekoa, bapatin ai zara gai bati buruz ta ez duzu ta ez duzu... igual orain jendia hasi da eskuak mugitzen ta nei iruditzen zait, neri pertsonalki etzait batera gustatzen... ez zait iruditzen gorputz espresioa... gehigo espresioak orokorren edo gehigo hasieran batez ere, ez? Behar zenula eredu bat jarraitu, inkuso bortitzago edo, ez? Ee, maskulinoagoa izan bera biño superatzeko, hori bai... baina ez nuke errango nik gorputz espresio mailan... bueno igual berak ikertu du hagitz ongi... ta du haitz landua eh?...

Zaira: Ez aipatzen zun berak, adibidez gogoratzen zela, bere lehenengo lekzioa, ee, oholtzara igotze orduan, edo erran ziotela, jarri hankak zabal-zabal atera bularra eta benga hasi ozen kantatzen eta nolabait ere...

Estitxu: Egia da Arantzazu Loidik bazula ahots bat hagitz hagitz hagitz fina, ta ordun hori kontra errestatzeko igual beharko zun bertze guztia, guri holakorik inoiz ez digute erran, ze ba... nik adibidez, pertsonalki badut ahots hagitz indartsua ta ordun ba... pues...ez... ez dakit nola erran...gorputz espresioa biño... bueno igual hori da postura bat da... es que postura baten kantatzen duzu egia erran...ez da...

Zaira: Bai. Bai eta bueno, hurrengo galdera zen nolabait ere, ia ikusten zenun baldin eta ikusten bazenun hori aldatu zela... edo orain ia... aldaketa egon denik...

Estitxu: Ez dakit, ez dut sobera pentsatu horrerik buruz ere... ai naiz inprobisatzen pixkot... nik uste dut... berdintsu kantatzen zutela ordun eta orain... gehigo dela igual edukia edo gorputz espresioa baino aldatu dena iruditzen zait... es que igual postura bera da, ez? Erran nahi dut... ez dakit...

Zaira: Ta gero bueno, Maialenek badio elkarriketa batean, emakumeak ongi egiteko gizonetzkoekiko konparaketan, ee, bi aldiz ongi egin behar duela errekonozimendu maila bera izateko, zuk zer esango zenuke? Aldatu da?

Estitxu: Bai bai, izaten ahal da, ez? Erran nahi dut eh... beti, beti kuestionatuko da gehio, ez? Edo, ez?... beti jarriko da.. biño... beti jarriko da... gehigo begirada hortan ez?... biño bueno nik uste dut... hori dago, hori ere pertzepzion arabera dagola, ez? Batzuk egingo du, batzuentzat hola izango da eta bertzentzat guttigo, ez? bertzintzat ia emakume izatea hutsakin, erdia ia inta, igual baloratuko zattu berdin... badakilako zailagoa dela atetzia badakilako gehio landu behar izan duzula ta badakilako gauza pila bat, ez?... iruditzen zait pixka bat orokortzea dela, ez? Eta... bai... alde batetikan batzuntzat bai izaten ahal dela hola, biño bertzintzat ez dula hola izan beharrik.

Zaira: Eta... bueno egun jada zuk zer errango zenuke, bertsolaritzan jartzen diren gaiak, neutroak direla edo oraindik ere agian gai batzuk...

Estitxu: Nik uste dut gai-gileen taldetan in dutela kristongo esfortzua zentzu hortan, ez? Eta adibidez, Nafarroan dugun gai-gile taldea, ez diozu arrautuko zirrikatu bat horrerri emango diona tarterik, bai igual formulaziotan, igual zure emaztea joan da, ta alabak ez dakit zer... ta ordun bai ia ari zara estereotipo bat markatzen gaia ematerako ordun, baina nik uste dut urteetan, azkeneko urtetan, gauza horiek hagitz hagitz kontrolatu direla, eta igual erran beharrin, ama eta atta, erraten da gurasok edo... zentzu horretan euskarak badu abantaila handia, ez? Uste dut gaztelerak eta... Bestetikan hasi ta euskarak badula neutrotasun hori hizkuntzan eta, eta gainera, gai-gile taldeak pues nik uste dut hori nahiko ongi mastikatu dutela eta batez ere, txapelketan, ez?

Gero, oroitzen naiz ni, orain dela bi urte, Goizuetako bertso saio batetikan Maialen ez dakit nola joan izango zen etxera, biño uste dut negarrez joan zela, gai-jartzaile batek, biño biño hola... gaiak biño irudi zun 60. hamarkadako gaiak, ez?... Ordun bapatin ikusten duzu ba lehen aipatu duten Irungo saioko bertso hori bezala ez? Irudi du baietz, irudi du dena dagola superatuta... txapelketako gaiak dire neutroak ez dakit zer eta gero joaten zara herri batera ta erran duzu buaaa, hau ere Euskal Herria da, ez?... ez da... ez da bertze hura bakarrikan... ordun bai arrautzen ahal ttuzula...pues, klaro gai-jartzaile bezala edozein jartzen ahal da edozein herritan, ez?... normalin taldetan egiten diren gauzak, pues ia badaude irizpide batzuk eta ia ez da eroitzen holako gauzatan... Baino banakako baten esku eta... segun nongoa den, pues baduzu arriskua, astakeri batzuk aditzeko.

Zaira: Azken batean, bueno gizarte maskulino horrekin ere bai lotuta daude gauza aunitz ez, ez dakit...

Estitxu: Bai ta, zuk ikusten duzu, zuri iruditzen zaizu joer pues orain erraten nizuna, gai egilek ta Nafarron badugu kristongo gai egile taldea eta neutroa eta euskaraz eta ez dakit zer... ta gero joaten zara holako batera eta to hartzen duzu hor... denak ez gara ari erritmo berin, ez? Hemen badago jendia... holakoa...

Zaira: Eta, bueno gero batzuetan epaimahiari ia dagokionez, erraten da emakume eta gizonen artean edo txapelketan agian objetibotasun eza hori egoten dela edo... zuk zer errango zenuke?

Estitxu: Ni ez dut uste emakume eta gizonen artin... hoi ere, hori igual matematika-koki frogatzen ahal zen, ez? Ez dakit eh? Biño ez zait iruditzen holako... diferentzia handirik egon denikan eta inoiz ez da markatu ere... adibidez, gu hasi ginenikan, ez zen emakume bat bera ere, bat bera ere, epaile eta orain... uste dut erdiak... edo pues igual bat gehigo izandu direla aurten, erdia baino gehigo, erran nahi dut kopuruz ari direla berdintzen, eta epaitzeko irizpideak nik uste, pertsona bakoitzak bai badula erran nahi dut, bertso bat adittu ta 0-tik 10-era puntuatzeko, hori bezain gauza zailik ez dago... ordun emakumea izan... edo... Aralarkoa izan, ez? Orain badago hola horrekin polemika, ez? ze partido politikoakoa zaren eta ze postu duzun...eta... edo... zer ze... bueno hori... beti izan da ze eskualdekoa zaren... Bizkaitarrak guttiago puntuatu dio Nafarrari...

Zaira: Azken denak kriston...

Estitxu: Nik uste dut justu emakume izan edota gizon izan dela polemika guttien eragin dun, bai... identitate atala, bai?...ze bua herrialdekoak eta bai... eta orain partido politikokin ere bai badago... gu hasi ginenikan apezka ere bazen...ta bira guk erraten genitula astakeriak, bua apezak, epailek, bua gaur egun hori ez zen, ez da ikusten ahal... nik horrerik adibidez, ez zait iruditzen eman zaionik garrantzia eta eragitten dunik ere ez... honbre dudik gabe, zure identitatearen zatia da eta nik badakit ee, Nerea Bruñok aditzen badu Alemanen burrada baten bat igual, ez dula igual, ee, bertze mutil batek haina penalizatuko, ez? Biño... bertze... zure identitatearen zati bezala, ez?

Zaira: Es que subjetiboa da azkenen, ez?

Estitxu: Hagitz, dena da subjetiboa, ez? Zu emakume izatek ere eragingo du puntuazioan. Azkenin bertsolari txarra izan, batzutan igual, pues, pixkot baldin baduzu tendentzia feminista ba orduan beti bazoaz pixka bat gorago, baino beti ere baloratu behar duzu bertsoan, a ver rimatu dun, a ver... igual, igual da bertsoa super matxista, baina igual gaiari lotu zaio super ongi...erran nahi dut, behar duzu distantzia hartu ere bai, igual erran du gaiak ere gizonak ez dakit zer edo ez dakit... edo ari zara, edo ari zara... nik egin izandu dut, hartu faszista baten rola... baino, zuk badakizu, epailek ez dutela tendentzia politiko hori, ez? Rol bat asmatzen ari zarela... zaila da biño...hoi nik uste dut horre buruz... ez dut uste...

Zaira: Justu emakume izatea ordun...

Estitxu: Uste dut guttina eragiten duna izanen dela, eh??...ez dakit ez, eragingo du bai...biño...

Zaira: Ez nun entzunda eskualdeko hoi... baina bueno badauka bai bere...

Estitxu: Buff, bai bai bai, bai bai bai, jaleok... jaleo seguru.

Zaira: Ta gero pixka bat ia, zu, pues bertso-eskoletako irakasle izanik ta hola... ee... zure garaitik edo... bertso eskoletan bueno, behin aritu zinan eta hola... ee, aldaketa nabaritu duzu? Edo... bien artean konparatuz, zure garaitik...

Estitxu: Nik uste dut ee...

Zaira: Lehenago dena berrian zen eta...

Estitxu: Bai, hasten dire neska gehigo, orokorrin hasten dire neska gehigo eta gero.. e... nerabazaroko salto hori, hortan eroitzen dire aunitz, aunitz aunitz eroitzen dire. Biño erran barra da adibidez aurtan, 14tik 18rakun, hola buruz ai naiz, bat bi hiru mutil izango zirela, lau ere bai... eta sei neska... pixko bat zaila izan da, 14 urteko adin hori osea, gainditzea...

Zaira: Pasatzea.

Estitxu: Hori, hori izandu da zaila, biño gauza guztik bezala... pues ereduk emanda ta normaltasuna hola da... biño lehen aipatzen nun bezala, plazaratze hori, ez? Beti izandu da hagitez maskulinoagoa, ez? Ta ordun, nik uste dut hori orokorrin, bertso mundun, nahiz eta eredu bat izan, nahiz eta Maialen Lujanbio izan txapeldun, ee, oraindik kostatzen dela, bai?... Biño iruditzen zait ee, begitzen duzula edozein ee... bestara atetzen direlikan gaztetxuk eta, ta baita ere ikusten direla rol hoiek, ez? edo mutilak espazio pila bat okupatzen dute eta neskak ee, xoko batin solasin do... pixko bat hor ikusten dire, ez? Ere, aldaketa bai badago, dudik gabe hobera... biño nik uste dut ez dela gaitasuna araberakoa oraindik, ez? Nik uste dut emakume pila bat izango zirela gai, biño lotsa horrek, plazara ez igotze horrek, pixko bat gibelera botatzen ttula... eta kopuruz nik uste dut, ee, nabarmen izango direla neska gehigo mutilak bino bertso eskolan... nahizta gero ailetzen direnak...hor porzentajea...

Zaira: Porzentajea, desagertzen da...

Estitxu: Ematen dio buelta... biño, adibidez, gai egile taldin edo epaile taldin, ia ez... nola ez duzun plazara ateri behar eh?... Hor dago emakume pila bat lanin ere bai, eh? Sukaldeko lana leno aipatzen nun bezala. Nahiz ta gero, hor batek luzitzen dun ta batek irabazten dun zapela, biño bat hori horra ailetzeko jende pila batek in bar du lan...

Zaira: Azken batean, errango zenuke emakumeak agian lotsatiago, perfekzionistagoak direla igual, ba agian erran arte, bai ia ongi egiten dut, beraz, orain salto egiten dut edo agian hori da...

Estitxu: Bai, bai, nik uste dut baietz, bai bai bai. Nik uste dut gaitasuna bera izanta, mutilak ematen dula errexago pausua neskak biño, nik uste oraindik horrela erraten ahal dela.

Zaira: Eeh, bueno bai... ee, badago diferentzia agian, talde beraian artean? Nahi dut erran, agian orain mutil eta neskak, agian beste modu batera do elkartuagoak daudela lehenago baino... nahi dut erran agian lehenago bazegoela diferentzia oso markatua eta bueno nola gutxi zintan edo...

Estitxu: Nik uste dut gaur egun ere, nik eskola ordutan, batez ere egiten dut lan 6. mailan, 5, 6. mailan eta orain ere erraten duzu jarri binaka eta neskak neskakin eta mutilak mutilakin, eh? ta... nik, nik bazilatzen diet, a ber, zer da hau monja eskola bat? Zer da hau hola bereizteko, ta ordun bazilatzen diet ez dela ezkontzeko, eh? dela itteko bertso bat, eh? Lasai, eh? Ta patzen dire kriston tentsiun elkartu behar dutenikan, gero igual 14 15 urtekin ematen diote buelta baina 10-11 urtekin oraindik eurek bereizten dute euren burua, eh? ez duzu zuk bereizi beharrik edo taldea berezi beharrik edo...

eurek dire... neskak ta mutilak edo... edo korro bat egin behar duzu... dudik gabe, neskak neskekin... baina klaro... bada momento bat neska batek egon eman behar diola mutilari, ez?... Korro bat...

Zaira: Bai bai bai bai.

Estitxu: Pues jaleoa seguru. Bai, da gauza bat. Nik uste dut guk... ez dakit gure ikastolako lehenbiziko urtetan.. ez dakit.. saiatu ziren hortan edo zer... nik uste dut gure generaziuk zentzu hortan izan zitula osea... pixko bat gibelera ez ote goazin zentzu hortan haurtzaroan behintzat gero hola biño... ni harritzen naiz... ni ustez gu ez ginen holkok... edo igual ahazten zaizu... igual zinen holkoa ta ezitzaizun... baino paratu binaka eta neskak neskekin eta mutilak mutilakin ta... edo launaka, ta badaude hiru mutil.. pues ia...ia... neska bat hor ezin da izan!... Klaro normalin ta azkenin in bar duzu zuk taldik ze bertzelaz... ze badago...bai bai, beti bakarrik gelditzen da berdina...beti... uste dut gauza batzutan pentsatzen dutela baguzila gibelera...

Zaira: Gu gure klasean behin kontu eman ginan aste batez egon ginela jartzen mutilak eta neskak, asike... eta hori ia 23 urtekin...

Estitxu: A ze hori unibertsitaten?

Zaira: Bai.

Estitxu: Bai bai hori da gauza bat... azkenin apezak eta monjak asmatu zuten, eh? Banatu eta fuera...(..) hainbeste hezkuntza alternatiba eta egiteko hori... pues ez dakit, zerbaitetan fallatu... edo joera naturala hori da... igual da antropologikoki ez dakit zer... igual hola zen duela 10.000 urte...

Zaira: Bueno ordun orokorrean erranda, ee, bertso eskoletan, gazteen artean, zein txapelketa nagusitan orain zuen artean ta hoi, gizonak zein emakumeak maila berean daudela errango zenuke? Osea, kopuruaz gain, pertzepzio mailatik... eta... galdera pixkat...

Estitxu: Zaila da galderaren erantzuna, eh?... es k ia kopuruz ia ez gara igualak hasteko, oraindik ez gara igualak. Ordun ia, zaila da erratea pertzepzioak, nik uste dut ia... ni joaten banaiz kantatzera ia ez da emakumea naizela bakarrik... jendiak badaki, nondikan heldu naizen, zertan lan egin duten, zer pasatu zaidan bizitzan... ez duzu ikusten emakumea bakarrik...

Zaira: Ia lista bat da...

Estitxu: Ia... nik ikusten dut... hasten zaren lehenbiziko egunin ere... ikusten zattuzte eta... edo... Joar, aurtan zuela lehendabiziko txapelketa. Lesakakoa da... pues ibili izango da bertso eskola honetan jendik ez du ikusten bakarrik neska dela... nik uste dut galdera horren erantzuna izateko hori... hasteko, kopurua izan beharko ziren erdi ta erdi, pixko bat ikusteko, ez?... Ez da bat, dire bi...ta... iruditzen zait zaila... biño niri iruditzen zait... baietz, jendik ee... jendik ikusten dula bertsolari bat... ta bertsolari hori kantatzea gustatzen zaio edo ez zaio gustatzen... dudarik gabe, batzuk emango diote garrantzia gauza batzuri eta bertziak bertziri... edo errango dute... emakumeak ez du umorerik itten, ez? Bueno... igual ez du umorerik egin nahi... badaude gizon pila bat

egiten ez dutenak ere! Ez da hain errexa egitea... ez dakit... zaila itten zait galdera horren erantzuna... zaila da... zaila delako, eh? erran nahi dut...

Zaira: Bai bai bai, azkenean, hala da, eh? Bueno eta ia zure ustez, puntu batzuk edo aldatu beharko zirela uste duzu? Agian bertsolaritzan edo... baita ere...

Estitxu: Nik ikusten dut bertsolaritza, lehen ere aipatu dut, da gizarten pasatzen denaren ispilu, ez? Eta... gizarten aldatu behar diren bezala, pues, pues bertsolaritzan ere aldatuko dire, ez?... zaila da bertsolaritzari eskatzea, ee... gizarteak ez duen gauza bat, ez?... Dela, ez? Ekibalentzia edo... parekidetasuna edo... ez dakit nola erran... ez ordun, gizarten ez dagon bitartin zaila izango da bertsolaritzan izatea. Nahizta iruditzen zaiten izaten al dela eredu, eh? Eredu bat eee, pues bertze, bertze gizarte batzutan erauteko, ez duzu arpatuko... adibidez, elkar konpartitzen dugu... hori bertze mila gauzetan, ia bereizten da, ez?...Ta bertsolaritzan elkarrekin konpetitzen dugu, eta ia emakume bat ailetu da irabaztea denari... Euskal Herriko hobena izan da, uste dut nik imaginario kolektiboan nahiko pausu handia dela. Iruditzen zait, zaila dela bertsolaritzari eskatzea, baina ere berin, bai dela, eredu izan daitekeen kultur ekintza bat.

Zaira: Bai, azken batean, maila berean ez egote horrek edo bueno arrazoia bera, agian sustraia bera, gizartean egon daitekeela, ez? Gizartearen...

Estitxu: Bai, bai, eta... bai eta... azpimarratuko nun gai honekin hasieran erraten nuna, ez? Emakumek in ditula gauza pila bat ez dela plaza, ez dela txapela, baloratu beharko lirakeela,... gehigo uste dut, ez? Ze gaur egun ailegatu baldin bagara, zerbaitegantikan da...ta hasten bazara pentsatzen ez da Baserrik irabazi zulako txapela, da baserri pila batetan, pues kantatu zelako, transmitituko zelako...ta memoria ere landu zelako... eta hortan iruditzen zait dudarik gabe, emakumeak izango zula aunitzez ere paper garrantzitsuagoa.

Zaira: Ba bueno, ba hoixe zen gutxi gora-behera guztia... en, milesker eta ez dakit zerbait gehitu nahiko zenioke... oo, zer iruditatu zaizu?

Estitxu: Nik uste dut kriston txapa sartu dutela ia... (jejej)

Zaira: Ez ez ez, jo baino. Eskermila eta...

Estitxu: Ez da ezer. Bale.

LEHENENGO ZATIA:

SARRERA:

Bueno, hasiko dugu hitzaldia, eh?...

Aipamen edo sarrera txiki bat eh...ba antolamendua badagoela edo existitzen dela adierazteko ba... aipamen bat...

Eh... Bueno bertso kritika ekimena, bertso eskolak egindako edo bueno, zerbait ekimen berri bat egindako eh, gauza bat da eta... duela 5 urte edo, hasi ginen zenbait hitzaldi ezberdinak ematen... ba nola epaitu, (...) nola gaiak jarri eta zer den gaia jartzia Karlos Aizpuruakin, bertsoaritza eh... eremu erdaldunetan, eh, Oihane Preakin... bertsoaritza eta umorea Amurizakin eta... baten bat badago tartian...ahaztuta daukadana... baino bueno...eh...

Bide hortatikan ere aurten tokatzen zaigu bertso kritika

Eta pentsatu dugu ba bertsoaritza emakumeen ikuspuntutik edo bueno... azkenean eh, izenburuarekin hola ibili gera, baino bueno...

Ba, gure ustez, ba bertsoaritza emakumeen ikuspuntutik izan zitekeen...biño bueno bertsoaritza eta emakumea dator...

Gero bertso kritikarekin batera, hitzaldi honekin batera egiten dugu, ba...eh... urtero orain arte egin dugu bertso saioa...Ba...lehen guk antolatzen genitun bertso saioak eta orain GR8 GR12 horren barruan, eh..... bat egiten dugu ... eh... bertso kritika saioekin...

Eta bueno pues Maialenek eh, hitzegingo du ba, Bertsoaritza eta emakumeen inguruan eta besterik gabe...

Eta bueno eskerrikasko etortzeagatikan eta arratsaldeon!!

Maialen:

Bueno ats aldeon eta eskerrikasko!!!

Eh, postura pixka bat akademikoa da hau, emateu ez dakit ze klase eman behar detela baino... ez nago oso ohituta postura hauetara baino bueno, moldatuko gea...

Eh, Bueno tituluari dagokionez eta hola...egia esan deitu zenidatenean ba, bertsoaritza eta emakumea edo bertsoaritza emakumeen ikuspuntutik edo, eh, behar bada... formei edo hitzei ez nien arreta handirik jarri,ze gaia aipatu zidatenean nik segitun banekin ze... osea ze etorri zitzaidan burura eta zertaz hitzein nahi non, ez?...

Eta banekin argi , ba... bueno...

Gure artian edo gure inguruan, bertso eskola eta bertso eskoletako irakasle eta taldetxo batzutan ba gai hau dexente dabilkigulako burutan eta ahotan, ez?... Ba ordun... bueno gaur hemen botako ditutenak batzuk nire ideiak dira beste batzuk beste batzunik, taldekuak... gure burutan dabiltzanak behintzat, ez?...

Ta bueno ba hasteko, ba hasieratik hasiko naiz edo,,, ezagutzen dugun hasieratik behintzat...segurasko... emakume bertsoariek edo bertsoan egiten zuten emakumez daukagun lehenengo definizioarekin...

1452ko Bizkaiko foru zaharretan... ta definizioak dio: *“mujeres que son conocidas por desvergonzadas y revolvedoras de vecindades y ponen coplas y cantares a manera de libelo, que el foro llama profazadas...”*

Hoiek zian profazadorak edo deitzen zaienak eh... hiletetan eta holako... hileta, jaiotza eta holako... ebentotan edo, kantatzen zutenak.

Eta hain zuzen ere ba, Bizkaiko foru horri esker, dakagu bereb berri eta esker komilla artean ze justu lege hau da, kantatzea debekatzen dien legea. Ta horren ondoren esaten du:

Eh... *“cuando quier que alguno que muere en Bizkaia o fuera de ella, persona alguna de todo Bizkaia, tierra llana, villas de ciudad, no sea osado de hacer llanto besandose los cabellos ni arrastrando la cabeza, ni haga aca llanto cantado sopena de mil maraveries a cada uno que lo contrario por cada vez...”*

Bueno alegia, lege hau da, profazadora horien kantatzea debekatzen zien... lege, lege bat, ez? Milla mareberiko multa.

Ordun ba bueno esanguratsua ere bada, ba lehenengo aipamenetakoa edo ba ukapenaren bidez dakigula ba bazirala. Ia, nahiko esanguratsua da, emakumeen... historia definitzeko ere, ez?

Ukapenaren bidez dakigu bazirala eta handik aurrerakoak ere ba... nolabait zeharka jakin degu haien berri ez? eh... ba dakigula (komillak) XV. mendean bere ahizpa hil ta, bertsoak jarri zitula.. Ozaetako zaintzak...

Gero lore jokoetan idazle izan zirela Mari Argain eta Mari Etxegarai...

Hondarrabiko Joxepak Bilintxi bertsoak jarri zizkiola Eta bilintxik erantzun in zizkiola.

Hoiek zeharka dakizkigu eta hoi adibidez, Bilintxik bertsoan zeharkak agertzen direlako...

Joxepa Antoni Petirena, Xenpelarren iloba, ezta? haren bertsoak ere, beste bertso sariketa bat irabazi zun gizon bati erantzunez, harek atso zaharrei jarritako bertso hoiei erantzunez eta...

Pixka bat zeharka dakigu hauen berri, ez?

Ta bueno ikusten zuten bezala, nik ere izenak irakurri in behar ditut, ze... etzaizkit ezagunak, ta? Eta...

Emakume eta bertsoaritzari buruzko hitzaldi guztik segurunak, nahiz eta hemendik hasten ditugun ba inork ez dakigu ezer asko honi buruz, ta... liburutan dexente bilatu behar da ta... eh, oso leku espezifikotara jun erreferentzia hauek bilatzeko...

Ordun hau ia, nahiko esanguratsua da, ez? Historia dakigu pixka bat zeharka eta pixkat ondo bilatuta...

Ukapenaren bidez batetik...eta zeharkako aipamen, aipamenen bidez... bestetik, ez?...

Bien bitarteko istorio guztia galdu in da.

Baino, Badakigu ta beti esan izan dugu ba emakumeak bertsoan egin izan dutela...

Eta nik nere buruari galdetzen nion, ba...

Nola etzuten ba egingo, ezta??

Eh... kantua izan da hain... espresio esentziala... eta Euskal Herrin ahozko transmisio eta bertso mintza bizi dan lekua izan da... pentsatzen jartzen zea eta esatezu: nola ba etzuten bertsoan ingo, ez?

Edo... espresatzeko modu hori nola izango zan gizartearen erdiarena bakarrik! Ez da posible, ez?...

Hoi pentsatzea igual da, pentsatzea bezala, bertso bapatekotasuna, munduan Euskal Herrin bakarrik existitzen zala, ez? Eta orain arte hola pentsatu degu. Bi kasutan pentsatzen degu hola, ezta?

Ta bueno... ba, gure zilborrei begira egon gerala, ez? edo gure senarraren zilborrei begira kasu hontan...

Bueno kontua izan da, emakumea eta bertsolaritzaren arteko harremana beti dela ageria eta ezkutuaeren arteko harreman bat edo nolabait esan analisi hori beti egin behar dala publiko edo eremu publiko eremu pribatua, dikotomia hortatik, ez? alegia emakume bertsolariak beti izan dira baina ez ditugu sekulan ezagutu, eremu pribatueta kantatzen zutelako eta ez eremu publikoan, ez?...

Eta holan... gaur arte.

Eremu publiko eta eremu pribatuaren kilika hori gaur arte, ezta?

Gaur egun, igual, gehitxo irudi dezake hoi esatia, egun plazatan edo bertso munduan, emakumeak ikusten dira, ezta? Esan dezakegu, pausu bat au... hareago daudela, ezta?

Ta bueno ba bai, pausu bat areago bagaude, baino seguruna, oso azaleko gauzetan, ez?

Neska kopurua, emakume kopurua askoz handiagoa da, bistan dagona, bertso eskoletan neska pilo daude...

Eh, axaleko, bueno axaleko ez, ageriko gauzetan, dexenteko aldaketa eman da. Kontua da ta ni gaur saiatuko naiz zuei azaltzen, ea, gure inkoszienteko... zati hortan benetan aldaketa eman dan, ezta?

Emakumea entzuteko garaian publiko garen aldetik, nola entzuten degun, ze ikusten degun, inkosziente piztutzen digun emakume batek esaten dunak... edo gizon bate esaten dunak...

Eta era berean, emakume bat publikoaren aurrean dagoenean, adibidez bertsoan, nola sentitzen dan ez? Berak ere uste dula eta inkoszienteki ze beldur, ze lotsa, ze... prekuizio sortzen zaizkion, ezta?

Zailak dia detektatzen, ez dia oso pentsamendu oso sentimendu nabarmenak, eta.. nik uste hemendik aurrerako apustua, hor daukagula, ez?... horiek detektatzen... ez hainbeste kabadetan, kopuruan eta gauza horietan...

Bueno...

(...)

Orduan eh, pixkat eh, jende aurreko edo... akzio... jarduera publikoei buruz, ez? Emakumeak jende aurrean bertsolaritza izan daiteke kasua, baino bertsolaritza... kasu hontan ejemplua da, gaia berez aurrekotasuna da, emakumea eta jende aurrekotasuna ... eta horren ejemplu bezela bertsolaritza... Baina gauza bera pasa leike adibidez eh... ez dakit... kantari munduan, politikan ezta, ez? Beste mundu askotan... emakumeak paper publiko eta jendeaurrekoa hartzen duenean...

Eta pixka bat hori da planteamendua... eta pixkat eh... ibilbide, kronologiko bat da, ez? Ba... txikitatik edo hasita... eskolatik, bertso eskolatik, bertso plazatik... holako ibilbide bat, ez?

Sentimendu horiei buruz...

Eta... bueno... nahiko irakurketa ebidentemente da, kasu espezifiko eta diferentziak asko, baino orokorrean bastante zaila egongo litzateke analisisa... hor deula...

Bueno hasteko, ba... sozializio prozesu horrekin edo jende aurrean soziedadean portatzeko prozesu horrekin hasteko ba... hasi gintezke txiki txikitatik, ez? haurra haurretatik... Ba nola neskak eta mutikoak desberdin tratatzen dian, balore desberdinak ematen zaizkien nahiz ta... eskolan eta ikastolan ere, nola... eh... adibidez, jolas eremu desberdinak okupatzen dituzten.. mutilek espazio askoz gehio okupatzen duten.. mutilak ohituagoak daude jende aurreko aktibidadeak egiten, kirolak eta abar... neskek igual, jolasteko modua intimoagoa dute, bilduagoa.... Beste jolas tipo bat... elkarrengana bilduagoak ez hain agerikoa... ez hain... ez dute hainbeste leku okupatzen...

Ikasgelan ere berdin.. beno hemen irakasleak zate eta nik baino hobeto jakingo duzute...

Eh... bueno ni ere ikasle izan naiz azken baten, ikasle lana, protagonismo dutenak, gehien okupatzen dutenak, mutilak izaten dia normalki, neskak apalagoak, ixilagoak... eta bueno... hola... labur esanda, txiki txikitako panorama hoi dala bertso eskolara ere,

eta bertsolako irakaslek segituan aipatzen dute hori.. eh... oso ezaugarri desberdinekin iristen dira gaztetxoak, ezta? Oso abilidade ezberdinak dituzte landuta mutikoek eta neskatoek... batzuk batzuk eta besteak beste batzuk..

Ordun, eh... bueno, mutilak normalki axolagabeagoak dira, ausartagoak etzaie hainbeste inporta gauzak gaizki itia, ez daude, ezdaude pentsatzen bestek ze pentsatuko duten beretaz, neskak aldiz beti kontuz, lotsatiago, eh, nabarmentzeko erreparoz.. hoi bueno... bertso eskolakoek ere, esperientzi hoi ikusten dutela...

Eh... eta batez ere nesken bertso eskoletako nesken ezaugarri nabarmen bat da... ez bertso eskoletan bakarrik, oso perfektionistak diela... estitxuk idazten zun bezela behin, perfektionistak autodestruktiboak izateraino, ezta?...

Eta galdera da, zergatik hain perfektionistak, ez?

...

Ba nere ustez... bertsoen kasuan adibidez... ba neska hoiek ez daude ohituta espazioa okupatzen, hitza eukitzen, nabarmentzen... eta bertsoa justu hori dena eskatzen dunak, espazio bat okupatzea, nabarmentzea, ikusia izatea, jende aurrean hitz egitea... eta... ez ote dan... nolabait ez dagokien eremu batean... egotea justifikatzeko... modu bakarra da oso oso oso ondo egitea.

Ez ote dan hori perfektionismoaren arrazoia, ezta? Nolabait, zuri ez dagokizun edo pixkat... zuretzako egina ez dan eta zuri tokatzen zaizun jarduera batean ai baldin bazea, ba perfektu egin behar dezu, ze bestela... ze ai zea hor, ez? nabarmentzen... bistan, ez??

Ez ote dan hori... arrazoietako bat, ez? Perfektionismo horrena, ezta?

Eh...bueno... hortxe, ejempluak asko daude...

Bat oso-oso absurdoago goatzen naiz nei pasatakoa, oso ridikulu da, baina iruditzen zait esanguratsua dala...eta etzan umeetan izan, baizik eta 2001an. Eh...

Saio bat zan, saio potolo bat Altzon ta... txorakeri bat da baino.... Galtza piratakin jun nintzan...eta...

Bueno lehen esan detena, detektatzea inskoszienteko asuntu horiek... ba... geroago konturatu nintzan nola egun hartan, nere buruari saioa hasi aurretik esaten nion..., gaur ondo kantatu behar duzu, eh?... galtxamotxekin etorri zea eta ondo kantatu behar dezu... zelan bestelaz esango dute hau ze etorri da bere modelitua pasiatzia ez? Bere..., ez?

Ordun geroago konturatu nintzen eta ez momentuan... iruditu zitzaiten.. oso anekdota... ba inongo inportantzirik ez daukana... galtza pirata batzuk, baino ba... beste dimentsio batzutara eramanda pentsa, ez?...

Ta nola buruari esaten nion ba... ondo kantatu behar dezu ze bestela esango dute...

Ta esango dute hori nire ustez, bai bertso eskoletan bai gero oso barneratuta daukagun gauza dala, ez? eta beti rekonozimendu horren bila gabiltzala... kanpoko errekonozimentua... eta hortik hain perfektu egin nahia eta ongi egin nahia...

...

Baita ere bertso eskoletako irakasleen ahotik jaso ba... bertso eskolak heziketa espezifikoa bat pentsatu beharko lukela, bakoitzaren, nesken eta mutilen beharrei egokitua. Ezin degula egin, ezin degula denak berdin tratatu. Ba bakoitzak behar batzuk ditulako bakoitzak dohai batzuk landuago dituelako beste batzuk baino. Ezta?

Horren ejenplua, Estitxurena bai, ba nola esaten zun ba bertso eskoletan beti, topikoki edo, nola esaten dan eh... jarri tente, kantatu ozen eta atera bularra, ez?

Eta igual edade baten, nahiko lan daukazu titiak disimulatzen... ba...

Bularra atera eta oze kantatzen aritzeko, ezta?... pixka bat...bakoitzaren beharretara egokitutako bertso eskola bat egin behar dAla... bestela...bertigoa daukan jendea puenting jartzen egiten ai gerala, ez?...

Urte batzuk... aurrerago baita ere... bueno.. lehen perfekzionismoakin eta...segituz ba baita ere aipatzen zuten eh... bertso eskoletako irakasleek, eh... Bertso eskola idatzizkoa balitz, neskak zoriontsu izango zirakela... eta hoi ere esanguratsua da, ez?

Baita ere oain dela egun gutxi, mahai hoiaren artean, entrebista batean, berrian, jende aurrean kantatzea berai etzaiola gehiegi gustatzen, berak nahiago dula aukeran jende artean kantatu, ezta? Ta orduan ba bueno... ustet esanguratsua dala ba...nabarmentzearen idea horrekin, ezta?

Bueno... aurrerago... bertso eskolako haur izatetik pixkat gaztetxoa izatera edo pasatzean, 15-16 urtekin... edade hortan bueno estadistikoki, bakizute bertso eskoletan neska pilo bat egoten dala eta edade hortan askok eta askok uzten dutela, ez? Eh, sozializazioarekin harremana dauka nire ustez horrek eta azaltzen ari garen guzti honekin... azken finean, eh... neska horien larruan jarrita... noiz sentitu du... noiz sentitu dute eurek, ez?, edo emakume batek noiz sentitu du bere hitzak garrantzia daukala...

Hezkuntzak, ez? Hezike... hezkuntzak...hezkuntzan noiz bultzatu da hori, ezta? Eta noiz sentitzen du emakume batek bera esateko aukerak jendeagan interesa piztuko duela... inkluso mikro batetik esateraino...

Mikro batetik esateko gauzak dauzkala, ez?... hoi hezi... hezkuntzak... ez gaituzte edo... hezi... inportantzia emateko gure hitzari, ez? eta... eta lehen esan dedan errekonozimendu behar hori badakagu eta ordun... 14-15 urterekin ez da harritzekoa neskak... ez jartzea mikro baten aurrean eh... 200-300 pertsona publikoa baten aurrean...

Ze azken finean, hezkuntzak... eztakit... pentsa dezakete... gai intimoak direnak, beraiantzat gai intimoak direnak eta beraiantzako interesanteak direnak... ez direla jende aurrean ematekoak... eta alderantziz... gai sozialak eta gai inportanteak diranetan, beraiek ez daukatela zer esanik, inportanterik...

Ordun...ez da harritzeko hor eh... Beldur hoi sortzea, ez? Beldurra eta... autogutxiespen hori, ezta? Zure intereseko gai intimoak, sozialki ez dira interesanteak eta hoi ez da bertsolaritzan bakarrik pasatzen, bertsolaritzan ere bai.. gizonen gaiak ba.. unibertsalak dia, denonak dian, ez?

Nik beti kontatzen dut...beste anekdota tontoa da baino... milaka saio egin ditugu guk burusoiltzeai buruz eta Lopezi buruz, milaka ta milaka ta... ez da nekagarriya... zuk hortaz kantatu dezakezu, saioak eta saioak egin ditzakezu horri buruz... baño gaia neutroa da, ez du nekatzen...

Aldiz, ba neonek daukat rekuerdia Irungo Amaian, saio bat eta, gero jarri ziguten depilazioaren inguruan eta... hiruna bertso geremazkin eta ni ia inkomodo neon, ia saten nun, ia jendea aspertzen aiko da gure kontu honekin... eta momentuan ordun ere etza hor konturatzen eta gero irakurketa itezu eta esatezu joder... nik milaka saio in ditut, hor bestelako gaiei buruz, baño... ez depilatzeko buruz hirugarren bertsoan ia.. esatenun ba... jendea inkomodoa eonen da...agobiatzen egongo da gure kontutxoekin ta hola, ez?...

Ordun, gure kontu intimoak, intimoak edo komilla artean e bueno, ez dira interesanteak sozialki eta gero... sozialki... inportantzia daukatenak daukaten gaitan, ba emakumeen hitza ez da oso garrantzitsua, ez?

Ba bestelaz or dao, adibidez ahotsak bezalako ekimen bat, ez? Hor dao... alderdi politikoetako emakumeen akordio bat... alderdi politikoetako gizonen akordioa balitz, ba ia akordioa egina egongo litzateke eta ia bukatua dena...

Baina... alderdietako emakumeen akordioa ta orduan ez da ezer aldatzen, ez da ezer pasatzen, ez da inportantea, ez?

Virginia Imaz-ek esaten zun bezela, batzuk gauza inportanteak egiten dituzte eta besteak inportanteak dira eta emakumeak lehenengo taldean daude... ta hoixe...

Eh, bueno, jende aurrekotasunai buruz ai gerala, baita ere badago beste bariante bat inportantea dena nire ustez... ta da... eh, jende artekotasuna...

San nahi det, eh... bertsolaritzak badauka, ezaugarri bat, bertsolaritza ez da bertsoak kantatzea bakarrik eta ez da herri batea jun eta... bertsotan egitea, ez?... kasi gehio da beste guztia, ez? Periferia guztia ba... jendiakin eon, saio aurreko kontuak, saio ondorengo kontuak, eh... bazkariyak, afariyak... oso kontestu diferentetan... ta hoi da bertsolaritzaren ezaugarri handitako bat, ez?... Eta pentsa 15-16 urteko neskato gazte bat... guri tokatu zitzaigun bezala, ez?... Ba... beraiantzat oso harrotzak izan leizkeen kontestuetan, ez? Adibidez, eh... soziedaderoko afari, bazkari... eh... kirol elkartetako ez dakit zer festa... bai adinez... ze normalki jende helduago ibiltzen dira eta bai normalki ni ibili naizen bezala, gizon artean ibili naiz, ez? gizon heldu artean, ezta? eta... ba hoi kurioa da, ez?

Lehenngoan Koldo Izagirrek esaten zun... bertsolari izateko entzule ona izan behar dala... edo behintzat entzule ona ez dana ez dala bertsolari izango, sekula, ez?

Eta uste dut holako kasuei erreferentzia egiten ziela...

Holako, zuk bertsotara zoazenian, 15-16 urtekin adibidez, eh, Lezok onik zer dakit, Lezoko baserritarren egunera, ba... ba hor interes bat bilatu behar duzu, edo interes antropologiko bat, soziala edo linguistikoa edo nolabait ere interes bat... eh... bestela... errexera da nekatzia... zure ibilean ezin zara ibili astero zu baino 40 urte zaharragoko jendeakin, zure girokoa ez dan jendeakin, ezin zera ibili.. gustora... eta kontestu horietan, ba ze entzuten dian, bueno orain gutxigo baino orain dala urte batzuk ibili ginanian.. ba umore aldetik... emakumeekiko aldeko erreferentzia aldetik, entzun ditzakezu bueno... kristongo pedradak, ezta?... Egundokoak...

Gu aurrean geundela ere, ba zergatik, ba gu ez gintuztelako ere emakume bezala ikusten... gu ikusten gintuztelako ba igual... neska gazte bezela edo... gure presentzia etzan oso inportantea... eta... bertsolariek ere bai... bertsolariek ere hola jokatu dute gurekin, ez?... Pixkat paternalismoa izan dute gukin, ez?... Ez gaituzte parez-parekotzat jo. Jo, babesten gaituzte, paternalista jokatu dute, ez gaituzte serio hartu nolabait esan... oaintsu arte, ezta?

Eta gure edadeko mutikoekin oso bestelako tratua eduki dute, askoz pareko-parekoagoa. Gu ez ginan hain... ez dakit nola esan... gu ez ginan hain serioak edo...

Hori ez da pasatzen gazteen artean, gazteak gure adinkideekin ba harreman ona izan degu eta beraiek nesken presentzia oso natural bizitu izan dute bertso eskolatik eta netzako eta ustez ondorengoentzat ere, bueno... ezinbesteko baldintza da, taldea, talde kontzeptu hori, ezta? Ta...

Ni orain bertsotan baldin banabil, neurri handi batean da atera ginenean taldean atera ginalako, ta ordun badauzkazu jende bat konpartitzen duna zure mundua, konpartitzen duna zure... zure giroa, zure... eta natural bizitzen duna zure presentzia, ezta?

Nahiz eta igual zaharragokoek ez hainbeste. Eta igual hor borroka bat dago. Baino zure adinkideekin badaukazu igual babes giro bat. Ta netzako bueno, inpreszindiblea da... taldearen babesa, plazaz-plaza ibiltzeko salto hori emateko garaian. Bestela hor mutiko gazte asko erori ditezke baina neska gazte asko dudarik gabe giroa ez dalako batere aldekoa. Edo asko gustatu behar zaizu ambiente hori... baina normalki ez da...

(...)

Bueno eta hola, ba 15-16 urtetatik pixka bat, plazaz-plazako ibilera, ezta?

Aguantatzen baldin badezu barrera, zera hoi... barrera... bueno... fuerte hoi... jende Asko erortzen dan barrera hoi edo... ba gero plazaz-plaza ibiltzen hasi zaitezke, ez? Eta... beharbada gauzak aldatzen ari dira, baina etzait iruditzen hainbeste, gero hitzein dezakegu igual hortaz... nik pixka bat nire esperientzitik kontatzen dizuet.

Hor askotan aipatzen da, diskriminazio positiboa, ezta? Emakumeengan egin da diskriminazio positiboa plazarako salto hortan, ez?

Eta egia da, ba guri... bueno ba... Estitxu Arozena, ta Iratxe Ibarra ta ni ta ibili ginanian ba... gu bertsoan egiteko moduan egon baino lehen, saio pila bat in genun, ez?... Ta diskriminazio positiboa igual horri deituko zaio...

Gu ginan pixka bat ere bai kuriosidadea. Gu eramaten gintuzten area pixkat... ba...begira zer daukagun, ez? Begira ze... ze elementu, ez? Ze... ze bitxo raro daukagun, ez? Ta ginan neska gaztiak ta hola... ta hola plaza piloa in degu, ez?

Ordun diskriminazio positibo hori relatiboa da... ze Andonik saten zun bezala, Andoni egañak, ba deitzeko garaian bada diskriminazio positiboa, baina baloratzeko garaian ez... baizik eta kontrakoa.

Esan nahi det,.. eh... neska batek bertsoan ondo iten dula errekonozitu dezan jendeak... ba... hiru aldiz ona izan behar dula, ez? Behin ondo eginda ez da nahikoa... Ba lehenengo urte... dexentetan ba... neska izateko ona, ez? Gero handik beste urte... mordoxka baten... ba nesken artean onentsuna... eta gero igual... gero... iritsi gaitzke egunen baten ona izatea edo bertsolari izatera...

Baino ordun, hiru aldiz ona izan behar duzu, noizbait esango baldin badute... bertsoan iten du.. ia ez ona edo txarra... bertsoan egiten du sateko.

Bueno... ba lehen... eztakit... izan bar dezu...

Bueno lehenengo egunian, aitu ginan komentatzen, beste anekdota bat gure herrian pasatakoa oain dala bi hilabete... eta netzako oso oso adierazgarria... hau esplikatzeke, ni oso identifikatua bueno oso... ni sentitu nintzen oso identifikatua kontu honekin...

Neskato bat 10-11 urtekoa jun da pilota eskolara... izena ematera...

Eta... entrenadoreak esan dio ezetz... ezin dula izena eman... hoi mutilentzako bakarrik dala ta... ezetz... ba berak pelota... esku pelotan jokatu nahi zula ta berak han apuntatu nahi zula ta... ez... ba ezin zula konpetitu ze konpetizioa mutilentzat bakarrik zala ta neskentzat pala ta hola...

Ta neskato horrek ba, karakterra izan ta esan omen zion... bueno ba... froga bat ingo degu... utzinazu entrenatzen gaur.. ta maila maten badet eta segitzen baldin badet erritmoa, ba... utziko didazu entrenatzen behintzat nahiz eta ez konpetitu. Ta bestela ez naiz gehio etorriko...ta bueno trato in zuten... Ta bueno nunbait, artista xamarra da pelotan... kristongo pasada emango zien denei ta ordun onartu diote entrenamentutara jutea, ezta?. Ba ordun oso ondo ilustratzen du hau oso ondo ilustratzen du, ez?...

Izan behar dezu ona ez... oso ona... oso oso ona izan behar duzu, onartzeko besteekin, ez?... Toki bat, ezta?... Ta hoi ba... bueno diskriminazio positibotik bastante urruti dago...

Gero plazako pixkat eh... arazo... eztakit konketuagaotan edo... gaur egun gertatzen dian arazoetan... ba... adibidez, bat bada... eh... plazarara deitzen den neska... neskak, beti neskarena egiten dula, ezta? Eh... emakumearena egiten du... bai plantelean emakumean papera okupatzen du... neska ia badago eta bi ez dira behar... ze batekin nahikoa da... ta gero aparte ba adibidez... jaialdian ere gaitan ta hola... ba beti... neskaren papera egiten du, ezta? Bueno beti edo gehienetan...

Alde batetik ondo dago,, ba gaiei errealismo handia ematen diolako eta zu ere zure paperan komodoago sentitzen zealako ez dakit zerena egiten baino...

Baino kontua da ba adibidez, fijatzen baldin bagea... gizonezkoen papelak super espezifikokoak dira... super detailatuak.. adibidez, zu abogado bat zara, jubilatuta berria ta azken boladan triste xamar zabilta, kirola egiten hasi zinan ba honi ere utzi zenion... ez daukazu gogorik ezertarako eta hemen daukazu zure emaztea... Ta ordun pixka bat perfil hortako gaiak dira, ezta?... Gizonanak super zehatzak dia ta emakumeak dia emakumeenak, ta puntu, ezta?

Ta ordun plantelean, emakumearen papera betetzeaz gain, saioan ere ze emakume, ta beti emakume ta emakumeak bere generalidadean, ezta?

Esanguratsua da baita ere, ba hoi ba bi neskentzat badirudi ez dagola lekurik. Batentzat nahikoa dala... bueno ba hoi...

Eta... neska bakarrarekin nola nahikoa dan, ba neska bakar hori juten da saiotara ta ordun sentitzen du emakume guztien ordezkaria bera dala, ez? Ta igual hori gure problema bat da... baina hola sentitzen zara ta ordun.. denengana iritsi behar dezu... denen ordezkari hitz egin behar dezu ezta.... Eta hoi problema kreatibo bat bihurtzen da, ez?... beste egoera bateko... baino kreatiboa ere bai... ta gogoan daukat ejemplo bat zehatza ba... 2005eko txapelketan, oaintse... igual goatuko zate... eh...

Nere sentimentua da baino bueno ba.... Unai Iturriaga ta nei jarri ziguten gaia, ez? Hiru seme-alaba genitula ta aspaldi, eh umeak e aspaldiko partez bakarrik utzi ta...o utzi ta gu bakarrik geundela, ezta?... Eta.... Ba nik nola kantatu non, ez? ba lehenengoa hiru ta hiru ta ezta zer...hoi bale, ta gero bigarrena kantatu nun ee, gutxi gora-behera, hiru ume badauzkat ta zurekin bat gehiago... eta laugarrenean ere idea hori beretxua zan, ezta?... ta gero exeri nintzan eta hasi nintzan pixkat analisis iten esan nunarena, eta kriston agobioa hartu non, ez? Bo, haserretu in nintzan nire buruakin. Nik zeatik esan den hori, nik ez det hori sinisten, nik ez dut harremanak ez ditut harremanak hola bizi, ez ditut hola bizi nahi... oso oso modu ideologikoan hasi nintzan analisis iten, ezta? Zer gertatzen da ba... ba lasaitasuna baneukan gero beste gai baten, beste bat aterako al da emakume paperean beste emakume tipo baten paperean eta beste zerbait esango dula... ta hurrengo saio baten eukiko detela nik aukera ere, beste era batera kantatzeko edo... egongo garela, 4-5-6 neska, bakoitzak perfil bat emango deuna... ba hoi lasai kantatuko nun.... ze hoi da emakume klase bat... baina nola ez dagon abanikorik, gai abanikorik, ta bertsolari emakume ez duen abanikorik, ba abaniko guztiak zuk bete behar dituzu edo... behar...zuk sentitzen duzu betebeharra.... Abaniko guzti hori.. abaniko ideologiko eta pertsona estiloen abaniko guztia... ta ordun kreatiboki ba... problema bat bihurtzen da, ze gero hoi kantatzen dezu eta etzea lasai bizi, hoi kantatu duzulako... ordun... bueno... ba... hoi problema bat da, baita ere problema bat da gai honen harira, umorea egiteko adibidez, topiko batzuk behar dirala eta topiko horiek konpartitu behar dituela jendeak eta bertsolariak, ez?... saio hortan Unai adibidez, topikoki jokatu zun... zure ama izango da movile, moviletik deika ta ez dakit zer... nik ere topikoekin jokatu nun baino... topiko... beti erabiltzen dan bakar horrekin.... Horregatik agobiatu nintzan, ez? eta kontua da igual, emakumei erreferentzi egiten dien... topikorik eta umore mundua ez dagola, ez daukagula landua, ezta? Ez daukagu erreferentzia asko... emakumeen gaitegiaren inguruan munduan umorea egiteko... umorea jendeak eta guk konpartituko duguna... ze bestela ez da umorea... jendeak ulertu in behar du... eta or badago problema bat... zu igual topikotan izan zintezke betiko papel... papel... ba orain aipatu deten hori egin dezakezu igual jendeak ulertuko duen bakarra ere hori dalako... edo jendearekin konpartitzen duzun topiko bakarra hori delako... eta hori kriston arazo bat da, ze oso murrizta ze oso mugatzailea da, ezta?...

Bueno ta zu, emakume guztien ordezkari sentitzearen kontrakoa... edo (...) beste alde da... edozein emakume ari danian zu identifikatua sentitzea ere bai, eta ordun sufritzea ere, bai? Zer sentitzen ai dan ongi planteatzen ai dan gauzak... zure ikuspuntuakin bat

datorren.... ez dan interesantea hola esatia... kontra ingo degu, kontraproduzentea ... ta dena zu zea ez? Edozein emakumek hitz egiten badu, emakumeari dagokion gai bati buruz, zu zaude hor, ta ordun sufritu iten duzu ez? Ta hoi ez da bakarrik emakumeekin pasatzen, hoi pasatzen da talde minorizatu gutxitu edo guzikin ez? Euskerakin gauza bera pasatzen da.... edo...eztakit... euskaldunekin Madrilen... denak zure ordezkari sentitzen dituzu eta hori ba da... txikiaren, txikituaren, konplejo kontu bat ez? Ezin lasai bizi, bakoitza pentsa dezala berak nahi duna, ez da zure ordezkaria ezta? Baina sentitzen zea.... Ta hori ez da emakumeen kontua bakarrik ta hori...

Bueno... eta... pixkat plazaz-plazako...dinamikari edo dagokionez ba... orain dabilzkigun kontuak ba gutxi gora-behera horiek dira...

Eh.... Kontua ez da... beti harremanean dago ez?... zu nola sentitzen zan publikoaren aurrean... eta publikoa ze pertzibitzen dun zu ikusten zaitunean ez? Publikoa ari garenean, ni ere publikoa naiz eh? Esan nahi det...emakumeok eta gazte eta zahar, eta gizon eta emazten denak... nola sentitzen gean neska bat hizketan ai danean (...).

GRABAZIOAREN 2. ZATIA:

Eh... saiotara adibidez...

Joer, jute garenean oso gutxitan pasa da... juten garenian bertso afari herria afari batera, bi neska kantatzea... ze sentimentu arraroa dan, ezta? Eta... nere buruai galdetzen diot, zergatik sentimentu arraroa hau da, sentimentua nolabait... ez daukazula zilegitasun handirik... Herri horri kantatzeko, bi neska mikro batetik... Ta hori esan nahi nun lotuta dagola publikoak neska nola pertzibitzen duen horrekin, ezta? Ze... emakumeak egiten duna... emakumeek egiten dutena... normalki gure inkosziente den aipatzen dun hortan, ba ez da oso gauza inportantea izaten ez da oso serioa izaten... prentsan adibidez gertatzen zaigu, ez? Argazkitan, prentsako argazkitan, imaginatu... manifa bat, pankarta bat eta, dena neskak, dena emakumeak pankarta horri heltzen... edo... holako mahai inguru baten, holako prentsaurreko baten denak emakumeak... edo prentsaurreko berean denak gizonak... Oso pertzepzio diferenteak ditugu nahiagabe ere, ezta? Segitun pentsatuko dugu, bat emakumeena dagokiola ba Basaurikio garbitzaileen grebari edo bularreko minbiziaren ez dakit zeri... eta gizonena, auskalo zer azterketa edo nobel sari edo... eta ez da bat bestea baino garrantzitsuagoa baino...minbizi, bularreko minbizia ez dugu esango garrantzitsua ez denik, baina gizarte mailan ez dauka hainbesteko garrantzirik.

Ordun bi neka herri batean bertsoan, ba alde batetik pentsatuta gogorra da, noiz egon da herri bat... bi neskek edo neska batek esango diona entzuteko prest, isilik... ze zu norbait entzuten ari zarenean, badiozu mira bat, errespetu bat, zor diozu inportantzi bat pertsona horri... eta, bi neska gainera bi neska gazte, ze oraindik zaharrak ez daude bertsoan, eta herri oso bat egotea haiek entzuten... ez dakit nola definitu... sentimentu arraroa da... ta nik sentitzen det holako... zilegitasunik edo lotsa puntu bat bezela, aldiz gizon batekin baldin bazaude, errekonozimentua sentitzen duzu... sentitzen zara lasaiago... badago gizon bat eta gizonak errekonozimentua ematen dio denari... prentsaurreko bati ere emango lioke beste pisu bat... ez dakit... EHAK-ko prentsaurrekoak uste dut ez diela berdinak, horko gizon horrek hitz egiten duenian edo...

Pertzepzioz eh? Hola hemen atzean, eh? Inkoszienteki...

Eta... ba bi neskek herri baten aurrean adibidez kantatzen dutenean gauza bera... horren kakua edo nik uste dala... eta... denaren kakoa... gizonezkoak badula aprioriko

errekonoizimendu bat. Ta gero egiten du, egiten duena... ta emakumezkoak baduela aprioriko kuestionamendu kuestionatzen bat, zalantza bat, ta gero egiten du egiten duna... ta horregatik bi aldiz on izan behar du zalantza batetik abiatzen delako, minus batetik... gizonetzkoak ez... gizonetzkoak zerotik abitzen da, neutrotik, aprioriko rekonoizimendu batetik...

Horregatik bertso eskoletan ere mutikoak ausartagoak dira, balientegoak izan daitezke... ze inoiz etzaie kuestionatuko beren izatea, beraien direnak.... Baizik eta zer egiten dute igual... ba neskei kuestionatuko zaie baita dena ere... alegia... zer egin dun... emakume izan da edo emakume izateagatik... edo emakume izan arren... baina beti emakumearen.... Zea bultzada plus horrekin edo minusa eztaikit...

Ordun nire ustez, hau da kako hauetako bat, ez?

Gizonak aprioriko errekonoizimendua badu ta hortik aurrera egiten du eta neskak aprioriko zalantza bat du... ta ordun hortik aurrera bidea luzeagoa da, ezta?

Horrekin lotuta... kuriooa da nola... emakumeek eh... Nola aprioriko segur... eh... ze a hoi garantia hori ez duten ematen, nola segirudidadik nola ez duten... jendeak ez du segirudadekin, ez? Euren buruz... nola adibidez bertso saiotan eh... publikoak orokorrean, sufritzen dun neskak kantatzen ari diranean, ez? adibidez, eskualdeko txapelketetan, edo gaztetxoetan ba... neskato bat gelditzen danean edo isiltzen danean.... Gehio sufritzen du publikoak eta beti ba... aupa neska!!! Bat, holako bat ateratzen da, ez?

Ez bakarrik gaztetxotan, adibidez, goatzen naiz, 2001eko txapelketan beledromonoan, buruz burukora pasa nintzan Andonikin... eta handik puska batera... Oñatiko bertso zale zale batek esan zidan... joder ikusi zintugunean han belodromoan zu bakarrik Andonikin pentsatu genun, gaxua gure Maialen... Ai ama hor bakarrik hainbeste jende ta.. heutsiko al diyo, ez?...saten zidan ta nik saten nun joder... puntu hortara ailetuta ba ze ingo duzu...bueno... eztaikit...ai beno hoi... san nahi det eh..., ez? Hola, beak inseguridadea sentitzen zun, ez? Osea, seguruno beste bat pasa bazan ez zitzaioa hoi pasako... beste 7tatik beste edozein izango bazan.. gizonak etzun sufrituko ta etzun esango gaxua... eta ai ama... baino sufritu... inseguridadea sortzen, neskek, ez?

Eta hau.. detaile bezala beharbada... jendeak sentitzen dun inseguridade horrekin, ez ote dan horregatik hainbeste aipatzen dan eh... bertsoan dabilzan neskak ezaugarri maskulinoak eh... forzatzen edo nabarmentzen dituztela, ez? Baita ere, beste antropologo batek dio eh... bertsoan dabilzan emakume denak gorpuzkera sendokoak diala eta ahots sendokoak... Eta beno, egia da, adibidez Arantzazu Loidik aipatzen zula, beak bere ustez bertsoan ez zebilela ahotsa oso xumea eta ahula zeukalako, ezta? Ta ez ote daukan horrekin loturarik, alegia, jendeak nola inseguridadea sentitzen dun neska bat ikusita... ez ote dan behintzat pittin bat seguruago sentitzen ba neska hoiek sendoak... osea... gorpuzkera sendoak diranian ahotsa ozenagoa dutenian... ba publikoa bera ez ote dan pixka bat lasaiago sentitzen... eta bestalde sendotasun horrek eta baita ere lotura dauka Euskal Kulturaren tradizioan bueno, tradizioko presentziarekin... indarraren irudiarekin eta hola... Baino horrek ere ez ote daukan loturarik, ez? gorpuzkera... ahots, ahots tipoak eta abar, ezta?

Hoi, bueno galdera bezala komentatu dezakegu...

Eh... ta bueno... ba hola pixkanaka-pixkanaka ba hola kontatuta, badirudi kriston kalbarilloa dala bertsoan itea ze ez dago dena... kristongo arazoak daude Ta bueno ez da igual gezurra, ez?... Eh, egia da nik hau dena kontatu in dutela pixka bat, nolabait ere, aurretik atzera begira... nik igual daukat sentsazioa fase hauetan pasa izan naizenean, ez naizela konsziente izan edo ez naizela oso konsziente izan gertatzen ai zana edo ez naizela oso sensible izan gai honekin. Ta behar bada orain pentsatu beharko det ba eskerrak, ez? ze bestela igual mindu ingo nintzan ta... nekatu ta... paso

ingo non, ez? Baina momentuan igual ez naiz igual oso sensible izan... ta nik kristonak aitu ditut eta... egon naiz soziedadetan, ta egon naiz attonekin ta kristonak san dituzte nere aurrean... baino bueno nik ere... eztakit... bueno... nahiko.. inpermeable izan naiz hortara... baita ere igual, ez nulako zilegitasunik sentitzen ezer esateko ze besten terrenoan neon ta beraiek esan zezaketen baino nik ez... ta ni baimena eske ai nintzan hor pixkat urratzen... Hoi ere izan leike horregatik.... Baino behintzat egia da ez daukatela... enaizela hain sensible izan kontu guzti hoie...hoiekin gertatzen joan diran hala eta orain bai nagola sensibleago, ezta?

Eta bueno, pixka bat aurrera begira nik ustet, gure apustua dala... inkonsziente hortaz, konsziente izatea, ez? Gertatu zaizkigun, pertzepzio, tranpak hoietaz, ez? denok ere baditugunak denok, denok ditugunak.... Ba horietaz konsziente izatea eta gure jokaerak zeren araberakoak diren konsziente izatea. Eta hor gertatzen direnean gauza inbisible guzi horiekin alerta egotea, ez? Batetik hoi, eta gero beste kinka bat aurrera begira, nik ustez, jarrera aldetik da... nola jokatu, ez?

Nola jokatu gai honekiko... egin... edo aldarrikatu..., ez? Ez gara kontraesanean... igual biak egon leizke, ezta? Baino aldaketa hauek adibidez emakumea bertsolaritzan edo baita beste gai asko ere lehen aipatu ditugunak, euskeranak eta abar...

Nola sartzen jun, nola jendea sentsibilizatzen jun, ez? Eh... oso pose kontrolatutan eman behar da ze bestelaz... jendia enpatxatu egin leike, ez?

Eztakit, lehen tituluakin hasi gea eta hitzaldi honen titulua ere emakumea eta bertsolaritza, gaia hori izango zan... eta nik titulu hau ez nun nahi izatea baino berandu ibili nintzan... ta zeatik ez nun nahi izatea? Beti gabiltzalako emakumea eta bertsolaritza, emakumea eta literatura, emakumea eta politika, emakumea gora, emakumea bera, emakumea ez dakit zer emakumea badakit zer... eta azkenian bihurtzen zara hori... gai hori... eta okerrago dena, gai hori bakarrik, ez? Eta... jendea iritsi leike zu ez entzutea, beti gai horren bueltan zabilzala sumatu ta.. pixkat eh... belarriak frekuentzia horri ixtea... eta... bueno... gai horren bueltan beti aritzea nire ustez ez da txarra... baina jendea ez entzutea bada txarra... oso txarra... ordun nola egin, ezta?

Nola neurtu dosiak, efektiboa izateko. Ta hoi bueno... hoi ustet eh...borroka guzitan eh... planteatu leikeen zea... bertsolari batek aspaldik esan zidan... nik asmatu nula bertsotan, asmatu nulako (...) bertsolari batek behin esan zidala ni bertsotan nebilela, asmatu nulako neurrian ez? Beti neurri egokina, ez? ba adibidez ba... sexuan inguruko gaitan...ta gai pixka bat pikantitan berak saten zun bezela, zirikatu bai ta sartu bai, baina pasa gabe, beti txukun, beti neurrin ta... moskeatu nintzan berakin ze esan nun... joder... neurria ere zuk jartzen zu, ezta? Ta ordun zuk soportatzen duzun dosia ematen badet ongi ta bestela ez... ta azkenian neurria ere oso dosi txikitan eman behar dezu ze bestela... baina klaro era berian normala da... zuk beti kalkulatu behar dezu hartzaileak ze dosi hartu dezakeen, hartzaileak ze kopuru soportatu dezakeen, ze bestela etzea efektiboa... zu kristongo txapa botatze badezu ta parian daukazuna ez bada kapaz hori jasateko, ba esan esango diozu baina berak entzun ez... ordun zu lasai geatuko zera baina eragin ez dezu eragingo... ta ordun alde batetik moskeatu nintzan zertikan... moskeatu nintzan ba tipo horrek san zidalako ta joer saten nun... neurriya berak jartzen du, ezta? Baino bueno... era berian, ba igual bide luzeago da askozez dudarik gabe baino... eztakit... igual... efektibogoa da, ez? Diskutitu dezakegu, eh? Hor kopeta batzuk ikusi ditut oso ados etzeudenak... eta baita ere beste puntu bat, gizonezkoak non kokatzen diran guzti honekiko. Alegiya... eh, baita ere hitzaldi hau egin behar genula ta hola... ta hizketan aitu ginanian nik esaten nun.... Pixka bat nekatuta neola hontaz hitzegiten, ez? Beti gauza berdinataz ari gara ta beti buelta ta buelta ta pixka bat roskaz pasata gaudela ere gai honekin... ni gai honekin pixkat roskaz pasata ta eztakit.... Ia

nekatuta... eta pixka bat aldamenetara begiratu eta konturatzen zara beste jende batek igual ez dula sekula entzun gai hauei buruz ez dula sekula pentsatu gai hauei buruz, ez? gugandik hurbil dagoen bertso eskolako jende batek... eta ordun... ba hoi hitziteko garaian ere... batzutan gauza oso jakindak izango dira... beste batzuntzat igual berriak... ta igual pixkabat preokupantea da bien artean dagoen amildegia, ez?... gu roska pasata gaude, nekatuta gaude, ia gai honek ia... ta beste batzuk igual ez dute sekula planteatu, bertso munduko jendeak... eta hoi ba igual iruditzen zait.. igual preokupantea dena... hor bien bitartean dagoen hutsune hoi ba...berdintzen saiatu behar dugula... ta... ta lehen aipatu duten bezala... ez dala gure gaia, osea ez dala emakumeen gaia azken finean ba... baino... horregatik saten det gizonak non kolokatzen dian honekiko ta zenbateraino inplikatu nahi duten ere, ez?

... Ta holaxe... hoixe zan gutxi gora-behera san bar nuna... ez dakit oso azkar esan deten edo ez edo... eztakit, eh?

Neurrin!!!

Neurri egokiyan ezta?

GRABAZIOAREN 3. ZATIA: MAHAI INGURUA; MAIALEN LUJANBIORI GALDERAK ETA EZTABAIDA:

- Zure ustez, eh, bertso mundua aldatu da,(...) esan nahi dut... bertsolari formatua aldatu al da? Formatua ote...

Maialen: Formatu edo bertsolarien jarrera ta...?

- Ez jarrerak ez! Eh... den ikuskizun hori, ez? pixka bat hori...ee, aldaketak ekarri du emakume izatiak?

Maialen: Nik ustet, ikuskizunean bertan, igual gutxiena esango nuke. Osea, ikuskizunaren logika lehen bezelatzu mantentzen da. Igual izatekotan, sango nuke, aldatu bada, aldatu diala, gaiak, arrazoiketa moduak pixka bat politikoki zuzenagoak kasu askotan edo, sensibleagoak gai honekiko edo... baino formatoa bera, nik uste nahiko antzekoa dala. Eztakit, ez?

Jaialdia ta hola esan nahi zu?

- Bai esan nahi dut... eh emakumeen eh... zera hori... sartzeak ea ekarri duen ere bai ba pixka bat... bertsoan aitzeko forma berri bat, e, gaiak aipatzeko edo kantatzeko edo, umorea, berdetasuna ta hori kantatzeko ee, era berri bat, ez?

Maialen: Ba nik uste det baietz... ez dakit era berri bat edo lenokoa pixka bat ee, frenatu duten edo. Ba bertsolarik, gizonezko bertsolarik ee, aipatzen dute, ez? Beraien buruan ere aldaketa bat egin behar izan dutela... ze urtetan aritu dira beraiek emakumeen papelak interpretatzen, ez? Zu senarra, zu emaztea baino biak gizonezkoak ziran... eta gero kasu hoietan, emaztea adibidez, neska bat, benetako neska bat danian... beraiek eh... beren buruan aldatu behar izan dituztela arrazoiketak eta pixka bat kuestionatu dutela beren... hoi esaten dute beraiek... eta nik uste dut baietz, ez dakit zenbateraino sakonean baina bai behintzat kanpora begira esaten dan hortan, ezta? diskurtsoan... pixkat politikoki korrektoagoa edo, edo kontuz, ez?... neska batekin ai zea hitz egiten eta berari buruz aiz zea... errespetu gehiagokin edo...

Gaietan ere... bueno oraindik ze iña asko dago, baino... bueno, nik uste aldaketa batzuk... jendeak behintzat gai hoi baudakala hor, noizbait entzun dula hortaz, noizbait entzun dula emakumeak eta emakumeei buruzko gaiak eta emakumearen figura nola tratatu ta... horri buruz... gaia jartzen denean pertsonak zerbait entzun du noizbait, ta bueno ba... aldaketatxo batzuk eman dira... baita ere segun ze tokitan.. ze pertsona ze... baino bai ai da pixka bat nik ustet urte batzutatik honera aldatu dala... gehio nahi baina...

- Azkeneko Bertsolari txapela izeneko bertsolari gazteen txapeldun, Uxue Alberdi, zuk uste duzu epaimahaiak, Uxue Alberdiri gehiago eskatu ziola bigarrenari baino? Puntuazioa emateko ba, neska zalako...

Maialen: bueno, hola ez nuke esango. Osea nik uste gainera hori egiten dunak ez dula konszienteki egiten, eh?. Osea, zuk hori egiten dezunian, nik ez det esan nahi hoi konszienteki iten danik... osea inork neska bat...

- Ez konszienteki ez zuk, orain arte esandakoakin, emakumeekin...(bai). Hori nik nagusiki ba hola, hola dela badakit nahiz gure kultura bestelakoa izan, beti... Biño hor badira ere beste atal batzuk. Bat adibidez, epaimahaiak ematen duen... puntuaziyoa, ez? sailkapena...(...) modu bat edo beste bat... Orduan, emakumeari gehiago eskatzen diogu edo beste modura ulertzen du?... edo emakumea bertsoa osatu behar duenian, epaimahaiakoak gehienak, denak ez esatearren, gizonak...arrak dira (bai), orduan, nola ikusi, or daukazu zea bat, eh? kaso bat... oso... oso nabarmena...

Maialen: Nik uste lehen esan detena, konszienteki inork ez diola eskatzen, gehio eskatuko diot honi edo gutxiago, baño... batek kantatzen du

- Berdintasuna (...) Berdintasunaren printzipioa... ee, hor sustatua dago?

Maialen: Hombre nik uste, urte batzutatik onera, hobetoa guadela, juradoa ere sensibleagoa izango dela eta... eta... juraduak inoiz ez asmatu arren, beti saiaturko dala ahalik eta objetiboena izaten. Nik aipatzen nuna zan, inkoszienteki zuk desberdin entzuten dezula bat eta bestea, gero zuk baloratuko dezu Uxuek iten duna eta ez dakit zein iten duna, biak baloratuko dituzu... baño... behar bada ez da kasu zehatz hortaz hitz egitea, baino orokorrean, igual emakumeak kantatzen duna... e, emakumearen kalidatea ez dala hain, baloratua edo, bi aldiz kalidate, bi aldiz ona, bi aldiz saio on bat egin behar dula, benetan esateko... joer ba ondo egiten du honek... ulertzen? Bueno ulertzen, gauza anbiguagoa bat da, ezta? zaila da esplikatzen, ezta?... Ze gainera pertzepzioetaz ai gea ...baño, nik ez det esan nahi gauza bat e, aldeztatik erabakita danik, eh?...

- (...) Eremu berri batean eh, beti egin behar duzula doble. Esan nahi dut... eh... ze... neskek, batxilergo teknologikoa aukeratzen dutenean, beti izaten dira... hobiagoak ikasle bezela gizonetakoak baino. Zergatik? Emakume bat aukeratzen duenerako batxilergo teknologikoa, gustatu behar zaio la letxe... ze badaki hasteko eh ingurua, ingurun gizonetakoak dazkala ikaskideak, gero aukeratu beharko dula, eh... karrera gizonetako karrera eta gero enpresen munduan sartu beharko dula eta sartzeko ere arazo gehiago izango dula. Osea supramundu horretara abiatzeko, oso argi euki behar duzu edo gustatu in behar zaizula edo sustatu dizutela etxian edo...argi dago.

- Azkenekoak, Xenpelar sariak eh, ia azkeneko zortzietatikan, zazpi neskak izan dira, eta...ee, nik uste... zentzu horretan, giro, onarpen giroan direla. Eta Igual desberdintasuna dago lehiaketa batetikan plazara, ez? Lehiaketa batean, epaimahaia hor dago eta hor egon daiteke formato bat eta gero plazan aurre egitea ba jendea hor...

Maialen: Bai ta gero plazan ere... beno... gaur egun zaila da edonorentzat, ez? Ez neskentzat bakarrik baño. Ba ez da egun bateko gauza ez, ezta? Ibilean, ibilean ibilean... ee, indartu behar dezun zerbait da, lortu behar duzun zerbait edo... eta gauza asko daude tartean... bertso mailaz aparte ere... eta... gauz, bertso mailaz aparteko gauza horietan ere, neskak era batera hezita gatoz, ez? Ordun... eztakit... eztakit... e, nik uste... ba Xenpelarren, bertso eskoletan, neskak orain asko dira ta... gero eta gehio, ez?...eta... maila gero eta hobe da eta seguruna aipatzen dituzten gauza hauek gero eta gutxigo izango dira, normalean hala beharko luke... osea nik esan, in deten irakurketa general hori... gero eta eh, eztakit puntua kentzen kentzen jun beharko genuke, limatzen limatzen, ez? neskak datozen hala... baino beno... nik uste oraindik badaola, badaola pertzepzio eta desberdin diferentziatu hoi edo ...

- Zuk Maialen, zure kasuan konkretuki, ba duela 15 bat urte edo, ba, 92 inguruan edo zuk 15 bat urte zenitun garaian, Sebastianekin eta Andoni Egañakin hasi zinenean plazaz-plaza... bi fenomenokin , bi... eztakit... txapeldunekin... orduko txapeldunekin ze Andoni garaitsua zan (...)... ordun holako neskato bat nik ere askotan pentsatu dut... holako neskaxa batek ze pintatzen du pieza hauen artean...baino, gaur egun,, 15 urte horiek pasa eta gero...nire analisisa da, igual zure trebakuntzarako, mesede gehiago egin dizula kalte baino horrela ibili izana, ezta? Noski pentsatzen dut hasieran, garai hartan, zu ere pixkat izututa ibiliko zinala? A ze nolako bi astoen ondoan, neskato gazte batek 15 urtekoak, beldur pixka bat ere sentituko du, pentsatzen dut, zuk ere bertigoa sentituko zenun nahiz eta oso trebea izan... eta nortasuna azaldu, ezta? Baino gaur eguneko zure analisisa zein izango litzake, zer egin dizu kalte gehiago edo mesede gehio?

Maialen: Ez ez ez, bueno kalteik batez dudik gabe, eh? Kalteik batez, ta nik lehen esan det eh, hemen kontatu detena, pixkat bazirudin irakurketa nahiko katastrofista bezela ez? baino nik momentuan momentuan ez ditut gauza hoiek sufrimentu bat bezala bizi izan, normalian. Igual puntu batzutan bai... euki ditut... kontraesanak eta dudak, baino normalian nik hoi ez det bizi izan prozesio bat bezala edo kalbariyoa bat bezala, ez? nik hoi bizi izan det nahiko natural, ez?... Egia da, ba giro hortan ta ibiltzeak dudarik gabe ba mesede, baino ni jarri naizelako belarri horiekin...lehen esan detena ba, bilatzen nuen interesa handik edo hemendik... edo pertsona interesanteak ziralako edo hizkuntza aldetik ba.. joer, kriston aberastasuna zalako edo jende interesantea zalako berez... baina esan nahi detena da... ni ere, bakarrik egon banintz ni 15 urtekin eta beste denek 50, ba ez dakit zenbat iraungo nukeen hor, ez? Zenbat denbora egon zaitezke motibatuta, ez? Holako panorama batekin eta horregatik saten nun netzako taldeak inportantzia handia euki dula, ez? Bertso eskolak eta taldiak... ze babes bat daukazu zure estiloko jendiana, eta gero badaukazu beste mundu bat ere zugandik pixkat urrutigo dagona, ta ordun harreman hoi aberasgarria da baino bat bakarrik ustet ittogarria izango litzakeela... Sebastian eta Andonikin 15 urtekin ba... bertsoan eitea kriston motibazioa da, baino gero hor periferia guzti hori ba...netzako oso, beste mundu bat da, ez?... Eta interesa pizten zaizu baino... ez da... ez da... zure ametsa astebururo beren giro hortan

ibiltzea... 15 urte dituzunean ez?... baino bai... gero horrek zaildu iten zaitu dudik gabe, lujo bat da... 15 urtetik horiekin ibili zara, jende interesantea da, pila bat aportatzen dizu, ikasi itezu, gainera bertsotan onenak,... eta hor... pila bat ikasten duzu, ez?

Bai nik gero, orain ez det... ez det nahi inork pentsatzea, orain kriston... kriston... penak pasa ditutenik gaur egun arte, ez? Nik oso sentsazio ona daukat eta bidea oso aberasgarri izan dalako sentsaziyoa, beste gauza bat da orain atzera begira, osea orain nagon puntutik atzera begira egiten deten irakurketa, hor, bidea zeuden arantza batzuenak, nik zulatu nindutenak eta igual ez nien harreta handirik jarri eta bueno, gero arantzak atera ziran eta segi... nik atzera egiten dudan irakurketa bat da...osea ez nuke nahi inork pentsatzea joer ze gaizki pasa dun, baizik eta kontrakoa...bai ta bide hoi... bertso mundua daukan gauza interesantekoena ta...ta zuek ere pentsatzen hola bizi izan duzuela... ba da kontestua, ezta? Hor ze jende interesante dagon, eta herriz herri juten zarenean zenbat jende izautu eta bertso munduan bertan ba joder, Joxe Agirre batekin ibiltzea, gu 15 urte genitunetik eta oraindik gaur arte ere ta Sebastian bat Andoni, Jon... Eztakit, jende pilo bat ezagutzen dezu... ta Gaztetan zu esponja bat bezala zaude hola dena.. horiek izarrak dira, ta zu beraiekin eta bua... dena, dena ikasteko daukazu, ez? Ordun... lujo bat ere izan zan, ez? Hoi dudik gabe.. dudik gabe... bai bai...

- Nik komentario bat in nahi nuke, ez da zuk erantzuteko bestela... baino nik gustora ingo nioke galdera hoi bera Egañai, ez?...Osea eske ematen du zutzat lujo bat izan zan haiekin egotea, ez? Baina haiek ere zerbait ikasiko zuten, ba?... Esan nahi det, ai gea planteatzen dena, emakumeak gizonen esparrura sartu zanen... emakumeok...ba klaro zu gustora egon zinela, ta zu han zinen beraien arten kabitu ondo ez?, baino haiek, zenbat toki... zenbat aldatu ziran zu hor sartzeko? (Maialen: zenbat maniobratu zuten, ez?)... osea beraien forma nola aldatu zan, ez? Uxuena nik uste dut berdin, nik ez nuke ikusiko Uxue, epaimahaiak zer pentsatzen zun baino bueno, igual baloratzen dan hortan txapelketan ere zenbat da Egaña ta Andonin estilikoa ta zenbat da Maialen bertsotan ari danetik eh, atera dana... esan nahi det...zenbat da gizonezko gauzetatik eta zenbat... eta bertsotan beti izan nahi du hortakoa, ez? ... Baino nik uste gauza asko igual zorionez batzuk aldatu direla, ta beste batzuk oraindik aldatzeko daudela? eta... eztakit, ni behintzat hola azkar begiratzea pena ematen dit... esan nahi det, batzuetan (...)baino guk...bertsolaritza zenbat aldatu da?... eztakit...

- Hor dago koska. Hau da, eh, Bertsolaritza ikusten duzu duela 10 urtetatik edo honera, eta botatzen ziren bertsoak plazetan edo gaur egun botatzen diren, gaia desberdina izanda ere, trataera ere arrunt desberdina da, hori da bakoitzak eduki duen eboluzioa. Enintzake sartuko hainbeste, zera, adin kontuarekin, igual bai, sexu kontuarekin ez behintzat, azken finean, bertsolaria berezia egiten duena, bere nortasuna da, ta bere nortasunetik aportatuko dio bertsolaritzari aportatu diezaiokena...() eta elkarrengandik hain zuzen ere, horrek aportatu dio, ez? Batak besteari irakasten diona...ez dakit, dudarik gabe hor zehozer egongo zela haiengandik, haiek ikasiko zutela edo Maialen tratatzeko era... edo berak hemen esan duenaren arabera, da bere pertzepzioa, horren denaren inguruan... pertzepzioak, erratuak izan daitezke... eta hain zuzen ere, denak egon beharko giñake hemen, hitz egiteko, ez? Zuk esan duzuna, luzatuko naiz pixkat, eh?... Oñatikoarekin, Ai gaixua, eh, txapelketa ta gero buruz burukoa...joer... guri Joan Martinekin berdina gertatu zitzaigun 2005 txapelketan. Ta zukin nintzen buruz burukoan, ulertzen? Beragatik esan zidan gaixua. Ez da sexuaren, sexuaren zea... baño esan nahi dut... ba nei bakarrik ez zitzaidan gustatu...

- Ez zuri berei lagunei bezala ez... Baño, Maialenekin sufritu zun atzeko attona horrek, Jesus!!! (...) ez zun esango mekauen dios...

- Ez dakit hoi berai galdetu beharko litzaioke. Ezagutzako maila izango zan, segurunik, Oñatiko gizon horrek seguraski Maialen aurretik ezagutuko zun...saio bat, pare bat saiongatik horrek, behintzat...

(...)

- Eh?

- Bai bai bai, horregatik esaten dut.

- Zure lana ta zenbat sufritu duzun eta ze lotura daukazun eta bestea da, pertsona neutro bat osea bertsolari bat beste pertsona bat (...) gauza bat da... neska batekin ez dutena...

- Hain zuzen ere iruditzen zait hor, eh, generoaren pertzepzioa oso difuminatua ikusten dut nik. Eskola arteko, ikusten duzu bat irrifar batez, itzela ta kantatzen dula hiperseguru... edo ikusten duzu bat dagola hola zure pertzepzioa nahiz eta ez ezagutu arront desberdinak dira eta ahal dira izan biak neskak eta ahal dira izan biak mutil...

- Ez, baino bat neska eta bestea mutila baldin bada sufritzen ari direnak, gehio sufritutako du neskakin... osea nik uste dut...

Maialen: bai bai bai bai.

- Ez nahi gai, hainbesteko sententzia emateko nik behintzat, ez dakit, nik nik ez dut hola ikusten...

Maialen: Be ta igual hor... ez ez osea nik hitz egin det nahikoa, esan esan, esan esan...

- (...) Zuk san duzu, bertsolaritza aldatu dala, eta azkeneko urtetan ere bai, ez?... Baino zeinek egin du irakurketa emakumea bertsolaritzan dagoenetik, ze gauzetan dabilen, emakumeak, ez? Nik ikusi nahiko nuke orain, hitzaldi hau entzundako gizonezkoek zer pentsatu duen hortaz, ez? Esan nahi det, nik jakin nahi det, Lizaso ta Egañak eh... pentsatu duten... ostras ba gaur hemen gaudenetik...beno, (...) aldatu die gauza desberdinengatik, ez? Baino eta guk ostras, neska dagoenetik eta igual guk aldatu degu bertsolaritza edo bertsolaritza aldatu da? Esan nahi det debate hau el litzateke (...) Ez dakit, nik behintzat hemen...

- Gizonezkoek ere egin dute zerbait ongi, ez?... Karlos Aizpuruak ere baditu artikulu pare bat... ez esan nahi dizut ez dela bakarrik emakumeen esparrua... haien bertso eskoletako esparrua izango da eta gehien kezkatu dena, emakumea izan da dudarik gabe, berari eragiten diolako

Maialen: Denoi eragiten diolako!

- Bai bai bai, baino, zuzenean zuzenean, denoi eragiten du, baina zuzenean, zuzenean, baina zuzenago emakumeei eragiten die... zergatik? Hain zuzen ere Maialenek esan duenagatik, sentitzeagatik hori, isildu garela, ez? Nolabait nik sufritu dut emakume bat ikusterakoan kantatzen, hain zuzen ere, ze esango duen eh, jakiteko eta nola esango duen, hori da, hori da zeragatik, hori da, zuk pasa duzunagatik ikusten duzulako hori eta badaukazulako barruan sartuta... ee, ze argumentu... edo zer den esan nahiko zenukena zuk kasu horretan... eta zer ez duen esaten ari zara epaitzen hor... hain zuzen ere hor... hortara noa beste kontu guztiekin berdina gertatzen duzu... ta ez nun esan nahi nik zea... denei eragiten digu biñon...

- (...) Errealitate bat badagoela eta da... eh, eremu pribatu eta publikoa, (gizona: dudarik gabe) erabat ezberdin bizi dugula...

- Dudarik gabe, biño hoi hezkuntzatik etortzen da ez? Hori jaurlaritzari esaiozu!

- Nik, nik galdera praktikoa egin nahi nizuke... eh, ekoizpen intelektualean edo, produkzio intelektualean, hartuta, bertso liburuak egunka dira eginak. Nik ez dut ezagutzen emakumea, bakar bat ere egin duenik, bertso libururik.

(Publikatu??)

Maialen: Bai ba, lehen hori... aipatu dutenian (bai bai publikatu) ez, aipatu dutenian lehen, ba historiako bertsoan ai ziranian emakumeak eta beti aipatzen ditugula baina gero ez dakigula horiei, horiei buruz, ez? Ba...hoi san behar nun, ez? Juten zara liburutegi batera ta ikusten duzu ba bertsolari handien... bakoitzak... tomo bana, bere izenekin ta hola, ta emakumeen bertsolarien garai hartakoen bertsozuz ez dago bilduta ez behintzat espezifikoki liburu baten... bueno, zuk jakingo duzu horretan baino..., bai hoi da... san nahi det... zan papel artian, liburu artian, artikulua batian ataltxo bat... baino ez dago liburu bat... (....)

- Emakume batek egin duena, baina hoi lehengo gauzak dia, joandako historiaren zea, biño egun ere, ez da ezagutzen.

Maialen: ez oraindik ez....oraindik ez (jajaj) logikoa da...

(Jajajja)

- Nire galdera da, a ber ez al dezun, eh, faltan bota, referentzi bat... ba... amona bat bertsoan egiten duna edo 40 urteko emakume bat edo ezagutzen zun pixkat, bueno nik uste dut zu bezalako referentzia, ez? Gaztiak gero umeentzat, bertso eskolako umientzat, eta eskolako umeentzat, neskentzat ere bai... eta a ver zuk ez duzun sentitu, joer... bide guztia zuk ireki beharra ere ba... pixkat hola... edo zure burua non ikusten duzun aurrera begira ere bai, ez?... Badaukazun referentzirik edo, edo zuria sortu nahi dezun edo...

Maialen: Nik hola konszienteki erreferentzi baten falta ez det somatu, baino eske, bide egiteko sentazioa ere ez det eduki. Osea, bide egiteko kontzientzia ez det euki. Igual in det bidea, edo, in deu, baino, pixkat inkonszientea izan dena, ez? Izan da, bueno... baguaz eta guazen, ez?... osea ez da izan alde zuzeneko erabaki bat edo nik harea iritsi nahi det bat... izan da egunian egunian ba... bueno, era batera eta bestera eta orain

hemen... iten juten bat izan da, ezta?. Eginez eginez eginez, ba gaur egun puntu honetan gaude... nik hola bizitu det, ordun ez det bizitu bidea irekitzeko borroka bat ez)... horregatik saten non, hau... pixkat dudakin gelditzen naiz...ez dakit panorama iluna pintatu deten... ordun nik ez daukat sentsazio hori... bide gogorraren sentsazioa, eta sasiak moztutzen jun izanana... pixkat jun hala egin eta igual ordun ez da faltan bota hainbeste referentzia bat, ez? Eta aurrera begira ere... eztakit, pixkat pentsamendu berdina, ba beno... ibilera hala... bidea ingo degu, ez? Pixka bat sentimentu hoi ta... ingo degu... nahigabe... baina pixka bat erreferentzia egin diot nere generazioko talde bati bezala... eta ez ia neskei... nire generazioko talde, eztakit... nahigabe horietaz ai naiz... ta bueno ba... ez dakit nola izan leiken 50 urtekin... eh, hemen aipatzen ai ginan pertzepzioa eta emakume baten hitza herri baten aurrean, ta 50 urteko emakume baten hitza nola izango da, ez?... Ta hemendik 20 urtera zenbat eboluzionatuko degun edo ez edo... baino ez dakit ez det ez det hortan pentsatzen asko egia esan... osea ez da... ez dit eh, galduta egoteko sentsazioa sortzen aurrean inork ez eukitzeak edo... pixkat bueno.. ikusiko degu... ingo deu, ez? Zeozer...

Ni enaiz batere konsziente izan, bidea, bidea baldin bada, honerainokoa ez da izan batere konsziente izan...batere predemitatuta batez ere... izan da oso... ez dakit... bertsotan hasi ere hola... eta segi ere hola... pixkat bueno... iñez, iñez, iñez, iñez... eztakit...

- (...) Bueno, Bertso eskolan ibilitakoa ikusi ditut batzuk, gizonak daukatela hizkuntza bat, ez? Bere arteko... osea, eztakit (...) badago hizkuntza bat...osea ulertzeko modu bat gauza askotako, ez?... orduan bertso eskoletatik ere... agian, emakumeari, espazio hori, emakume, bakarrik emakumeak, neurri baten... askatuko lukeen bere, bere zea, ez?...bere...(...) ulertzeko ee, ulertzeko gauzak eta... bertsotan, bertsoen bidez askatuko litzateke gehiago baino bueno klaro, nesken artean... baita ere pentsamendu hoiak badaude oso izkutatuta emakumean, orduan... (...) pixka bat lotuta dago emakumearen egoerakin, kalea ta guztiarekin igual..., bai gizonak askatasun hori lortzen dutela... (...) bai naturaltasun hori badaukate, (...) orduan emakumeak, espazio natural hori igual... pues bertso eskola batean ere... landu daitekeen edo...

Maialen: Eztakit igual, nik behintzat lotzen det, gaiekin edo igual, ez? Gai konkretu batzuekin, igual bestela ateratzen diranak, umoreakin ere lotuko nuke edo lehen aipatu dugu ere bai ez? emakumeen arteko, emakume erreferentzetzat daukan umorea, ez?... eta holako saiakera batzuk in dira, ez? Holako bilkura batzuk ee, neska bertsolarienak eta hor saiatu pixkat beste era bateko, beste tono baten... beste arrazoiketa modu bat ateratzen... igual... autentikoagoana dana, norberea ez dana hainbeste inerziazkoa edo... gizarte batek txertatu dizuna nahi gabe, ez? Holako alegin batzuk in dira.. eztakit eh... Estitxuk eta igual gehigo jakingo dute hortaz...

- Igual ba, hortik botatako hitza ulertu ez dudana, espazio naturala, zer da hori?
- Ba, pues egotea egoera zehaztu gabe, pues egoera kondizionatu gabe neurri baten, ez? osea egotea lasai, eta bueno, uztea buruari lasai espresatzen eh? presa gabe, neurri baten pues... eztakit... Beti hor ai gea neurtzen neurtzen, beti kalkulatzan... ta hoi sorik, pixkat utzi... lasayo eta nik uste det hoi ba espazio falta diela ze beno, ez?... eta orduan ba bertso mundu horretan ere...Ta bueno gero beste galdera zen, a ver, bertso eskoletan neska edo mutila zergatik gehio orokorrean? Osea nik uste dut hoi..., osea urte batzutan asko handitu dala... bertso eskolan ez (...)?

Maialen: Ba hoi beti aipatzen dana eta nahiko fenomeno esanguratsua da baino bueno igual ere beste esparrutan pasatzen da... baina bertso eskoletan nik uste, gehiengo neskak diala, ez? Bueno irakasleak eta bazaudete hemen baino... ni atzo egon nintzan Algotan adibidez, hango bertso eskola guztien bilkura batian, gaztetxoekin eta hola... ta sari banaketa ta dena in zuten ta... 20 lagun atera ziren... eta bi mutil zeuden bakarrik. Denak neskak ziran... bueno...ustet

(Gero bi mutilak aterako dira...)

Maialen: Hoi da kontua hoi..., hoi da kontua, gero pausu hortan ze gertatzen dan, ez? 20 eta 2 izatetik, ba 2 eta 20 izatera, ez? Hor zer pasatzen dan hor, ez?

- Ta arriskutsua ere bada baño neurri batean ere trikitixakin gertatzen dalako... osea, izango ziranak, orain neska diranak gazteak trikitixakin..., ez dakit, galtzekoa ez baino hain indar hori... gizarte indar hori, pixka bat... eztakit... edo indarra... igual ba, (...) bertsolaritzakin...

Maialen: Baita igual beste kontu bat, bueno, hor botatzen det, orain ere bai, bertso mundu barrenen badabil eztabaida, ez? Bertso plazak eta bertso plaza alternatiboak eta ez dakit zer... ta ere bai igual interesantea litzake, hemen ai gea, ba bertso eskoleatik plazarako saltoa, ta plazara atera eta pixkat... bueno ulertzen degun plazaz-plazako zirkuito hortan ibiltzeai buruz ai gea, ezta?... Baina baita ere beste... disfrutearen bertsolaritza hori, ez?... Beste kaleko bertsolaritza hori... festakoa ez dakit zer... interesantea litzateke pentsatzea ere bai, hor ze pasatzen dan, ez? Neskekin, mutilekin harreman horrekin... ez ia plazaz-plazakoa baizik pixkat eh... bueno, ez? Holako herri mailako... plazerreko, aisialdiko bertsolaritza... lagun arteko hortan, ez? Lagunarteko edo kaleko... ez dakit... hoi...

- Nik uste hor ikerketa in beharko litzake baina nik uste gauza bera errepikatzen dala ...osea ez dala eh... plazan kantatzeko beldurra bakarrik, parrandan, mozkorkerin, 8 tipo alboan neska bat bakarrik, neska horrek kantatuko du bertsoa, dakinen oso ondo atetzen zaiola eta ez dulako ze bestela... eta mutilak edozein mozkorkeri (...) ta kantatzen du ta holako neskarik ez dago... bueno ez dakit...zuri askotan etortzen zaizu,... baino neskak ez... botatzen duzu ondo edo bestelaz ezer ez, ez?... eta azkenean lehengo gauza bera da, ez? Ba espazio, jende aurreko espazio horiek, eh, okupatzeko gaitasuna alde batetik...eta bestetik gaitasuna (...) ordun... nik uste dut bi gauza hor. (...)...bi aspektu ikusten ditut... batetik jende aurreko esparru, espazio publiko hori, igual orain arte heziketaz eta kosta in zaiena, nik uste (...) hezkuntzatik indar bat in daitekeela... beste bat, eh, jendearen pertzepzio hoi, ezta? Ba (...)

Maialen: Hoi da. Apostua hoi da.

- (...) Nahiz hezkuntzatik abiatu, lehenengo pertzepzioa eh, txarragoa baldin bada, azkenean azkenean, berriz ere bueltan, eh inseguridadea sortzen du, orduan, nahiz eta zuk landu txikitatik beste zerbait... eh... edo kulturalki aldatzen aldatzen dezu jende aurrean burua... osea buelta osoa eman beharra dago, bestela ez dago, ez dago.. urte askotako kontua da. (Maialen: dudarik gabe) Ez da, ez da hain errex... ez da hain errex...eh, nik oratorio hau lantzen det ikasleekin, (...) nik oratorio hau izan det, eta da jartzea eta lantzea ez dakit zer.... joer, baina... bainan bale... bai... pun pun pun... baina gero, kalera ateratzen dira, pun lehenengo letxia, pun emakumea

zalako...denek...hitza daukat aurreritzia daukat ez dezula ongi egingo... orduan hurrengoan ez dezu itten... gero...

- Klaro baina hori ere landu behar da, landu behar da... esan nahi det landu beharko da...(…) mutilai berdin zaiela azkenean ere bai, esan nahi det, arriskuan jartzeko prest daude eta neskak ez. Eta, gero jende aurrera ateratzen bazara kakiteko arrisku minimo bat beti badagola, arrisku hori hartzeko ordun, horregatik perfekzionistak eta utzitzen dute...ia ikustezunen beti, (...) atzera salto bat egiten duzu... ordun beste lanketa bat da... bueno (...) eta hor geratzen da... eta hor mozkorrei berdin zaiela gaizki kantatzea edo ridikulua egitea (...), baina neskak ez, gainera minifaldakin baldin badaude (...) osea, dakitela zertan ari diran baina ez kontrola galduta gaizki egiteko... ez dakit... jende aurreko horretan sartzen dan...

- Ez gaizki baloratzen delako baizik eta disfrute bat delako, ez?...

(Denak batera hitz egiten)

- Galdu dugu... igual igual, eh, emakumeek ez diogula ematen halako garrantzirik ematen inportantea izateari. (...) Inportatea ez diot... esanguratsua, nabarmena egitea... igual garrantzia gehiago ematen diogu bertze gauza batzuei.

- Orduan nola ulertzen da, Alemanian Estatu burua emakumea izatea. Eta orain Frantzia gertatu berri bisitan ere... (denak batera hitz egiten)

- Badakizu zergatik edo nola ulertzen dan? Nire ustez, ta errespetu handiakin san nahi dizut, eh? Baina zuk esan duzu eh, zea, Alemanian izatea emakume bat, eta ez dakit non izatea beste emakume bat, alegiya kasu konkretuak badaude...hoixe daudela... baño bakarrak...

- Biño hor daude...
- Bai baino...
- Eta aukeratuak izan dira, eh? Hoiei ez diete eman to, paper bat sinatu ta jun aurrera...
- Bai?
- Ez.
- Nik pare bat gauza komentatu nahi nitun ta...
- Kasu gutti dira eta hortaz ai gea... Maialen ere bertsolaria da eta ez dakit zer... ta bueno bat da.

(...)

10. ESKERRAK:

*Bertsolaria ez baina
Intentzioa aurrean
Esfortzua, interesa
Izan dira bidean
Kilometro zein orduak
Azken hilabetean
Baina merezi izan dute
Lan honen bukaeran
Behin hasita bada erran
Eskerrak bihotzetikan
Laguntza ta prestutasuna
Emandakoei gogoan
Gustokoa izan dezazuen
Bertzerik ez oraingoan*

Zaira Latasa Oteiza
(2010-06-12)